# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia Iruña, 2007ko apirilaren 17a 39-2. ZK.

## A U R K I B I D E A

I SAILA:

**Planak, komunikazioak eta programak:**

—Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010). Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bi aletan argitaratzen da, 39-1 eta 39-2. zenbakietan).

**I saila:**
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

# Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010).

*GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA*

39-1 ALEKO AURKIBIDEA


7. KAPITULUA: EBALUAZIO SISTEMA (2. or.).

SARRERA (2. or.).

A) KALITATEA HOBETZEKO ESTRATEGIA-ILDOAK (9. or.).

B) JARDUKETARAKO ZEHAR-ILDOAK (14. or.).

C) LEHENETSITAKO SEKTOREAK (21. or.).

D) LEHENETSITAKO GEOGRAFIA-EREMUAK (27. or.).

GLOSATEGIA (30. or.).

GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA (GLO) (30. or.).

KALITATEA (30. or.).

GIZA GAITASUNAK (30. or.).

BIDEZKO MERKATARITZA (30. or.).

OCDEko GARAPENERAKO LAGUNTZA BATZORDEA (GLB) (32. or.).

GARAPENERAKO (NAZIOARTEKO) LANKIDETZA (GNL) (33. or.).

LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA (LD) (36. or.).

GEOGRAFIA-EREMUAK LEHENESTEKO IRIZPIDEAK (38. or.).

MILURTEKOKO ADIERAZPENA (38. or.).

GIZA ESKUBIDEAK ETA GNL (39. or.).

GARAPENA (40. or.).

GIZA GARAPENA (42. or.).

GARAPEN IRAUNKORRA (42. or.).

EKONOMIA SOLIDARIOA (42. or.).

GARAPENERAKO HEZKUNTZA (GH) (43. or.).

ZEHAR-ARDATZAK (“MAINSTREAMING”) (45. or.).

AHALDUNTZEA (GAITASUNAK SENDOTZEA) ETA PARTE-HARTZEA (45. or.).

ESTRATEGIA 20/20 (45. or.).

GARAPENAREN FINANTZAKETA (45. or.).

GENEROA (46. or.).

GIZA GARAPENAREN ADIERAZLEA (GGA) (47. or.).

MILURTEKOKO GARAPEN-HELBURUAK (MGH) (47. or.).

GUTXIEN AURRERATUTAKO HERRIALDEAK (GAH) (51. or.).

POBREZIA (52. or.).

ESPAINIAKO GARAPENAREN ALDEKO POLITIKA (52. or.).

EUROPAR BATASUNEKO GARAPENAREN ALDEKO POLITIKA (56. or.).

INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA (58. or.).


## 7. KAPITULUA: EBALUAZIO SISTEMA

SARRERA

Plan Zuzentzaile honetan Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako ildo eta lehentasunak ezartzen saiatu gara, Nafarroarako, bereziki Gobernuarentzat eta inplikaturik dauden eragileentzat. Egin den plangintza-ahaleginak baikortasun eta berrikuntza handiak eskatzen ditu, gure testuinguruko ezaugarri kultural, sozial, politiko eta ekonomikoetan oinarrituta, baina, horretaz gain, errealismoa eta egingarri denari buruzko irizpideak ere behar dira.

Horregatik, Plan Zuzentzaile hau ez litzateke osoa izanen baldin eta lanabesik ez balu bertan hartutako konpromiso zehatzetan izandako aurrerapenak kualitatiboki eta kuantitatiboki neurtzeko

eta baloratzeko. Hortaz, kapitulu honetan jaso dira Plan Zuzentzailean ezarritako helburuak, ekintzak eta horiek neurtzeko (indarrean izanen den lau urteetan zehar) erabiliko diren adierazleak. Gainera, kapitulu honetan informazioa jasotzeko oinarrizko mekanismoak azalduko dira.

Kontzeptuari dagokionez, ebaluazioa kudeaketa prozesuetako zehar-ekintza gisa uler daiteke, bai produktuei dagokienez (esku-hartzeko proiektuak eta programak eta horien eragina populazioan) bai inplikatutako erakundeei dagokienez (erakunde-ebaluazioa). Bi kasuetan helburuak anitzak dira. Hasteko, planifikatutakoaren gaineko kontrollanabes izan daiteke ebaluazioa, eta gauzatze prozesuaren aurrerapenak eta emaitzak egiaztatzeko balio dezake. Gainera, ebaluazioak erakundea sendotzeko balio du, zeren inplikatutako aldeak sendotuta atera daitezke ebaluaziotik. Izan ere, egoki eta eraginkorki funtzionatzen duten osagaiak indartu egiten dira, eta behar ez bezala funtzionatu edo nahi diren helburuak eskuratzen laguntzen ez dutenak bideratzen eta hobetzen ditu. Dena den, ebaluazioaren eginkizun nagusietako bat ikastea da, prozesuari eta gizarte jakin batzuetan izandako eraginari buruz. Ebaluazioak etengabeko hobekuntza eskatzen du, eta hori ezinezkoa izanen da bidean ikasitako osagaiak gureganatu gabe[(41)].

Ebaluazio sistema kontzeptua txertatzeak aipatutako osagai guztiak kontuan hartzea eskatzen du, eta, batez ere, Nafarroako Gobernuaren Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Programan inplikatutako eragile guztiek gogotik parte-hartzea. Ebaluazio sistema bat sortzeak ebaluazio prozesuak egituratu eta finkatzea dakar, zehar-gai modura, erakundearen kudeaketan. Nafarroako Gobernuaren garapenerako lankidetzaren ebaluazio sistema batean aurrera egiteko, sistema horretan inplikatutako maila guztiak barne hartu behar dira: populazio onuraduna, eragileak, lan-talde tekniko eta operatiboak, zuzendaritza, eta abar. Hori dena, esku-hartzeko arlo guztietan eta beren testuinguruan.

Horregatik, Plan Zuzentzaile honetako ebaluazio sistema hiru helburu nagusitan oinarritu nahi dugu: gertatzen den aurrerapena kontrolatzea, prozesuarekin batera indartzea eta etengabe hobetzen ikastea. Horrek denak Nafarroako garapenerako lankidetza hobetzen (hau da, Plan Zuzentzaile honen helburu nagusia lortzen) lagun dezake. Ildo horretatik, ondoko grafikoan erakunde-ebaluazioan ebaluagarri izan daitezkeen osagaiak agertzen dira, **lau ardatzetan** oinarrituric:

1. Ingurua iraunkorki ebaluatzea, aurretik (diagnostikoa), bitartean (segimendua) eta ondoren ("ex post" ebaluazioa), zuzenean zein zeharka onuraduna den populazioari dagokionez, bai herrialde hartzaileetan bai Nafarroan.

2. Lankidetzako Programaren beraren eta inplikatutako arduradunen ebaluazio iraunkorra. Horrek Plan Zuzentzailea (planifikazio estrategikoa den aldetik) ebaluatzea dakar berarekin, helburuak eta estrategia-ildoen eragina barne hartuz. Gainera, Departamentuaren prozesu operatiboak ebaluatu behar dira, baita haren funtzionamendua eta egokitasuna ere, etorkizuneko Plan bati begira.

3. Lankidetzako Programak lortutako emaitza eta produktuak ebaluatzea. Horretarako, Plan honetako lanabesekin lotutako programa, proiektu edo ekintzen "ex ante", segimendu eta "ex post" ebaluazioak eginen dira.

4. Lankidetzako kudeaketak sortzen duen eragina (laguntza hartzen duten herrialdeetan eta Nafarroan) ebaluatzea. Epe luzeko zehar-neurketa da, eta planifikazio estrategikoarekin bat egin dezake, lauzpabost urtero.

*(*) Testuan * batez adierazitako kontzeptu batzuk ageri dira. Kontzeptuen edukia Glosategian ikusgai dago.*

*(41) Honako honetan oinarritua: GONZÁLEZ, Lara (2005): La evaluación en la gestión de proyectos y programas de desarrollo: una propuesta integradora en agentes, modelos y herramientas. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.*




12. grafikoa: Ebaluazio sistema integratuaren diagrama

Iturria: Lara González Gómez. KALIDA- DE- A taldea.

Plan Zuzentzaile honen segimendu eta ebaluazio sistemak honako kontzeptuak jasotzen ditu:

9. taula. Plan Zuzentzailearen ebaluazioan nahitaezko erreferentzia diren kontzeptuak

| | |
|---|---|
| **a) Sistemaren eginkizunak** | 1. Kontrola: Segimendu eta ebaluazio adierazleen bidez ekintza estrategikoak eta horien helburuak kontrolatzea, baita Plan Zuzentzailean ezarritako aurrerapenak eta lorpenak ere kontrolatzea, aurrekontuko konpromisoei dagokienez. |
| | 2. Erakundearen sendotzea: Ebaluazio lanabesak eta guneak txertatzea, aurrekontu-aldi bakoitzean hobetzeko puntuak adierazte aldera eta eragile guztien artean haiek praktikan jartzeko lanabesak ezartze aldera. |
| | 3. Ikasketa: Zehar-ebaluazio azterketak sustatzea, sektore, metodologia nahiz geografia arloetan, edo kudeaketan, non irakaspen eta hobekuntzarako iradokizun sozializagarriak jasoko baitira. |
| **b) Arduradunak** | Ebaluazio sistema batek diseinu eta planifikazioan, informazio bilketan eta ebaluazio-txostenetan inplikatutako eragileak behar ditu. Horretarako, garapenaren aldeko lankidetzan inplikatutako gizarte nafarreko eragileek parte hartu behar dute. Garrantzitsua da horiek denek katean parte-hartzea: Nafarroako Gobernuaren Garapenerako Nazioarteko Lan Zerbitzuak, Nafarroako Garapenaren Aldeko Kontseiluan ordezkatutako eragileek, batzorde teknikoek, laguntza jasotzen duten herrialdeetako entitateek, populazio onuradunak eta nafar gizarteko eragile inplikatuek. Nafarroako Garapenaren Aldeko Kontseiluan bereziki hartarako batzordea sortuko da, Plan Zuzentzailearen Segimendua eta Ebaluazioa egiteko. |
| **c) Eredua eta metodologia** | Ebaluazioari heltzerakoan, zenbait ereduren artean bat aukeratu behar da. Nazioarteko garapenerako lankidetzan oso hedaturik daude EML izeneko eredua eta adierazle kuantitatibo bidezko ebaluazioa. Funtzionala eta argia bada ere, lanabes kualitatiboak baliatzea ere garrantzitsua da, jokabide eta jarreretan aldaketak atzemateko, adierazle kualitatibo eta parte-hartzeko metodologien bidez. Planaren eta haren emaitzen ebaluazioan metodologia integratua lehenetsiko da.<br><br>Bukaeran, segimenduari eta helburu eta emaitzen ebaluazioari (adierazle eta iturrietan oinarrituta) beste ebaluazio mota bat, irizpide orokorragoetan oinarritutakoa, eranstea garrantzitsua da:<br>• Garapenaren aldeko Batzordearen ebaluazio irizpideak (eraginkortasuna, egokitasuna, iraunkortasuna eta eragina).<br>• Kalitate irizpideak (funtzionamendua eta kudeaketa ona, gardentasuna, planifikazioa eta ebaluazioa, boluntarioak eta finantzaketa, besteak beste). |
| **e) Edukiak** | Azaldutakoarekin bat, Plan honen ebaluazioaren helburu honako edukiak dira:<br>1. Garapenerako lankidetzako testuingurua etengabe ebaluatzea.<br>2. Lankidetzako Programa eta haren planifikazio estrategikoa lau urtean behin ebaluatzea.<br>3. Programaren emaitzen ebaluazioa, honako hauei dagokienez: lankidetzako programa eta proiektuen ebaluazioa, ekintza humanitarioa, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza eta prestakuntza eta ikerketa.<br>4. Lankidetzako Programaren eragin orokorra herrialde hartzaileetan eta Nafarroan. |
| **f) Kronograma** | Ebaluazio etengabekoa izanen da, eta zenbait denborazkotasun izanen ditu, edukiaren arabera:<br><br>1. Garapenerako lankidetzaren testuingurua Nafarroan eta Plan Zuzentzaileak lehenetsitako herrialdeetan (testuingurua eta entitate gauzatzaileak): urteroko ebaluazioa.<br>2. Plan Zuzentzailearen eta Lankidetzako Programaren ebaluazioa lau urtean behin eginen da.<br>3. Jarraitutasuna duten proiektuak lau urtean behin ebaluatuko dira, eta Dirulaguntzen deialdian bertan txertatutako Lankidetzako Programen ebaluazioa.<br>4. Ezarritako epe estrategikoan (lau urte) ebaluatuko da programaren kudeaketa guztiaren eragina. |
| **g) Aurrekontua** | Zenbait urteko Programetarako eskatutako guztiaren % 5 bideratuko da gehienez kanpokoa edo mistoa izanen den ebaluaziorako, eta urteroko deialdiaren baitan txertatuko da.<br><br>Lankidetzako Programa kudeatzeko bideratutako aurrekontuko portzentajetik gehienez % 10 zuzendu ahal izanen da Planaren eta inguruaren ebaluaziorako (zerbitzuak segimendurako egiten dituen bidaiak). |

Plan Zuzentzaile honen eragina neurtzeko, bukaeran eraginari buruzko ebaluazio bat eginen da, Plan honetan ezarritako helburuetatik abiatuta, zeina Jarraipen Batzordean planifikatuko baita.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburu orokorra** | Nafarroako Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzan* kalitatea* hobetzea, herrialde pobretuen Giza Garapen Iraunkorrean eragin handiagoa sortzeko, betiere Genero ikuspegian oinarritua, eta Nafarroako Komunitatearen gizarte eraldaketari laguntzea. | | |
| **Berariazkoak** | **Herrialde hartzaileak** | 1.1. | Nafarroatik bultzatzen diren Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzan Milurtekoko Garapen-Helburuak txerta daitezen sustatu eta erraztea. |
| | | 1.2. | Herrialde hartzaileetako gizarteetan balio demokratikoak, parte-hartzea eta giza eskubideekiko errespetuaren finkapena sustatzea. |
| | | 1.3. | Herrialde horietan ekonomia, gizarte eta ingurumen iraunkortasuna erraztea, haien gizarteek autonomia izan dezaten eta tokiko garapena bultza dadin. |
| | | 1.4. | Gertatu diren edo gertatzeko zorian diren krisi zein larrialdi humanitarioen aurrean modu egokian erantzutea. |
| | **Nafarroako gizartean** | 2.1. | Garapenerako Hezkuntza Nafarroako gizarteko maila eta arlo guztietan sustatzea, bereziki hezkuntza formal eta ez-formalean. |
| | | 2.2. | Nafarroako gizartean herrialde pobretuetako errealitateari buruz informatu eta sentsibilizatzea, eta haiekiko elkartasun aktiboko kultura sustatzea. |
| | | 2.3. | Elkartasun eta garapenerako lankidetzako ekintzetan herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzea, batez ere gizarte zibileko eta gizarte mugimenduko erakundeen bidez. |
| | | 2.4. | Nafarroako herritarren artean ardurazko jarrera eta jokabideak sustatzea: arduraz kontsumitzea, bidezko merkataritza eta ingurumenarekiko errespetuzko kultura orokorra. |
| | **Herrialde hartzaileen eta Nafarroaren arteko harremana** | 3.1. | Nafarroa eta garapen-bidean dauden herrialdeen artean harreman egonkorrak sustatu eta erraztea, helburuak, lanabesak eta modalitateak epe luzerako egokituz. |
| | | 3.2. | Garapen-bidean dauden herrialdeekiko harremanei dagokienez, Nafarroako politika publikoen eta Milurtekoko Garapen-Helburuak lortzeko estrategien arteko koherentzia bultzatzea. |
| | | 3.3. | Nafarroako eta laguntza hartzen duten herrialdeetako gizarteen artean elkarren kultura, balioak eta errealitatearen ezagupena handitzea, kultura artekotasuna eta bizikidetza positiboaren balio erantsia estima dadin. |
| | | 3.4. | Nafarroako Gobernuaren Garapenerako Laguntza Ofiziala finkatzea, Nafarroako Parlamentuaren mandatuarekin bat. |

Planifikazio honetan aurreratu diren estrategia-ildoak eta helburuak neurtzeko, ondoko taula hauek aurkezten dira, non zenbait adierazle eta lanabes aurreratzen baitira, gauzatze prozesuan osatu ahal izanen direnak:

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.1. Lankidetza deszentralizatuaren eredua finkatzea | | | | | |
| A.1.1. Nafarroako GNLren* identitatea eta berezitasuna zehaztu eta finkatzea. | | | | | |
| A.1.1.a Eredua (printzipioak, helburuak eta lehentasunak) Nafarroako GNLn ari diren eragileekin batera era partehartzailean azaltzea. | A.1.1.a.a 2006 bukatu baino lehen, Nafarroako lankidetza deszentralizatuaren printzipioak, helburuak eta lehentasunak berrikusi dira eragileekin eta beste administrazio publikoekin batera.<br>PLAN ZUZENTZAILEA ETA URTEKO PROGRAMA 2007<br>***ZERBITZUA – KONTSEILUA*** *– ERAGILEAK* | ■ | | | |
| | A.1.1.a.b 2008ko 1. seihilekoaren bukaeran, Nafarroako Gobernuak sustatzen duen Garapenerako Hezkuntzaren eredua definitzeko jarraibide eta printzipioak islatuko dituen agiria egonen da prest.<br>GHrako PROGRAMA BATERAKO JARRAIBIDEAK NAFARROAN<br>***GH* BATZORDEA*** | | ■ | | |
| A.1.2. GNLren* dimentsiorik hoberena Nafarroan zehaztu eta lortzea | | | | | |
| A.1.2.a Nafarroako GNLren* lanabesak bere eragileen ezaugarri eta berezitasunetara pixkana egokitzea. | A.1.2.a.a Lanabes bakoitzaren jarduketa protokoloak diseinatu dira 2007 bukatu baino lehen, salbu eta estrategia mistoak eta GHrako* programa.<br>LANABESEN JARDUKETA PROTOKOLOAK<br>***ZERBITZUA*** | ■ | ■ | | |
| A.1.2.b Eragileen arteko elkarlana indartzea. | A.1.2.b.a Elkartzeen erreferentzia eta ezaugarriak sarturik daude programen protokoloetan, estrategia mistoetan, laguntza teknikoan, prestakuntzan eta ikerketan, eta GHrako* programetan.<br>LANABESEN JARDUKETA PROTOKOLOAK<br>***ZERBITZUA*** | ■ | ■ | | |
| A.1.2.c Nafarroako GNLn* ari diren eragileek gidatutako epe luzeko esku-hartzeak indartzea, betiere Espainiako Lankidetzaren barnean. | A.1.2.c.a Denboraldi estrategikoaren bukaeran, % 30 igo dira epe luzeko esku-hartzeak.<br>PLAN ZUZENTZAILEAREN GAUZAPENARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA<br>***ZERBITZUA - GGKE*** | | | ■ | ■ |
| | A.1.2.c.b Denboraldiaren bukaeran, 2 estrategia misto daude gutxienez abian jarrita.<br>PLAN ZUZENTZAILEAREN GAUZAPENARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA<br>***ZERBITZUA - GGKE*** | | | ■ | ■ |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.2. Kudeaketa hobetzea. | | | | | |
| A.2.1. Kudeaketa sistemaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna oro har hobetzea, planifikazio, gauzapen eta ebaluazio faseetan | | | | | |
| A.2.1.a Nafarroako Gobernuko GNL* kudeatzen duen organoaren teknika eta administrazio egitura sendotzea. | A.2.1.a.a Aurrekontutan, ildo bat eratu da Lankidetza Programaren kudeaketa finantzatzeko.<br>NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK<br>***ZERBITZUA –EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA - PARLAMENTUA*** | | | | |
| | A.2.1.a.b 2009a baino lehen, Lankidetza Zerbitzuaren giza baliabidea handitua egonen da, bai eta bere espezializazio maila ere (gutxienez, 3 lagun gehiago).<br>URTEKO GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA – FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA*** | | | | |
| A.2.1.b Ebaluazioa ekintza iraunkor gisa, eta esperientzien sistematizazioa kudeaketako gardentasunaren ardatz gisa ezartzea, bai eta garapen estrategien eragin onak partekatzeko moduaren ardatz gisa ere. | A.2.1.b.a 2007 bukatu baino lehen, zehatua egonen da Nafarroako Gobernuaren lankidetza ebaluatzeko eredua, lanabesei, modalitateei eta Plan Zuzentzaileari berari aplikagarria.<br>URTEKO PROGRAMA 2008<br>***ZERBITZUA – JARRAIPEN BATZORDEA*** | | | | |
| | A.2.1.b.b 2007 bukatu baino lehen, Plan Zuzentzailearen jarraipen batzordea eratuko da.<br>GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN KONTSEILUKO AKTAK<br>***ZERBITZUA – JARRAIPEN BATZORDEA*** | | | | |
| A.2.1.c Ikerketa eta prestakuntza estrategia iraunkor gisa indartzea | A.2.1.c.a 2008a baino lehen, etengabeko Prestakuntza Plana sortuko da Nafarroako GNLri* lotuta dagoen administrazio publikoetako langileentzat.<br>BERARIAZKO PRESTAKUNTZA PLANA (NAPI)<br>***ZERBITZUA –NAPI – TOKI ENTITATEAK*** | | | | |
| | A.2.1.c.b Laguntza teknikorako, prestakuntzarako eta ikerketarako lanabesa jarri da abian.<br>LANABESAREN BERARIAZKO PROTOKOLOA<br>NAOean ARGITARA EMANDAKO DEIALDIA<br>***ZERBITZUA*** | | | | |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.2.2. GNLn* eta dirulaguntzetan indarra duen araudia egokitu eta garatzea, lanabesak kalitate irizpideen arabera diseinatzeko. | | | | | |
| A.2.2.a Dirulaguntzei buruzko eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legeak erregelamendu bidez garatzea, eta, hala bada, Plan Zuzentzaile honekin bat datozen aldaketak sustatzea. | A.2.2.a.a 2006. urtearen akaberan, hasia izanen da matxoak 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko prozesua, hots, garapenaren aldeko lankidetza arautzen duena.<br>URTEKO PROGRAMA 2007<br>***ZERBITZUA*** *– IDAZKARITZA TEKNIKO NAGUSIA* | ■ | | | |
| | A.2.2.a.b 20078an dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatzeko Foru Dekretua egina izanen da, nazioarteko lankidetzari buruzkoa.<br>NAOean ARGITARA EMANDAKO FORU DEKRETUA<br>***EKONOMIA ETA ONDASUN DEPARTAMENTUA*** *– ZERBITZUA – JARRAIPEN BATZORDEA* | ■ | | | |
| A.2.2.b Prozesuak azkartzeko dirulaguntzen kudeaketarako jarraibideak ezartzea, esku-hartzeen denbora errealetara egokituak; halaber, egindakoa ebaluatu eta ikasteko mekanismoak ezartzea. | A.2.2.b.a 2007a bukatu baino lehen, dirulaguntzen deialdiaren diseinua eta egitura aldatuak izanen dira, prozesuak azkartzeko, eta esku-hartzeen denbora errealetara egokitzeko, lanabes bakoitzaren protokoloekin bat.<br>LANABESEN JARDUKETA PROTOKOLOAK<br>NAOean ARGITARA EMANDAKO DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– – IDAZKARITZA TEKNIKO NAGUSIA* | ■ | | | |
| A.2.3. Harremanetarako lanabes iraunkorra ezartzea Departamentuaren eta gizartearen artean. | | | | | |
| A.2.3.a Harremanetarako lanabes iraunkorra ezartzea Departamentuaren eta gizartearen artean. | A.2.3.a.a 2007aren bukaeran, Nafarroako GNLren* jarduera argitara emanen da Buletin Elektroniko bidez.<br>KANPO ZABALKUNDERAKO BULETIN ELEKTRONIKOA<br>***ZERBITZUA*** | ■ | | | |
| | A.2.3.a.b Denboraldia bukatu baino lehen, Lankidetza Programak esparru bat eratuko du (web eta beste), gizartearentzako agiri, estrategia, txosten eta abar interesgarriak argitara emateko eta hobekuntzarako iradokizunak jasotzeko. .<br>WEB ORRI EGUNERATUA<br>***ZERBITZUA*** | | | ■ | ■ |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.3 Koherentzia eta Koordinazioa Nafarroako GNLn* | | | | | |
| A.3.1. Eragile publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa hobetzea, hala nola administrazioen publikoen beren artekoa, osoko jarduketa koherentea xede hartuta. | | | | | |
| A.3.1.a Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua indartzea, Nafarroako Gobernuaren GNLri* lotutako politiken partaidetzarako eta koordinaziorako esparru gisa. | A.3.1.a.a Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan hiru lan batzorde eratuko dira: Administrazio Publikoen ordezkariena (NUKFren ordezkaria barne), Planaren Jarraipena eta Garapenerako Hezkuntza.<br>NAFARROAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTSEILUKO AKTAK<br>BARNE ZABALKUNDERAKO BULETIN ELEKTRONIKOA (INTRANET)<br>***KONTSEILUA*** | | | | |
| A.3.1.b Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren, Kanpo Arazo eta Lankidetza Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoetako gainerako Administrazio Publikoen arteko berariazko koordinaziorako esparruetan laguntzea. | A.3.1.b.a Parte-hartzen da Kanpo Arazo eta Lankidetzarako Ministerioak deitutako bileretan (lurralde arteko batzordea, lan taldeak, batzorde mistoak, programa sektorialak), informazioa trukatzen da aipatu ministerioarekin (PACI) eta beste Autonomia Erkidego batzuetako administrazioekin.<br>PACI (Nazioarteko Lankidetzarako Urteko Planak)<br>BATZORDEEN ETA LAN TALDEEN AKTAK<br>URTEKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| A.3.1.c GNLn* Nafarroako Toki Entitateekiko elkarlana sustatzea . | A.3.1.c.a 2 koordinazio bilera egin dira GNLn* programarik edo jarduketarik duten toki entitateekin.<br>URTEKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA – TOKI ENTITATEAK - FNMC*** | | | | |
| | A.3.1.c.b Toki erakundeekin elkarlana egiten da, haiek eskaturik, aholkularitzan eta informazioa trukatzen.<br>URTEKO TXOSTENA<br>***TOKI ENTITATEAK – NUKF*** - *ZERBITZUA* | | | | |
| | A.3.1.c.c Elkarlanean, azterlan bat egin da Nafarroako Toki Entitateen lankidetzaren egoerari buruz.<br>URTEKO TXOSTENA<br>***NUKF –GGKEen KOORDINAKUNDEA*** – *ZERBITZUA* | | | | |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.3.1.d Nafarroako Gobernuko Departamentuen eta sozietate publikoen inplikazioa Nafarroako GNLren* jarduketetan sustatzea. | A.3.1.d.a Abian jarri da administrazio laguntza teknikorako lanabesa<br>BARNE ZABALKUNDERAKO BULETIN ELEKTRONIKOA (INTRANET)<br>LANABES HONEN BERARIAZKO PROTOKOLOA<br>BERARIAZKO DEIALDIA<br>***ZERBITZUA – NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUAK –*** *SOZIETATE PUBLIKOAK* | | | | |
| A.3.1.e Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eta hezkuntza erkidegoaren arteko koordinazioa sustatzea (Hezkuntza Departamentua, ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, Guraso Elkarteak, etab.) Garapenerako Hezkuntza arloko ekintzak sustatzeko, behar bezala planifikatuak eta eragin handikoak. | A.3.1.e.a 2007a bukatu baino lehen, GGKEen eta hezkuntza-erkidegoaren (Hezkuntza Departamentua, Unibertsitateak, ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, bestelako langileak…) arteko mekanismo eraginkorra jarri da martxan, garapenerako hezkuntza sustatzeko eragin handiko ekintza planifikatuak bultzatzeko.<br>GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO JARRAIBIDEAK NAFARROAN<br>BERARIAZKO PROTOKOLOA<br>BERARIAZKO DEIALDIA<br>***HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA*** | | | | |
| A.3.2. Migrazioak eta garapena egokiro lotzeko jarduketak sustatzea, jatorri eta jomuga eremura onura ekartzeko | | | | | |
| A.3.2.aBeste eragile publiko eta pribatuekiko koordinazioa sustatzea (Inmigrazio Bulegoa, Etorkinak Gizarteratzeko Planaren jarraipen batzordea, etorkinen elkarteak, GGKEk, enpresa elkarteak, unibertsitateak, etab.), Nafarroan inmigrazioak duen egoerarekin bat datozen baterako garapen estrategiak bultzatzeko. | A.3.2.a.a 2008aren bukaeran, Baterako garapena kontzeptua definitu eta adostu da Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluan, eta estrategia koordinatua diseinatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin, etorkinen elkarteekin, GGKEekin, sindikatu, unibertsitateekin eta abarrekin.<br>NAFARROAKO BATERAKO GARAPENARI BURUZKO AGIRI BEREZIA<br>***ZERBITZUA –INMIGRAZIO BULEGOA (NGOI)*** *– KONTSEILUA –GAINERAKO ERAGILEAK* | | | | |
| A.3.2.b Etorkin elkarteen eta GNLko* eragileen arteko ekimenak sustatzea, bai eta etorkinek GNLren* jarduketetan parte har dezaten ere. | A.3.2.b.a Plan Zuzentzailearen denboraldi estrategikoa bukatu baino lehen, gutxienez sare batean parte hartuko da jatorri eta jomuga eremuen arteko komunikazioa, harremana eta partaidetza sustatzeko.<br>GGKEen TXOSTENAK<br>URTEKO TXOSTENA<br>***GGKE – INMIGRAZIO ELKARTEAK*** | | | | |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>**EGIAZTAPEN ITURRIA**<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.4 Lankidetzan ari diren eragileen sendotze instituzionala | | | | | |
| A.4.1. GGKEk indartzea, beren egituren eta eginkizunen kalitatea hobetzeko, eta beren jarduketa emaitzetara bideratzea, bai eta epe luzerako ekintzetara eta eraginkortasunean oinarritutako eraginera ere (baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzea). | | | | | |
| A.4.1.a GGKEen eskumenak eta gaitasunak indartzea (epe luzeko kudeaketa estrategikoa, giza baliabideen kudeaketa, boluntarioen politika, genero eta soldata politika, besteak beste; gizarte erantzukizun korporatiboaren sustapena) prestakuntzaren eta aholkularitzaren bitartez | A.4.1.a.a Gutxienez bi prestakuntza eta gogoeta jardunaldi egin dira GGKEen kudeaketa hobetzeari buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***UNIBERTSITATEA – GGKE –****ZERBITZUA* | | | | |
| | A.4.1.a.b Plan Zuzentzaile honen iraunaldian gutxienez 2 jardunaldi egin dira GGKEen prestakuntza eta aholkularitza arloko esperientziari buruz eta bestelakoak ere bai: gizarte erantzukizun korporatiboaren irizpidea sartzea, Kalitatea-Bikaintasuna ikuspegia sartzea.<br>ENTITATEEN TXOSTENA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***GGKE –*** *ZERBITZUA* | | | | |
| A.4.1.b Jokabide egokien zabalkundea sustatzea, Nafarroan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan egiten diren jarduketak ebaluatzearen bitartez. | A.4.1.b.a Denboraldiaren bukaeran, gutxienez 5 txosten aditzera eman dira GGKEen ebaluazio instituzionalaz eta jokabide egokiez, Nafarroan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan egindako jarduketen ebaluaziotik abiatuta.<br>KANPO ZABALKUNDERAKO BULETIN ELEKTRONIKOA<br>WEB ORRIA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>EBALUAZIO TXOSTENAK<br>***ZERBITZUA – GGKE*** | | | | |
| A.4.2. Beste eragileen ekintzak argitu, sustatu eta aditzera ematea. | | | | | |
| A.4.2.a Unibertsitate-esparruan egitura egonkorrak indartzea laguntza teknikoa, dokumentazioa, prestakuntza, ikerketa eta ebaluazioa sustatzeko lanabesak abiarazteko. | A.4.2.a.a Denboraldiaren bukaeran, Unibertsitateek hainbat lanabes jarri dituzte abaian: laguntza teknikoa, prestakuntza eta ikerketa, eta jarduketa gidatu dute dagokion lanabesean.<br>ELKARLANERAKO BERARIAZKO HITZARMENA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA – UNIBERTSITATEA*** | | | | |

## A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| A.4.2.b Oro har, lankidetzan ari diren beste eragileen eginkizuna erakustea (enpresak, sindikatuak, besteak beste), eta beren jarduketa eta inplikazioa indartzea egiazki parte-hartzeko esparruak eratzearen bidez. | A.4.2.b.a Gutxienez 2 jardunaldi egin dira lankidetzan ari diren beste eragile batzuek (enpresak, sindikatuak, besteak beste) landutako sentsibilizazioa eta egindako esperientziak gizartean hedatzeko.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***BESTE ERAGILE BATZUK*** *– ZERBITZUA* | | | | |
| A.4.2.c Eragileen arteko kanpainak egitea, sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren alde, nazioarteko lankidetzan ari diren eragileen eginkizuna nafar gizarteari jakinarazteko. | A.4.2.c.a % 30 igo dira GGKEen eta Nafarroako lankidetzan ari diren beste eragile batzuen artean koordinaziopean egindako lankidetza, sentsibilizazio, laguntza teknikoa edo prestakuntza ekintzak.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK*** *– ZERBITZUA* | | | | |

## B) Jarduketarako zehar-ildoak

| ILDOAK<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>**EGIAZTAPEN ITURRIA**<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.1 Pobrezia desagerraraztea | | | | | |
| B.1.1. Oinarrizko giza premien asetzea lehentasunez sustatzea. | | | | | |
| B.1.1.a Jarduketa orotan MGHekiko* lotura sartzea. | B.1.1.a.a 2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| B.1.2. Garapen ekonomiko iraunkorra bultzatzea. | | | | | |
| B.1.2.a Toki garapena bultzatuko duten esku-hartzeak sustatzea, bereziki landa eremuetan, aberastasun auto-sostengatua eta iraunkorra sorrarazita, sektore pobre eta ahulenentzat. | B.1.2.a.a 2007an, "Programak" lanabesa martxan jarri da eta 2008aren bukaeran "estrategia mistoak" delakoa.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE* | | | | |
| | B.1.2.a.b Eraginkortasunez eratu da 2007ª baino lehen, laguntza teknikoa eta prestakuntzarako lanabesa.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – UNIBERTSITATEAK – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | |
| B.1.3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan sartzeko aukerak sortzea. | | | | | |
| B.1.3.a Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarrera GNLren* jarduketa orotan pixkana sartzea | B.1.3.a.a Denboraldiaren bukaeran, % 30 igoko dira lehen, bigarren hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako esku-hartzeak, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan sartzea sustatzeko.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE* | | | | |
| B.2 genero berdintasuna sustatzea | | | | | |
| B.2.1. Garapen Generoa deritzon kontzeptua Nafarroako GNLren* jarduketetan sartzea. | | | | | |
| B.2.1.a Genero Garapena* deritzon ikuspegia nafar gizartean sustatzea. | B.2.1.a.a Plan Zuzentzailearen iraunaldia bukatu baino lehen, genero ikuspegia sartuko da hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren esku-hartze guztietan, lehen eta bigarren hezkuntzan, unibertsitatean, bai eta astialdian eta hezkuntza ez-formalean ere.<br>ERAKUNDEEN JARDUERARI BURUZKO TXOSTENAK<br>***GGKE*** *– BESTE ERAGILE BATZUK –* ***ZERBITZUA*** | | | | |

## B) Jarduketarako zehar-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.2.1.b Arlo honetan, jokabide egokiak sustatu eta zabaltzeko ikerketa, prestakuntza eta ebaluazio lanabesak sustatzea. | B.2.1.b.a Denboraldiaren bukaeran, emakumeak pobreziaren desagerrarazpenean duen eginkizunari buruzko ikerlan bat egin da.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>IKERKETA AGIRIA<br>***UNIBERTSITATEAK – CUALQUIER AGENTE –*** *ZERBITZUA* | | | | |
| | B.2.1.b.b Genero eragina programetan eta estrategia mistoetan sartzen dituzten ebaluazioak egin dira.<br>TXOSTENA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENAK<br>***GGKE – ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.2.1.b.c Iraunaldia bukatzean, gutxienez eragileek arlo honetan egindako prestakuntza edo sentsibilizazioari buruzko jardunaldi 1 egin da.<br>TXOSTENA<br>***GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK – ZERBITZUA*** | | | | |
| B.2.1.cParte-hartzea eta beste eragileekiko koordinazioa indartzea, bereziki NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA generoaren arloan*, bai eta emakumeen berdintasunaren eta aurrerapenaren aldeko foroetan ere. | B.2.1.c.a Denboraldiaren bukaeran, Nafarroako lankidetzako eragileak genero berdintasunaren eta emakumeen aurrerapenaren aldeko sare edo foroetan parte hartuko dute.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>ERAGILEEN JARDUKETEI BURUZKO TXOSTENAK<br>***GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK – ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.2.1.c.b 4 bilera egin dira NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO INSTITUTUAREN eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetza Zerbitzuaren artean, Berdintasun Planeko 10. arloari jarraipena emateko.<br>URTEKO TXOSTENAK<br>***NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA – ZERBITZUA*** | | | | |

## B) Líneas transversales de actuación (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.2.2. Genero berdintasuna hala kudeaketa prozesuetan nola antolaketan sartzea. | | | | | |
| B.2.2.a Lanabes guztietan genero ikuspegia* sartzea, metodologia egokia erabilita. | B.2.2.a.a 2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.2.2.a.b Denboraldia bukatzean, eragileen % 30ek genero ikuspegiko politika instituzionala sartu dute.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>ERAGILEEN JARDUKETEI BURUZKO TXOSTENAK<br>***GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK – ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.2.2.a.c 2007tik aurrera, Nafarroako Gobernuko Garapenaren aldeko Lankidetzaren baliabideen % 20 emakumeen ahalduntzera eta bere erakundeetara bideratzeko konpromisoa hartu da.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***GGKE –*** *ZERBITZUA* | | | | |
| B.3 Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea | | | | | |
| B.3.1. Nafar GNLren* lanabesek ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeko printzipio eta ekintzak aintzat har ditzaten sustatzea. | | | | | |
| B.3.1.a Nafar GNLren* esku-hartze guztietan, ingurumen eragina ebaluatzeko irizpideak baliatzea, metodologia egokia erabilita. | B.3.1.a.a 2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| B.3.1.b Ikuspegi hori Garapenerako Hezkuntzaren* jarduketetan sar dadin indartzea. | B.3.1.b.a 2007tik aurrera, positiboki baloratuko dira Garapenerako Hezkuntzako eta Ingurumen Hezkuntzako ekintzak lortuko dituzten ekimenak.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |

**B) Jarduketarako zehar-ildoak** (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.3.2. Nafarroako GNLren* jarduketan lehentasunez energia berriztagarrietan oinarritutako energia-sistema eragingarriak erabil daitezen bultzatzea. | | | | | |
| B.3.2.aGNLko* eragileen eta energia berriztagarrietan espezializatutako enpresen arteko elkarlan handia sustatzea, GNLren* jarduketetan energia-sistema eragingarri eta iraunkorrak txertatzeko, transferentzia teknologikoa, prestakuntza eta laguntza teknikoaren bitartez. | B.3.2.a.a Planaren iraunaldia bukatzean, Lan batzordea eratua izanen da GNLko* eragileen eta energia berriztagarrietan adituak diren enpresen artean, jarduketetan energia-sistema eragingarri eta iraunkorrak txertatzeko.<br>LAN TALDEKO AKTAK<br>***CRANA*** *– ZERBITZUA – UNIBERTSITATEA – ERAGILE ADITUAK – ENPRESA ESPEZIALIZATUAK* | | | | |
| | B.3.2.a.b Denboraldia bukatzean, AZAHAR Programako 2 Mintegi Aurreratu eginak izanen dira.<br>LAN TALDEKO AKTAK<br>***ZERBITZUA – AECI – UNIBERTSITATEA*** *–ERAGILE ADITUAK – ENPRESA ESPEZIALIZATUAK* | | | | |
| B.3.3. Ingurumenaren kontserbazioarekin eta baliabideen zentzuzko erabilerarekin bat datozen esku-hartzeak bultzatzea, bereziki edateko ura eskura izateko ekintzak sustatuta.. | | | | | |
| B.3.3.a Ingurumena kontserbatzeko, baliabideak zentzuz erabiltzeko eta edateko ura eskura izateko estrategiak sustatuko dituzten osagaiak lanabesetan sartzea. | B.3.3.a.a Denboraldiaren bukaerarako, edateko ura eta oinarrizko saneamendua eskura izatea sustatzen duten esku-hartzeak % 30 igoko dira.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE* | | | | |
| | B.3.3.a.b Jokabide egokiei buruzko 2 ikerlan edo ebaluazio egin dira arlo honetan eta gizartean zabaldu dira.<br>BOLETÍN ELECTRÓNICO DE DIFUSIÓN EXTERNA<br>WEB ORRIA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>EBALUAZIO TXOSTENAK<br>***ZERBITZUA – GGKE – UNIBERTSITATEAK*** | | | | |
| B.3.3.b Esku-hartzeek ingurumenean dakartzaten ondorioez eta aro horretan izandako aurrerapenez prestatu eta aholkatzea. | B.3.3.b.a Gutxienez, 2 sentsibilizazio Jardunaldi egin dira Nafarroan esku-hartzeen ingurumen ondorioei buruz eta gai horretan izandako aurrerapenei buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***CRANA*** *–* ***ZERBITZUA*** *– GGKE - UNIBERTSITATEAK* | | | | |

## B) Jarduketarako zehar-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.4 Giza Eskubideak babestea, demokratizazioa eta kultur nortasuna errespetatzea | | | | | |
| B.4.1. Giza Eskubideak –Haurren Eskubideak barne– nafar lankidetzaren lanabesetan sartzea, eta eskubideak sustatu, babestu eta bermatzeko ekintzak aurreikustea, kultur nortasuna errespetatzea barne. | | | | | |
| B.4.1.a Giza Eskubideen ikuspegia GNLren* ekintzetan sartzea, kultur nortasunaren errespetua barne, metodologia egokia erabilita | B.4.1.a.a 2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.4.1.a.b 2007tik aurrera, deialdietan positiboki baloratuko dira Garapenerako Hezkuntzaren eta Giza Eskubideen arteko lotura sartzen duten ekimenak.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| B.4.1.b GLO* jasotzen duten herrialdeetan Giza Eskubideen egoera Nafarroa zabaltzea, bai eta lagun egiten zaien gutxiengo etnikoen edo indigenen kultur nortasunari dagokionez ere. | B.4.1.b.a 2009a bukatu baino lehen, gutxienez gogoeta eta zabalkunde jardunaldi 2 egin dira laguntza lehentasunez jasotzen duten herrialdeetan giza, ekonomia, gizarte eta kultur eskubideek duten egoeraz, bai eta laguntzen diren gutxiengo etnikoen edo indigenen nortasunen gainean ere.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – UNIBERTSITATEAK* | | | | |
| | B.4.1.b.b Gutxienez jokabide egokiei buruzko ikerlan edo ebaluazio 1 egin da kultur nortasunaren errespetuari edo giza eskubideen sustapenari dagokienez.<br>KANPO ZABALKUNDERAKO BULETIN ELEKTRONIKOA<br>WEB ORRIA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>EBALUAZIO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA – GGKE – UNIBERTSITATEAK*** | | | | |

## B) Jarduketarako zehar-ildoak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| B.4.2. Demokratizazioa eta gobernabide ona sustatzea Giza Eskubideekin bat. | | | | | |
| B.4.2.a Demokratizazioa sustatzea, deszentralizazioa eta "gobernabide ona" sustatzearen bidez. | B.4.2.a.a Demokratizazioari eta gobernabide onari buruzko esku-hartzeek gora egin dute % 30 denboraldiaren bukaeran lehenetsitako herrialdeetan, berezietan edo sendotu beharrekoetan.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA** – GGKE* | | | | ■ |
| | B.4.2.a.b 2007an, "laguntza tekniko administratiborako" lanabesa jarri da abian.<br>LANABESAREN PROTOKOLOA<br>DEIALDIA<br>***ZERBITZUA – DEPARTAMENTUAK*** | ■ | | | |
| | B.4.2.a.c 2007tik aurrera, positiboki baloratuko da Deialdian toki gobernuen parte-hartzea programen garapenean, bai eta programei emandako abala ere.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA – GGKE*** | ■ | | | |
| B.5 Gaitasunak sortzea eta gizartea antolatzea | | | | | |
| B.5.1. Garapen komunitarioa eta gizartearen sendotzea sustatzea gizartearen parte-hartzearen bitartez. | | | | | |
| B.5.1.a Parte-hartzea sustatzeko mekanismoak ezartzea. | B.5.1.a.a 2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | ■ | | | |
| | B.5.1.a.b 2007ko deialditik aurrera Programetan, eta 2008ko bukaeratik goiti Estrategia Mistoetan, partaidetzan oinarritutako diagnostiko gehigarria aurkeztuko da egiazko partaidetzarako eta erabakiak hartzeko mekanismoen berri emateko, betiere gizon-emakumeek esku-hartzearen kudeaketan kontuan hartuko dutena (diagnostikoa, planifikazioa, gauzapena, jarraipena eta ebaluazioa), kontsulta hutsaz haratagokoa.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA - GGKE*** | ■ | ■ | | |
| B.5.2.b Esku-hartze orotan gaitasuna bultzatzeko estrategiak sustatzea. | B.5.2.b.a2007an, zeharkakotasun hau bete ote den ikusteko zerrendak eginen dira, lanabes bakoitzean sartzeko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | ■ | | | |

## B) Jarduketarako zehar-ildoak (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>**EGIAZTAPEN ITURRIA**<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **1** | **2** | **3** | **4** |
| B.5.1.c Erakunde sareei laguntzeko mekanismoak ezartzea. | B.5.1.c.a 2007ko dirulaguntzen deialditik aurrera, entitate eragileak eta beren jarduketa gaitasunak baloratzeko irizpideak sartu dira (planifikazio estrategikorik, jarduketa politikarik, finantzaketa autonomiarik ote dagoen, besteak beste).<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | B.5.1.c.b Plan Zuzentzaileak indarra hartzetik aurrera, abian jarri da laguntza teknikorako eta prestakuntzarako lanabesa, arlo instituzionala Nafarroan eta herrialde jasotzaileetan sustapen eta garapen instituzionala sendotzeko.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – UNIBERTSITATEAK – BESTE ERAGILE ADITU BATZUK* | | | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.1. Oinarrizko giza beharrak asetzeko gaitasunak hobetzea. | | | | | |
| C.1.1. GLOren* metaketari eustea laguntzan eta sostengu teknikoan (prestakuntza eta gaikuntza), ondoko gauza hauetan sarrera iraunkorra, egonkorra eta kalitatezkoa hobetzera bideratuak:<br>✓ Edateko ura eta oinarrizko saneamendua.<br>✓ Elikagaien eta nutrizioaren segurtasuna.<br>✓ Oinarrizko osasuna, sexu osasuna, ugalketa osasuna, eta GIB/IHESari aurre egitea, bai eta garapen-bidean dauden herrialdeetan bereziki hedatuak dauden gaixotasunei ere.<br>✓ Oinarrizko hezkuntza, lanbide heziketa eta helduen alfabetatzea. | | | | | |
| C.1.1.a Oinarrizko giza gaitasunak hobetzeko programak sustatzea. | C.1.1.a.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | C.1.1.a.b Denboraldiaren bukaeran, GLOren* % 50 oinarrizko giza gaitasunak hobetzera bideratuko da.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA –*** *GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | |
| | C.1.1.a.c. Lehen sektorera bideratutako esku-hartzeak % 10 handitu dira denboraldiaren bukaeran.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA –*** *GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | |
| | C.1.1.a.d Denboraldiaren bukaeran, gutxienez ikerlan 1 egin da jarduketari hobekuntza teknikoak eta teknologikoak eransteari buruz aipatu esparruetan.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***UNIBERTSITATEA – GGKE*** *– BESTE ERAGILE BATZUK – ZERBITZUA* | | | | |
| C.1.1.b Osokotasuna sustatzen duten epe luzeko ekimenak bultzatzea. | C.1.1.b.a “Programak” eta “Estrategia Mistoak” lanabesak abian jarri dira.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA –*** *GGKE* | | | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.1.2. Bereziki kalteberak diren taldeentzako ekintzak lehenestea:<br>✓ Haurren aldeko jarduketak (elikadura, osasuna eta hezkuntza).<br>✓ Herri indigenak (autogarapena, antolaketa, kultura).<br>✓ Arrisku egoeran dauden emakumeak (hezkuntza, lana, ahalduntzea*).<br>✓ Errefuxiatuak eta lekualdatuak. | | | | | |
| C.1.2.a Talde horien aldeko esku-hartzeak baremoan sustatzea. | C.1.2.a.a 2007ko deialditik aurrera, Plan Zuzentzaile honentzat bereziki kalteberak diren herritar taldeen aldeko diskriminazio positiboa sartu da.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK* | ■ | | | |
| | C.1.2.a.b Denboraldiaren bukaeran, % 30 igo dute haurren, herri indigenen, errefuxiatuen eta lekualdatuen, eta emakume pobreen aldeko jarduketa.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | ■ |
| C.2. Gobernamendu demokratikoa, garapen instituzionala eta gizartea sendotzea. | | | | | |
| C.2.1. Sektore hau osagai hauetan indartu eta metatzea:<br>✓ Gobernamendu demokratikoa, "gobernabide ona" sustatzeari dagokionez.<br>✓ Gizartearen egiturak sendotzea.<br>✓ Giza Eskubideak eta Bakerako Kultura.<br>✓ Laneko eskubideak eta eskubide sindikalak. | | | | | |
| C.2.1.a Sektore honetan jarduketak sustatzea. | C.2.1.a.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | ■ | | | |
| | C.2.1.a.b Denboraldiaren bukaeran, % 20 igo da Lankidetza Zerbitzuak sektore honetara bideratzen duen aurrekontua.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | ■ |
| | C.2.1.a.c Denboraldi osoan, gutxienez gogoeta jardunaldi edo kanpaina 1 egin da aipatu gaiei buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***UNIBERTSITATEA – GGKE*** *– ZERBITZUA* | | ■ | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.2.1.b Garapenaren eta bakerako kulturaren aldeko esku-hartzeak aintzat hartzea gatazka iraunkorreko eremuetan edo bake-elkarrizketak gertatzen diren tokietan. | C.2.1.b.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko .<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| C.3. Ekonomia eta ekoizpen gaitasunak hobetzea | | | | | |
| C.3.1. Pobrezia desagerrarazten lagunduko duten ekoizpen ekimenak sustatzea, bereziki arreta landa eremuan eta hirietako bazterketa egoeretan jarrita. | | | | | |
| C.3.1.a Laguntza teknikoa eta ekoizleen gaikuntza sustatzea. | C.3.1.a.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | C.3.1.a.b "Laguntza teknikoa, prestakuntza eta ikerketa" lanabesa abian jarri da.<br>LANABESAREN PROTOKOLOA<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA** – GGKE – UNIBERTSITATEAK – BESTE ERAGILE BATZUK* | | | | |
| C.3.1.b Lurra nekazarien eskuetan uzteko ekimenak laguntzea. | C.3.1.b.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| C.3.1.c Produktuak banatu eta merkaturatzeko sareak sustatzea, toki, nazio eta nazioarteko sareetan sartzearen bitartez; eta, bereziki, nazioarteko *bidezko merkataritza** delakoaren bidez. | C.3.1.c.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>**EGIAZTAPEN ITURRIA**<br>***ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)*** | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.3.1.d Bidezko merkataritza nafar gizartean sustatzea, zehazki kontsumo arduratsuan, gizarte erantzukizun korporatiboan edo gizarte edo ingurumen irizpideen araberako erosketa publikoa bultzatzea. | C.3.1.d.a 2008ko lehen seihilekoaren bukaeran Garapenerako Hezkuntzarako jarduketa estrategia pentsatua izanen da, eta barne hartuko ditu kontsumo arduratsua sustatzeko jarduketak, bai eta bidezko merkataritzako eta, oro har, ekonomia solidarioko ondasunak sustatzeko jarduerak ere.<br>NAFARROAKO GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO JARRAIBIDEAK<br>***GARAPENERAKO HEZKUNTZA BATZORDEA*** | | | | |
| C.3.2. Enpresa txiki eta ertainaren ehuna sendotzea, batez ere ekonomia solidarioa sustatzen duten enpresena. | | | | | |
| C.3.2.a Lanerako prestakuntza sustatzea, bai eta mikroenpresak, kooperatibak, lan sozietateak, etab. sortzea ere. | C.3.2.a.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| C.3.2.b Nafarroako sektore pribatuaren eta laguntza jasotzen duten herrialdeetako enpresa txiki eta ertainaren arteko elkarlana indartzea. | C.3.2.b.a Denboraldiaren bukaeran, gutxienez 2 Jardunaldi eginak izanen dira gai honi buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** – *BESTE ERAGILE BATZUK – GGKE – UNIVERSIDAD* | | | | |
| C.3.2.c Nafarroako sektore pribatuaren eta laguntza jasotzen duten herrialdeetako enpresa txiki eta ertainaren arteko elkarlana indartzea. | C.3.2.c.a 2007an, sektore honetako kalitatea eta, hala bada, diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, lanabes bakoitzari eransteko.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| C.4. Garapenerako Hezkuntza – Sentsibilizazioa eta Prestakuntza – Ikerketa. | | | | | |
| C.4.1. Alde batetik, Garapenerako Hezkuntzaren (zentzu hertsian) epe luzeko lana sustatzea, eta beste alde batetik, lankidetzari buruzko gizarte sentsibilizazioa epe laburrera sustatzea. | | | | | |
| C.4.1.a Hezkuntza jardueren kalitatea sustatzeko esku-hartzeei lehentasuna ematea (egokitzapen pedagogikoa, zeharkakotasuna, osokotasuna, eraldakuntza, etab.). | C.4.1.a.a 2007an, Garapenerako Hezkuntzako lanabesen kalitatea eta diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| C.4.1.b Eragileek epe luzerako Garapenerako Hezkuntza estrategiak erabil ditzaten sustatzea. | C.4.1.b.a 2007an, Garapenerako Hezkuntzako lanabesen kalitatea eta diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.4.2. Prestakuntza eta Ikerketa sustatzea, lankidetzaren kalitatea egituratzeko lanabes gisa. | | | | | |
| C.4.2.a Unibertsitateak GNLn* duen eginkizuna indartzea prestakuntza eta ikerketarako funtsezko eragilea den aldetik. | C.4.2.a.a Denboraldia bukatzean, gutxienez ikerlan 1 egin da Garapenerako Hezkuntzako estrategia hoberenei buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***UNIERTSITATEA** – ZERBITZUA – GGKE* | | | | |
| | C.4.2.a.b Denboraldia bukatzean, GNLri* buruzko prestakuntza plana diseinatu da eragile guztientzat.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***GARAPENERAKO HEZKUNTZA **** | | | | |
| C.4.2.b Ikerlan aplikatuen, ebaluazio-ikerlanen eta esperientziak nahiz jokabide egokiak sistematizatzeko ikerlanak sustatzea, egindakoaren kalitatean eta etorkizuneko ekintzen berrikuntzan aurrera jotzeko. | IKUS EBALUAZIORAKO AURREKO ADIERAZLEAK ETA JOMUGAK | | | | |
| C.4.3. Hezkuntzan, prestakuntzan eta ikerketan ari diren eragile guztien koordinazioa hobetzea. | | | | | |
| C.4.3.a Eragileen elkartzea indartzea, bere koordinazioa hobetzeko. | C.4.3.a.a 2007an, Garapenerako Hezkuntzako lanabesen kalitatea eta diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, eta barne hartuko dira GGKE elkarteen ezaugarriak eta betebeharrak.<br>LANABESEN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |
| | C.4.3.a.b 2007an, Laguntza Teknikoa, Prestakuntza eta Ikerketa lanabesaren kalitatea eta diskriminazio positiboa aztertzeko irizpideak prestatuko dira, eta barne hartuko dira GGKE elkarteen eta beste eragileen ezaugarriak eta betebeharrak.<br>LANABESAREN PROTOKOLOAK<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** | | | | |

## C) Lehenetsitako sektoreak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| C.4.3.b Hezkuntza Departamentuaren partehartzea sustatzea hezkuntzako garapenerako eragile gisa, hezkuntza formalaren organo eskuduna den aldetik, bai eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren Gazteria Zuzendaritza ordetzarena ere, hezkuntza ez-formalaren gazteentzako jarduketen arduraduna den aldetik. | C.4.3.b.a Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan Garapenerako Hezkuntza lantzeko Batzorde Teknikoa eratuko da. Hezkuntza Departamentuko eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko ordezkariak izanen dira batzordekide.<br>BATZORDEKO AKTA<br>***GARAPENERAKO HEZKUNTZA**** | | | | |

## D) Lehenetsitako geografia-eremuak

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| D.1. Lehenetsitako herrialdeak, lotura historikoaren arabera. | | | | | |
| D.1.1. GNLren* eragina herrialde horietan handitzea, eta bereziki Giza Garapenik apalena duten beren eskualdeetan. | | | | | |
| D.1.1.a Berariazko programak herrialdeen arabera egitea. | D.1.1.a.a Denboraldiaren bukaeran, gutxienez 4 “herrialde – estrategia” agiri prestatu dira.<br>“HERRIALDE – ESTRATEGIA” AGIRIA<br>***ZERBITZUA*** *– ERAGILE GUZTIAK* | | | | |
| D.1.1.b Jarduketak pixkana Estatu barnean lehenetsitako eskualdeetan identifikatu eta metatzea. | D.1.1.b.a Denboraldiaren bukaeran, departamentuetako sakabanaketa geografikoa % 30 murriztua izanen da, eta lehenetsitako departamentuak ezarriak izanen dira definitutako HERRIALDE – ESTRATEGIETARAKO.<br>ESTRATEGIA – PAÍS” AGIRIA<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– ERAGILE GUZTIAK* | | | | |
| D.1.1.c Eragin handiko toki garapenerako eta, hala bada, programa sektorialak, osoko programak egin daitezela sustatzea, lanabes egokien bitartez. | D.1.1.c.a Denboraldiaren bukaeran, % 20 igo dira lehenetsitako herrialdeetan egiten diren epe luzeko (hainbat urtetarako programak) esku-hartzeak.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *- GGKE* | | | | |
| D.1.2. Herrialde horiekin harreman instituzionalak eta sozialak sakontzea. | | | | | |
| D.1.2.a Nafarroako GNLko* eragileen eta herrialde horietako eragileen arteko elkar ezagutza sustatzea, egun batean itunak eta sareak sortu eta sendotzea sustatzeko. | D.1.2.a.a 2008ko deialditik aurrera, tokiko instituzioen (gobernukoak eta sozialak) abalak aurkeztuko dira Programen eta Estrategia Mistoen eskaeretan, hala bada.<br>DEIALDIA<br>***ZERBITZUA*** *- GGKE* | | | | |
| . | D.1.2.a.b Gutxienez 2 jardunaldi egin dira “Herrialde – estrategia” baten xede izan den herrialde bati buruz..<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– ERAGILE GUZTIAK* | | | | |

## D) Lehenetsitako geografia-eremuak (jarraipena)

| **ILDOAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOAK**<br>**EKINTZA ESTRATEGIKOAK** | **Adierazleak – ebaluaziorako helmugak**<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | **Lehentasunezko jarduketa-urtea** 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| D.2. Gutxien Aurreratutako Herrialdeen* edo Giza Garapenaren Adierazlea* apala dutenen aldeko lehentasunak. | | | | | |
| D.2.1. Nafarroako GLO* herrialde horietan pixkana handitzea. | | | | | |
| D.2.1.a Lanabesetan herrialde horien aldeko diskriminazio positiboa ezartzea. | D.2.1.a.a 2007ko deialditik aurrera, herrialde horien aldeko diskriminazioa ezarri dira, lanabes bakoitzaren ezaugarrien arabera.<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE –BESTE ERAGILE BATZUK* | ■ | ■ | | |
| | D.2.1.a.b Denboraldiaren bukaeran, finantzaketa % 30 handitu da Giza Garapen Adierazle apaleko edo Gutxien Aurreratutako Herrialdeetara.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** | | | | ■ |
| D.2.2. Herrialde horietan egiten diren jarduketek eragin handiagoko ekintzetara bideratzea. | | | | | |
| D.2.2.a Nafarroako GNL* Espainiako Lankidetzaren VITA Programan indartzea. | D.2.2.a.a 2 mintegi aurreratu egin dira VITA programari buruz.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA –AECI – UNIBERTSITATEA – BESTE ERAGILE BATZUK*** | ■ | | ■ | |
| | D.2.2.a.b Denboraldiaren bukaeran, % 25 igo da VITA programaren ezaugarriak biltzen dituzten proiektuak.<br>GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE* | | | | ■ |
| D.2.2.b Toki bazkide egokien identifikazioa herrialde horietan sustatzea. | D.2.2.b.a 2008tik aurrera, "Mikroekintzak" lanabesaren barnean sartzen dira Toki Bazkideen identifikazio jarduketak finantzatzeko aukera, etorkizunean proiektuak edo programak gauzatzeko, betiere lanabesaren protokoloari berariazko bermeak erantsita.<br>MIKROEKINTZEN PROTOKOLOA<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA*** *– GGKE* | | ■ | | |

## D) Lehenetsitako geografia-eremuak (jarraipena)

| ILDOAK<br>HELBURU ESTRATEGIKOAK<br>EKINTZA ESTRATEGIKOAK | Adierazleak – ebaluaziorako helmugak<br>EGIAZTAPEN ITURRIA<br>*ARI DIREN ERAGILEAK (lodiz, nagusia edo nagusiak)* | Lehentasunezko jarduketa-urtea 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| D.3. Etorkinen jatorri herrialdeak lankidetzan sartu eta indartzea | | | | | |
| D.3.1. Nafar GNL* Nafarroan bizi diren etorkinen jatorri eskualdeetan sendotzea. | | | | | |
| D.3.1.a Nafar GNLren* eragileekin eta etorkinekin nahiz beren elkarteekin jarduketa-estrategia partehartzaileak definitzea, etorkinen jatorri eskualdeetarako. | D.3.1.a.a2008aren bukaeran, Baterako garapena kontzeptua definitu eta adostu da Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluan, eta estrategia koordinatua diseinatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin, etorkinen elkarteekin, GGKEekin, sindikatu, unibertsitateekin eta abarrekin.<br>BERARIAZKO AGIRIA: BATERAKO GARAPENA NAFARROAN<br>***ZERBITZUA – INMIGRAZIO BULEGOA (NGOI)*** *– KONTSEILUA –GAINERAKO ERAGILEAK* | | | | |
| | D.3.1.a.b Programetan eta estrategia mistoetan, talde honetako herrialderik baldin badago, baterako garapenari buruzko atala sartu beharko da.<br>PROTOCOLO DE LOS INSTRUMENTOS<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA –GGKE*** | | | | |
| D.3.1.b Pixkana aipatu eskualdeekiko elkarlanari lehentasuna ematea. | D.3.1.b.a Denboraldiaren bukaeran, talde honetan sendotu beharreko herrialdeen diskriminazio positiboaren aldeko irizpideak sartu dira, eta bereziki AZAHAR programari egin zaio aipamena.<br>LANABESEN PROTOKOLOA<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA –GGKE*** | | | | |
| | D.3.1.bb Denboraldiaren bukaeran, handitu da herrialde hauetan egindako esku-hartzeen aurrekontu osoaren portzentajea.<br>LANABESEN PROTOKOLOA<br>DEIALDIAK<br>***ZERBITZUA –GGKE – BESTE ERAGILE BATZUK*** | | | | |

**GLOSATEGIA**

**Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO):** Agentzia ofizialek, estatuetako nahiz tokian tokiko gobernuak edota haien agentzia exekutiboak barne direla, garapen-bidean dauden herrialdeentzat eta alde anitzetako instituzioentzat bideratzen dituzten fluxuak dira, eragiketa bakoitzean honako baldintza hauek betetzen dituztelarik: (a) Funtsezko helburuak garapen-bidean dauden herrialdeen garapen ekonomikoa eta gizarte ongizatea dituzte; (b) emakida-izaera dute eta dohaintza alderdia gutxienez %25ekoa dute. Hau da, merkatuan baliabide horiek berak eskuratzeko izanen lituzketen baldintzen hobekuntza edo liberalitate alderdia behar dute eduki transferentzia horiek, eta (c): herrialde onuraduna GLBak egindako GBHen (Garapen-bidean dauden Herrien) zerrendan egon behar du. *Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB), Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (LGEE)*

**Kalitatea**: Kalitatea-Bikaintasuna kontzeptuak biltzen ditu egungo aldaketa bizkorrak eragiten duen errealitatean egokitzeko garatu daitezkeen eta behar diren kudeaketa jokabiderik onenak:

• Lana aurrez ezarritako emaitzak lortzera bideratzea (adierazleen bidez neurtzeko moduan);

• ekimen osoa populazio onuradunari begira eta planak lehenetsitako herrialdeetako erakundeei begira bideratzea;

• beharrezkoa den lidergotik aurrera egitea, helburuen eta ekimenen koherentzian, era koordinatuan bestelako administrazio publikoekin, eta garapen lanean Nafarroan diren gainerako eragileekin;

• oinarri izatea kudeaketa horizontala eta prozesukakoa;

• pertsonen eta erakundeen garapenean aurrera egitea, parte-hartzea eta gaitasun-eragintza direla bide;

• Ikaskuntzatik abiatuta etengabeko hobekuntza, balorapena eta berrikuntza ahalbidetuko dituzten lan-moduak eta lanabesak ezartzea;

• elkar-hartzeak eta sare-lana sustatzea;

• eta azkenik, gizarte erantzukizun korporatiboa sustatzea, bai enpresaren alorrean, bai gizartearen alorrean ere[42].

*González, Lara (2006).*

**Giza gaitasunak:** Giza gaitasunak kontzeptuak[43] Amartya Senek proposaturiko nozioa biltzen du, ongizatea eta bizi-kalitatea era holistagoan ebaluatzeko irizpide gisa, diru-sarreren ohiko adierazletik aldenduta bizi-kalitatea zehazteko garaian. Nozio hau justiziaren teoriaren testuinguruan agertu zen, eta Nazio Batuek aintzat hartua eta oso erabilia izan da giza garapena kontzeptuatzeko, lehenik, eta ondoren neurtzeko. Amyrta Sen berarekiko elkarlanean hasieran, Martha Nussbaumek zabaldu du giza gaitasunak kontzeptua, eta teoria bat landu du giza bizitzaren alderdi garrantzitsuei buruz, aldi berean nahi duena balio transkulturalak defendatzea, eta leku nahikoa uztea aniztasun kulturalarentzat. Giza gaitasunak, batez ere bigarren alderdi honetan, oso loturik daude giza eskubideekin. Ildo honetatik, lehenago esan izan den moduan, Kopenhagengo Gizarte Garapenerako Goibileraren konpromisoa, alegia,Garapenerako Laguntza Ofizialaren %20 gizartearen beharrizan oinarrizkoetarako ematea, herrialde hartzaileen konpromisoarekin batera zetorren, haiek euren aurrekontuen %20 emanen baitzuten gai berean.

**Bidezko Merkataritza:** Bidezko Merkataritza Europan sortu zen 60ko hamarkadan, Ipar eta Hegoaren arteko merkataritza-harreman okerrei aurre egin beharrez. Izan ere, Hegoaldeko herriak kaltetuak baitziren harreman horietan, gero eta pobreagoak, irtenbide bakarra zutela besterentzako lan-esku merkea izatea, edota kanpora saltzeko nekazaritza gaiak ekoiztea, bizimodu duina eramateko aski ez ziren salneurri gero eta baxuagoekin. Funtsezko printzipioa du Hegoko ekoizleei beren lanaren ordain zuzena bermatzea, bai eta lan baldintza duinak eta ingurumenarekiko begirunezkoak ere.

Nazioarteko merkataritzaren egungo ereduak historia luzea du: kolonien garaian ere indarrean zen, eta hauen eta metropolien arteko harremanetan bera zen nagusi. Eredu honen lehenengo ondorioa truke-harreman egiazkoa hondatzea da: lehengaien salneurriak gero eta eskasagoak dira eskuz landutako ekoizkinen salneurrien aldean, besteak beste honako arrazoi hauengatik:

• Ekoizpena handitzea. Hegoaldeko herri gehienek kanpo zorraren zama latza jasaten dute, eta zor horri aurre egiteko, eta aldi berean Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren doikuntza programak betetzeko, esportazioak areagotu behar izaten dituzte. Politika hau dela eta,

*(42) Erabateko Kalitatea-Bikaintasuna ereduan oinarritutako ikuspegia, gizarte alorrera ekarria.*
*(43) Pérez de Armiño, Carlos. Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo. Hegoa 2000.*

salneurriak are gehiago jaisten dira, merkatuan eskaintza handia dagoelako.

• Hegoaldeak eskaintzen dituen lehengaiek gero eta interes eskasagoa aurkitzen dute merkatuan, ordezko produktu artifizialak badirelako. Adibide bat: 1997aren amaieran Europako Parlamentuak baimena eman zion txokolatearen industriari kakao-gurina % 5eraino ordezkatzeko bestelako landare koipeak erabilita. Erabaki eztabaidatsu honek kakao eskaria murriztea ekarri zuen, eta beraz, diru sarrera gutxiago herrialde ekoizleentzat, lehendik ere nahiko baxu eta ezegonkorrak izaki.

• Lehengaien merkatuaren buruherri aberatsenetako batzuk ditugu, ekoizpenaren zati handi bat haiek kontrolatzen baitute multinazional handi eta indartsuen bitartez. Unilever enpresak Indiako te salmenten %85 kontrolatzen du, eta ontziratutako tearen %98. Latinoamerikako platanoaren esportazioak mundu osoko produktu honen merkatuaren %64 dira, eta hiru multinazionalen esku daude: Chiquita, Dole eta Del Monte, hain zuzen ere.

“Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia” (MGNBK) 1964an bildu zen lehen aldiz “Merkataritza, ez laguntza” lelopean. Hartan zehaztu ziren hainbat proposamen herri aberatsen eta pobretuen arteko harreman berrien alde. Orduko ebazpenek, besteak beste, merkataritza-mekanismo bidezkoagoak abiaraztea aurreikusten zuten, baina herri aberatsenetako zortzik betoa jarri zieten. Testuinguru honetan sortu zen Bidezko Merkataritzaren aldeko mugimendua.

60ko hamarkadaren erdialdera, Hegoaldeko herrialdeekiko laguntza talde batzuk hasi ziren eskulangintza-ekoizkinak hona ekartzen, gero Europan katalogo bidez saltzeko, elkartasun taldeak zirela medio. Baina 1969ra arte ez zen zabaldu Bidezko Merkataritzan ariko zen lehenengo denda, Holandan hain zuzen ere. Bidezko Merkataritzako lehenengo kafea beranduago sartu zen Europan: Guatemalako kooperatibetatik heldu zen, eta 1973an hasi zen sartzen. Espainian, lehenengo bi dendak 1986an zabaldu ziren, bat Andaluzian eta bestea Euskadin. 1996an Bidezko Merkataritzako Erakundeen Koordinakundea sortu zen.

1996an Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) emandako urteko txostenaren arabera, munduko merkataritza-trukaketen %80 Iparraldeko herrien artekoak izaten dira, %4 Hegoa-Hegoa izaten da, eta gainerakoa Ipar-Hego merkataritzari dagokio. Esportazioagatiko diru-sarreretan, berriz, afrikar 3 herrietatik bitan eta Hegoamerikako 18tan erdiak baino gehiago lehengaien araberakoak izaten dira. Afrikak kontzeptu honengatik dituen diru-sarreren %70 hiru ekoizkinen kontura egiten ditu, haietatik bi lehenak kakaoa eta kafea direlarik.

Hegoaldeko herri anitzen ekonomia esportaziorako nekazaritza-gaietan oinarritua izateak baditu bestelako ondorio larriak:

– Langileen esplotazioa.

– Elikagaiak ekoizteko behar zuen lurrari bestelako erabilera ematea; eta

– Ingurumenaren hondamena.

Beharrezkoa da merkataritzaren ikuspegi berri bat, arduratsua eta iraunkorra. Bidezko merkataritza ohiko merkataritzaren alternatiba da, merkataritza bera eta ekoizpena pertsonen zerbitzura jartzen dituena. Planetako herri behartsuenen garapena ahalbidetzen du, eta gizarte zein ekologia alderdiak biltzen dituzten balore etikoak bereganatzen ditu, ekonomia-irizpide hutsak gailentzen diren ohiko merkataritzak ez bezala. Esaterako, Bidezko Merkataritzan:

• Eskualde pobretuetako nekazariek eta ekoizle txikiek beren lanetik era duinean bizitzeko modua aurkitzen dute.

• Kontsumitzaileek kalitatezko produktuak eskuratzen dituzte, langileen eskubideak eta ingurumena errespetatu dituztela bermaturik.

• Ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko lotura berreskuratzen da.

• Irizpide ekonomikoak eta printzipio etikoak bateragarriak direla erakusten da.

Bidezko merkataritzaren printzipioak ez dira ber-berak herrialde guztietan, Merkataritza Zuzena erakunde anitzen eskutik lantzen ari zenarekin batera eratu baitira. Haiek bateratzea helburu zela, NEWS! Sareak (Bidezko Merkataritzako Denden Europako Sarea) ekoizleei, inportatzaileei eta dendei begirakogutxieneko irizpide estandar zenbait landu zituen.

Ekoizleentzako irizpideak:

• Lan-sari bidezkoak eta lan-baldintza onak.

• Langileen gizarte-ongizatea hobetzea.

• Erabakiak hartzean langileek esku har dezaten bideak jartzea.

• Gardentasuna egiturei eta jarduerei dagokienez.

• Merkataritzak gizon-emakumeen eta neskamutilen bizitzengan dituen ondorioei buruzko kezka izatea, eta gizon-emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzea.

• Giza eskubideak babestea, indar berezia jarriz umeengan, emakumeengan eta populazio indigenengan.

• Ingurumenarekiko begirunea.

Inportatzaileentzako irizpideak:

• Ekoizleei bidezko ordaina ematea euren lanaren truk.

• Ekoizleei aurrefinantzaketa eskaintzea edota bestelako mailegu-moduak eskuratzeko bidea ematea.

• Euren etekin-marjinei buruz gardenak izatea.

• Ahal den neurrian bitartekari kopurua gutxitzea.

• Ekoizleentzako merkatu segurua lortzearen alde lan egitea.

• Laguntza eskaintzea ekoizleei prestakuntza, aholkularitza teknikoa, merkatuaren ikerketa eta ekoizkin berrien garapena direla medio.

• Ekoizleei euren ekoizkinentzako merkatuei buruzko informazioa eskaintzea.

• Dendei ekoizkinen eta ekoizleen gaineko informazioa eskaintzea.

• Gardenak eta zabalak izatea euren egiturak eta jarduerak direla eta.

• Ekoizleekin batera lan egitea, ingurumenaren ikuspegitik ekoizpen-moduak, ekoizkinak eta bilgarriak hobetzeko.

• Enpresa inportatzailearen beraren barnean, honako betebehar hauek zehazten ditu:

– Giza eskubideak babestea, era berezian umeei, emakumeei eta gutxiengoei dagozkienean.

– Aukera berdintasuna sustatzea.

– Bideak jartzea langileak erabakietan esku har dezaten.

Dendentzako Irizpideak:

• Bidezko Merkataritzako produktuak saltzea.

• Informazioa zabaltzea euren helburuei buruz, produktuen jatorriari buruz, ekoizleei buruz eta, oro har, merkataritzari buruz.

• Ekoizleen egoera hobetzeko eta nazio barneko nahiz nazioarteko politikan eragiteko kanpainetan parte-hartzea.

• Dendako langileak, kontratupekoak izan nahiz boluntarioak izan, Bidezko Merkataritzaren helburuei atxikiak izatea.

• Dendetan ari diren pertsonek dagozkien erabakietan parte har dezaten aukera ematea.

• Gardenak izatea euren egituretan eta jardueretan.

(SETEM-en WEB orritik hartutako informazioa))

**OCDE erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB)**: OCDE barnean GLB sortu zen 1961ean, bere baitako herrialdeen Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) ematerakoan jarraitu beharreko hainbat zuzentarau ezartzen dituen Batzordea, hain zuzen ere. Haren ekarpenik nabarmengarrienetako bat izan zen OCDEko kide diren herrialdeen Garapenerako Laguntza orientatu behar duten zuzentarau eta irizpideen planteamendua egitea. Irizpide haiek bildurik daude Garapenerako Laguntzarako eskuliburua: GLBren printzipioak laguntza eraginkorrerako (GLB, 1996) delako argitalpenean. Horregatik, Munduko Bankuarekin eta PNUDrekin batera, GLBk funtsezko eginkizuna izan du garapenerako nazioarteko lankidetzaren politika lantzerakoan, eta OCDEko herrialdeek aurrera daramaten bitarteko lankidetza politikak ezagutzeko berebiziko erreferentzia da(44).

Garapenerako lankidetzaren hurrengo urteetarako ikuspegian izan diren aldaketa garrantzitsuenetako bat Garapenerako Elkartze Estrategia berria (GEE, helburuei begira bideratua)) hartzea izan da. Estrategia hau laurogeita hamarrekoen hamarkadaren hasieran landu zen, eta 1995ean formulatu zen lehenbiziko aldiz, “Garapenerako elkartzeranzko bidean (partenariatua) mundu-testuinguru berrian” izeneko dokumentuan. Ikuspegi honen oinarrizko orientabideak honako hauek dira:

a) Garapenerako lankidetza funtsezko inbertsioa da garapen-bidean dauden herrialdeetan ekonomia eta gizarte alorretan ongizatea ezartze-

*(44) Carlos Askunzek biltzen duenez (2005): Garapenerako lankidetza publikoa. Espainiako GLO eta euskal lankidetza publikoaren kasuak. Hegoa. Estrategia, Politika eta Garapenerako lankidetzaren Eragileak Masterra. 3. Unitate didaktikoa, Bilbo, 2004ko martxoa. GLBk OCDEren (OCDEren) barneko herrialdeen arteko laguntzaren kalitatearen segimendua egiten du. Kide diren herrialdeentzako zuzentarau betebeharrekoak planteatzen ditu, garapenerako lankidetza programen aldizkako azterketa kritikoak egiten ditu, eta emaitzen laburpenak plazaratzen ditu; elkarrizketarako eta bizipenen trukaketarako foro bat eskaintzen du, eta argitara ematen ditu laguntzari buruzko estatistikak eta txostenak, eta ofizialtzat onesten diren bestelako datu estatistikoak ere bai.*

ko, eta ekonomia alorreko kide berrien eta gero eta dinamikoagoen agerpena ekartzen du.

b) Pobreziaren kontrako borroka lehentasunezko helburua da. Lankidetzarako estrategiek eta programek jenderik baztertuenak laguntzea izan behar dute ardatz, euren aukerak zabaltzea eta bizimodua hobetzea bilatuz.

c) Garapen eta lankidetzarako politikek arrakasta izan dezaten beharrezkoak dira hainbat baldintza. Emaileen ekintzak garapen-bidean dauden herrien berezko gaitasunak indartzera bideratu behar dira, garapen iraunkorraren oinarriak ezartzeko hartara, alegia:

• Politika horietarako testuinguru egokia, egonkorra eta ekonomiaren hazkundea bultzatzen duena.

• Inbertsioak gizartearen garapenean, batez ere hezkuntzan eta oinarrizko osasunean.

• Herritarren parte-hartzea, era berezian emakumeena, eta desberdintasunen murrizketa.

• Kudeaketa publikoa egokia, instituzio demokratikoak, giza eskubideekiko eta zuzenbide estatuarekiko begirunea.

• Ingurumenarekiko begirunea.

• Gerta litezkeen gatazken kausak kontrolatzea eta gastu militarrak mugatzea.

d) Garapenerako laguntza funtsezko osagarria da, batez ere herrialde pobreenentzat, baina garapen-bidean dauden herriek eurek hartu behar dituzte euren gain garapenerako politikak eta programak. Emaileek, berriz, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako baliabide aski eman behar dituzte.

e) Emaileek, gainera, euren politiken koherentzia begiratu behar dute.

f) Garapenerako lankidetzak eraginkorra eta eragilea izan behar du. Horretarako funtsezkoa da koordinazioa, eraginkortasunaren ebaluazioa, azterketak eta metodologia egokien ezarpena indartzea.

g) Orientabide hauek hurrengo hamarkadan lor daitezen elkarrekin lanean aritzeko konpromisoa hartzen dute GLBko (CAD) kideek.

"Garapenerako lankidetzaren eginkizuna XXI. mendearen hasieran" (Paris, 1996ko maiatza) izeneko dokumentuak orientabide berri hau biltzen du GLBan bildutako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren ardura duten ministroen, laguntza erakundeen buruzagien eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren bestelako goi-karguen ahotik: Garapenerako Lankidetzari lotuta herrialde guztiek bete beharreko helburu nagusiak zehazten ditu, bai eta horiek lortu ahal izateko egokiak diren metodoak eta bitartekoak ere.

Helburuak oinarrizko lau esparruri dagozkio:

• Ongizate ekonomikoa: pobrezia murriztea.

• Gizarte-garapena: lehen hezkuntza, hezkuntzan genero desberdintasuna kentzea, amaumeen osasuna eta ugalketa osasunaren zerbitzuak.

• Ingurumenaren iraunkortasuna eta birsorkuntza: garapen iraunkorrerako nazio-estrategiak eratzea eta natur baliabideen galbideari atzerako joera ematea.

• Garapenaren osagai kualitatiboak: garapen parte-hartzailea, demokratizazioa, auzi publikoen kudeaketa egokia eta giza eskubideak.

Ondoko helburu operatibo hauek ezartzen dira.

a) Pobreziarik larrienean bizi diren pertsonen kopurua %50 murriztea 2015erako.

b) Oinarrizko eskolaratze unibertsala 2015erako lortzea.

c) Lehen eta bigarren hezkuntza kalitatezkoa izateko eskubide berdintasunean izan litezkeen bazterketa modu guztiak, bereziki sexuagatikoak, ezabatzea 2015erako.

d) Umeen heriotza kopurua bi heren murriztea, eta amena hiru laurden, 2015erako

e) Ugalketa osasun zerbitzuetarako sarbide unibertsala oinarrizko osasun zerbitzuen bitartez egin ahal izatea 2015erako

f) Ingurumenak hondamenerako erakusten duen joera (oihanak, ur edangarria, klima, lurra, bioaniztasuna, ozono geruza) itzulikaraztea 2015erako

Garapenerako Elkartze Estrategiaren giltzarriak honako hauek dira: laguntza hitzartzea helburu neurgarriak lortzeko, garapen estrategiak garapenbidean dauden herriek euren gain hartzea, laguntzaren eraginkortasuna hobetzea eta garapenean eragina duten politiken koherentzia handiagoa bilatzea.

**Garapenerako (Nazioarteko) Lankidetza (GNL)**: Eragile publiko nahiz pribatuek aurrera eramandako ekimenak, errenta maila desberdina duten herrien artekoak, Hegoaldeko herrien garapen sozial eta ekonomikoa sustatzea bilatzen dutenak, Iparraldearen aldean orekatuagoak izan daitezen eta iraunkortasuna izan dezaten. Gómez Galán eta Sanahuja (1999).

GNL, beraz, nazioarteko harremanen esparrurik zabalenean kokatzen da, horien alor espezifiko bat delarik, eta gehienbat errenta erlatibo eskaseneko herrien bizimodua hobetzea du helburu (*Gómez Galán eta Sanahuja, 1999*), Honek esan nahi du ez daitekeela murriztu nazioarteko edozein lankidetza mota izatera, edo Garapenerako Laguntza Ofizial soilera.

San Franciscoko Itunaren 1.3 artikuluak nazioarteko lankidetzaren printzipioa Nazio Batuen herri sinatzaile guztientzat onartu zuen: “Nazioarteko lankidetzan aritzea ezaugarri ekonomiko, sozial, kultural edota humanitarioa duten nazioarteko arazoen konponbidea da, giza eskubideekiko eta guztion askatasun funtsezkoekiko begirunea sustatzen eta lantzen delarik,bereizketarik egin gabe arraza, sexu, hizkuntza edota erlijioa direla eta. Ondorioz, Nazioarteko Lankidetza betebehar juridikoa da Nazio Batuetako kide guztientzat. Era berean, 56. artikuluan ezartzen duenez, kide diren estatuek konpromisoa hartzen dute ondoko neurri hauek hartzeko: pertsona guztientzako bizi-maila altuagoak sustatzea, aurrerapen eta garapen ekonomiko eta sozialerako baldintzak, ekonomia, gizarte eta osasun alorretako nazioarteko arazoak konpontzea, lankidetza hezkuntza eta kultura mailan, eta giza eskubideekiko begirune orokorra eta bazterketarik gabea.

Nazioarteko lankidetza mota honen ezaugarrien artean, honako hauek aurkitu dituzte aipatutako azken egileek:

a) Zuzentasuna eta nazioarteko elkartasuna.

b) Elkarrenganako interesa.

c) Erantzunkidetasuna Iparra-Hegoa: elkartzeko hartu-emana elkarrekiko begirunearen eta parteen arteko berdintasunaren gainean oinarritua.

d) Laguntzaren baldintzatasuna: gutxieneko baldintzak herri hartzaileetan.

GNL kontzeptu generikoaren baitan honako modalitate edo lanabes hauek aurkitzen ditugu. (*Gómez Galán eta Sanahuja,1999*):

1. Merkatuko lehentasunak eta salneurrien egonkortzeko sistemak. Baliabideen transferentzia zuzenik berez ekartzen ez badute ere, garapenaren sustapenerako lanabes nagusietakoak dira hauek, Hegoaldeko herrietako salgaien esportaziorako eskaintzari irteera hobea ematea ahalbidetzen dutelako, eta aldi berean esportazioagatik hartzen dituzten diru-sarrerak handitzeko eta egonkortu eta aurreikusteko moduan jartzen dituztelako.

2. Ekonomia alorreko lankidetza. Tresna honen oinarrian ditugu ekoizpen alorra (batez ere enpresa pribatua) indartzeko ekimenak, teknologia garatzeko eta transferitzeko ekimenak, eta ekoizpenaren laguntzarako egiturak sortzeko ekimenak (enpresentzako zuzeneko laguntzak, know-how delakoaren transferentzia, ekonomiaren berrikuntzarako laguntza teknikoa eta instituzionala, joint ventures edo baterako enpresak sortzeko eta inbertitzeko proiektuei diru laguntza eta instituzioen laguntza ematea; merkatua sustatzeko ekimenak).

3. Laguntza finantzaria. Modalitate honek bere baitan biltzen ditu kapitala transferitzeko eta eskuratzeko hainbat lanabes (Estatuaren aurrekontuak laguntzea, ekoizpen jardueretarako edota ekoizpena laguntzeko jardueretarako inbertsio-kapitala eskaintzea, mikrokredituak ematea, inbertsio-bermeak finantzatzea, kanpo zorra barkatzeko edo bestelakotzeko eragiketak finantzatzea, ondasunak eta zerbitzuak inportatzeko lehentasunezko mailegu-ildoak ematea, diru-funtsak transferitzea ordainketen balantza orekatzeko).

4. Laguntza teknikoa. Teknika eta kudeaketa alorreko zenbait trebetasun eta gaitasun eskaintzea du helburu, era horretan herri hartzaileak bere garapena kudeatzeko gaitasuna izan dezan.

5. Zientzia eta teknologia mailako lankidetza. Funtsean, herri hartzaileen garapena sustatzea da kontua, beren gaitasun teknologikoak sorraraztea eta indartzea eraginez.

6. Elikadura alorreko laguntza. Batetik, elikagaiak zuzenean ematea da, eta bestetik, mailegu kontzesionalen ildoetarako edo elikagaiak erosteko itzuli beharrik gabeko laguntzetarako sarbidea ematea.

7. Laguntza humanitarioa eta larrialdietarakoa: “Naturaren hondamendiak direla-eta, edota gizakiak berak sortutako gatazken ondorioz, larritasun egoeran edo arrisku larri eta berehalakoan bizi diren populazioen artatzerako eta birgaitzerako laguntza humanitarioa emateko programak eta proiektuak dira. Gainera, laguntza humanitarioaren helburua da populazio ahulen bizitza babestea, gizakiek oro aukeratzeko gaitasuna ematen dieten duintasunaren eta eskubideen jabe direla aintzat harturik. Laguntza humanitarioak helburu baztertezinak ditu artatzea, babestea eta prebentzioa” Garapenerako Lankidetzarako 5/2001Foru Legea, martxoaren 9koa, 13. B artikulua).

*Sanahujak (2001)* dioenez, globalizazio lasterreko prozesuan murgildurik den nazioarteko gizarte baten atal bereiztezina da GNL, eta horregatik bizi du eztabaida garrantzitsua nazioarte

mailan, bere oraina eta etorkizuna argitzeko. Horren erakusgarria da Genevako azkeneko goibilera (Kopenhagen +5) eta orain berriro Monterreyn egin dena. Egileak bi ikuspegi edo oinarrizko eredu antzematen ditu talkan garapenerako nazioarteko laguntzaren eta lankidetzaren etorkizunari buruzko eztabaidan:

a) Garapenerako laguntzarako eredu liberal - kontserbadorea.

Ekonomiari dagokionez liberala eta politikari dagokionez kontserbadorea da eredu hau. Globalizazio prozesuarilotua da,hura ulerturik liberalizazio, arau gabetze eta nazioarteko merkataritzari traba guztiak kentzeko prozesu gisa. *Sanahujak (2001)* dioenez garapenaren agendak kapitalen fluxua eta munduko merkaturako sarbidea bermatzea besterik ez du lantzen. Horiekin batera, fluxu horiek erakartzeko eta ekonomiaren lehiakortasuna sustatzeko aukera emanen duten nazio politikak eratzea dute kezka, ongi gogoan harturik “gobernamendu ona”, jabegoaren eskubideak begiratzea, inbertsioaren bizigarriak eta”giza kapitalaren” hobekuntza.

Bada muturreko jarrera bat (neoliberala) era guztietako laguntza programak kentzeko aholkua ematen duena, baliabideen esleipen okerra delakoan, irizpide politikoen arabera ematen baitira. Eredu liberal-kontserbadoreak, berriz, muturreko jarrera horren zenbait iritzirekin bat etorri arren, beharrezkotzat jotzen du garapenerako laguntza, beti ere merkatuaren logikaren menpean egon behar duena. Ildo honetatik, eta egungo globalizazio prozesuaren testuinguruan, laguntzak bi helburu nagusi aurkezten ditu:

• Nazio barneko alorrean, merkatuari mesedegarri izanen zaizkion politika ekonomikoak eratzea sustatu behar du laguntzak, eta merkatu globalean erabat barneratzeko beharrezkoak diren inbertsioak finantzatu behar ditu. *Sanahujak (2001)* antzeman egiten du helburu hau NDFren eta MBaren garapenerako Batzordearen dokumentuetan, eta beraz, finantzaketa eta baldintzatasuna elkarri estu lotuak dira.

• Nazioarteko alorrean, berriz, merkatuaren akatsak eta okerrak zuzendu behar ditu laguntzak, era horretan aurre egiten ahal baitzaie kanpo eragin ezkorrei, gero eta integratuago den mundu merkatu batean. Ildo honetatik, nazioarteko segurtasun sare bat izatea egokia litzateke hartzen diren doikuntza eta eraberritze politiken kostu sozialak murrizteko. GKEak ongi baloratuak dira segurtasun sare horretan duten eraginkortasunagatik, eta era berean hor ematen delako, nolabait ere, alor publikoaren esku diren eginkizunak alor pribatura igarotzea.

b) Munduko hiritartasuna kontzeptuan oinarritutako eredua.

Aipagai dugun egileak uste duenez, azken hamarkadan sortzen ari da mundu ordenaren kontzepzio “postinternazionala”, honako ezaugarri hauek dituena, alegia: estatuek sistemaren antzezle gisa bizi duten gainbehera, nazioarteko gizartearen mundializazio etengabea eta dimentsio humanoa izatea gizarte horren erdigunea; horrek guztiak argi islatzen du giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen doktrina eta arauen bilakaera, giza garapena kontzeptuaren irmotasuna, eta ez dagoela garapenaz hitz egiterik norberaren askatasunik eta autonomiarik gabe. *(Sen, 1999*). Norabide horretan berean doa laurogeita hamarreko hamarkadan Nazio Batuek deitutako Goi-bilera desberdinetan adierazitakoa. *Sanahujaren 2001*) irudiko, Goi-bilera horietan barna adostasun berria eratu da garapenaren inguruan, gizakia garapenaren xede eta subjektu jartzen duena.

GGKEak globalizazioari lotutako prozesuen sintoma eta, aldi berean, faktore kausal gisa ikus daitezke. Globalizazio lotutako prozesutzat jotzen da, esate baterako, Estatuaren autoritatearen eta gobernatzeko gaitasunaren krisia, eta horri loturik, nortasun indibidualen zatiketa eta ugaritzea, eta planeta osoan zabalduko litzatekeen espazio politiko bat iragartzen duen kontzientzia globalaren sorrera.(*Rosenau, 1998*). Horiei gehitu behar zaizkie erakunde horiek bizi duten unea islatzen duten hiru gertaera: Diru publiko eta pribatuen bideratze gero eta handiagoa, zenbait kasutan bestelako laguntza ekonomikoen fluxuen osagai hainbatek baino hazkunde tasa askoz handiagoarekin; GGKEen arteko nazioarteko sareak osatzea, eta bestelako gizarte mugimenduekiko integrazioa. Nolabait ere, baikor jarrita, GGKEek “gizarte zibil transnazional” berria eratu dutela pentsa dezakegu.

Egungo GNL Estatuen gizarte gutxi integratu eta arautu baten isla da, eta gizarte ongizaterako sistema globala edo kohesiorako politika globala baino, benefizentzia publikoaren eskema inperfektu bat da, baliabideak borondatearen arabera banatzen dituena eta haien zenbatekoa dela-eta inongo betebeharrik ezartzen ez duena. Sanahujarekin bat etorriz, hala eta guztiz ere, gizarte ongizaterako sistema global bat ezartzeak, orden demokratiko kosmopolita baten testuinguruan, oinarri sendoa eman dezake GNLren eginahal berria egiteko, hartara planteatuz nazioarteko instituzioen eraberritzerako agenda bat eta nazioz gaineko nazioarteko laguntzarako programa berriak,

ekarpen behartuez eta progresiboez, aldeaniztasun demokratiko eta parte hartzaile berri baten alde eginez.

**Lankidetza Deszentralizatua (LD)**: Bi kontzeptu desberdin har ditzakegu haintzat:(A) zentzu zabalean, eta lankidetzan lotutako herrietako (GLOren emaileak eta hartzaileak) gizarte zibilen parte-hartzeari dagokiona, eskualdeko edo tokiko gobernuetatik hasita, herritarren erakundeetaraino; eta (B), zentzu estuan, erakunde publiko azpiestatalek egiten dutenaren modukoa. Bi kontzeptu horien deskribapenaren aurretik, beharrezkoa da biek ere badituzten zenbait puntu aipatzea[(45)].Azken hamarkadan gehitu egin da lankidetza deszentralizatuan, era desberdinetan, ari diren nazio mailako nahiz nazioarteko eragileen kopurua:

• Europar Batasuna, Loméko IV Konbentziotik hasita.

• Nazio Batuen erakunde desberdinak, era berezian Río, Kopenhagen eta Istanbulgo Konferentzietan sortutako nazioarteko konpromisoen testuinguruan.

• Munduko Bankua, tokian tokiko hiri-garapenerako programen testuinguruan.

• Aldebiko emaile anitz, tokian tokikoak nahiz nazionalak, beren herrietako errealitateen eta garapen-bidean dauden herrietako errealitateen arteko zenbait lotura motari eman dieten laguntza dela medio.

• Hirien arteko eta tokiko agintarien arteko nazioarteko sareak, tartean direlarik gaikako sareak, osasuna, ingurumena eta pobreziaren murrizketa, besteak beste, lantzen dituztenak.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdean egindako azterketa, mintegi eta bestelako hainbat kontsulta une garrantzitsuak izan dira analisia, gogoeta estrategikoa eta lankidetza deszentralizatuan dauden esperientzien eta ikuspegien sistematizazioa egiteko. PNUDen The Challenges of Linking txostena, PNUD/UNOPS/OMS/IDNR elkarteen aldetik Atlasak argitaratzea, MOEak lankidetza deszentralizatua bakea finkatzeko lanabes gisa aztertzen zuen txostena, eta UNITAR-ek Divonne les Bains herrian Prestakuntza Zentro bat eraikitzeko egindako egingarritasun azterketa, hirurak ala hirurak dira analisi horietako batzuk. Europar Batasunak, Europako sareak, CLONGk esaterako, nazioarteko sareak, IULA kasu, Hiri Batuen Mundu Federazioak (HBMF), Pobreziaren aurkako Hirien Mundu Aliantzak, eta gobernu eta eragile anitzek mintegiak, tailerrak eta ebaluazioak egin dituzte, eta argitara eman dituzte buletinak eta bestelako argitalpenak, lankidetza deszentralizatuan izan dituzten esperientziak bilduta.

UNOPSek jarraitutako ikuspegiari dagokionez,lankidetza deszentralizatuko era honek agertu duen ahalmen handienetakoak dira, batetik, lotzen dituen subjektuen aniztasuna, eta bestetik, haien heterogeneotasuna. Tokian Tokiko Giza Garapenerako Programei (PDHL, frantsesez, espainolez eta portugesezko siglak) lotutakolankidetza deszentralizatuko moduak, izan ere, lurralde berean ari diren antzezleen arteko uztarketa eta osagarritasuna bilatzen baititu. PNUDek (eragile politikoa) eta UNIOPSek (kudeaketa agentzia) sustaturik, maiz OMS, OIT eta ISDR lankide dituztela, dagokien alorrean, Tokian tokiko Giza Garapenerako Programek, programa koadro diren aldetik, hasiera batean helburu orokor, ekimen alor eta metodologia nagusien alorrean beste zehaztasunik ez dute ekartzen. Helburu zehatzak, ekintza planak eta ekintza zehatzak, berriz, bertan sartzen diren Ipar nahiz Hegoaldeko komunitateen plangintza partehartzailearen eta komunaren ondorio izaten dira. Beraz, programa hauek erreferentzia esparrua eskaintzen dute, bertan eragileek beren ekimenak koka ditzaten, beharrizan eta lehentasunen azterketa parte-hartzailea egin ondoren eta adostasun mekanismoak erabilita erabakitako ekimenak, hain zuzen ere. Hego eta Iparraldeko komunitate antolatuen arteko partenariatuak euren lurraldeetan sustraitzea sendotzen ahal du, eta era berean tokian tokiko administrazioen eta gizarte eragileen arteko adostasuna, eta tokiko partaidetasun zentzua ere bai, garapenerako nazio mailako nahiz nazioarteko politikekiko loturen bitartez.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea, alegia, lankidetza deszentralizatua gora heldu den fenomenoa izan arren, garapenerako nazioarteko laguntzaren koadro globalean bazterreko gauza izaten segitzen duela.

(A) GLarenkontzeptua zentzu zabalean, EBren Garapen-politikak hari buruz duen kontsideraziotik sortzen da, izan ere, Europar Batasunak kontzeptu hori Loméko IV Konbeniotik erabili baitu, konbenio horrek arautzen dituelarik EBren GNLren* harremanak Afrika, Karibe eta Bareko herriekiko, gara-

*(45) UNIOPSek lankidetza deszentralizatuari buruz Erroman antolatutako Nazioarteko Mintegiko sintesi-dokumentuaren laburpen bat jasotzen du testuak. UNIOPSek berak egin zuen dokumentua, eta Genevako Goi-bileran, Kopenhagen+5, 2000ko ekainean, gai honi buruz izandako ekitaldi Berezian aurkeztu zen.*

penean gizarte zibilaren konpromiso aktiboa bilatuz. Berebiziko garrantzia hartu zuen Europako Batzordearen 443/92 Arautegian, garapen-bidean dauden Latinoamerika eta Asiako herriekiko laguntza finantzaria eta teknikoa eta laguntza ekonomikoa arautzen baititu hark, era horretan zabaldu zelarik garapenerako politika komunitarioaren beste ekimen-alor geografiko batera. Hala ere, 1992ra arte ez zen sortu aurrekontu ildo bat garapenerako lankidetza deszentralizatua herri pobretu guztietara zabalduko zuena. Europar Batasunaren Arautegi berriak, 625/2004 zenbakidunak, oinarrizko Arautegia (EB) 1659/98 zenbakiduna aldarazi eta luzatu egiten du, hark arautzen zuelarik lankidetza deszentralizatuari dagokiona:"Europar Batasunak lankidetza deszentralizatuaren esparruan bultzatzen dituen ekimenek garapen iraunkorra eta pobreziaren murrizketa dituzte helburu, bereziki elkartze zaileko egoeretan; garapen parte-hartzaileagoa bilatzen dute, garapen-bidean dauden herrien beharrizan eta ekimenei erantzunen diena; dibertsifikazioari egindako ekarpena dira; eta gizarte zibilen eta herri horietako demokratizazioaren indargarriak dira".[46]

Arautegi horrek berak 3 artikuluaren testua aldarazten du, lankidetza deszentralizatuan ari diren eragile betikoez gain beste batzuk ere lotzearren, eta laguntza finantzaria hobetzearren, lankidetza deszentralizatuko bazkidetzat honako hauek aipatuz:

• tokian tokiko botere publikoak (udalak barne)

• gobernuz kanpoko erakundeak

• tokian tokiko herritarren erakundeak.

• tokiko ekimenetako taldeak (gizalegezkoak zein komertzialak)

• kooperatibak

• sindikatuak

• profesionalen elkarteak

• protagonista ekonomiko eta sozialak ordezkatzen dituzten erakundeak.

• eskualdeko lankidetza eta integrazio deszentralizatuen alorrean lanean ari diren tokiko erakundeak (sareak barne).

• kontsumitzaileen erakundeak.

• emakumeen edota gazteen elkarteak.

• hezkuntza, kultura, ikerketa eta zientzia alorretako erakundeak.

• unibertsitateak.

• elizak.

• erlijio elkarte edo komunitateak.

• komunikabideak.

• mota guztietako gobernuz kanpoko erakunde eta fundazio independenteak, garapenari euren ekarpena egiteko gai direnak[47].

(B) Lankidetza Deszentralizatua zentzu estuan: GNLren* testuinguruan, berebiziko garrantzia hartzen ari dira Lurraldeko Erakundeen ekimenak, beharrezkoa baita Europako eta Hegoaldeko herrietako gizarte guztia – eta ez Gobernu Zentralak bakarrik - Lankidetzari lotutako jardueretan atxikitzea. Hori dela-eta, Europako Eskualdeen Batzarraren irudiko, Lankidetza Deszentralizatuaren barnean, eta ongi ulerturik subsidiariotasunaren printzipioa, horrek areagotuko baititu zilegitasun demokratikoa, gardentasuna eta eraginkortasuna, eskualdeek, herritarrengandik eta euren erakunde ekonomiko eta sozialengandik hurbileneko lurraldeko adierazpen politikoak diren aldetik, Garapenerako Lankidetza dela-eta Europar Batasunak dituen helburuak erdiesten ahal dituzte, eta hala egin behar dute, beren eskumenean diren politika publikoak direla medio, esaterako instituzioen Bizkortzea, tokian tokikoa bereziki, Ingurumena, Enpresa arteko Lankidetza, Lankidetza Kulturala, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza eta Prestakuntza.

Laurogeiko hamarkadan sortu zenez geroztik, eta laurogeita hamarrekoan bultzada erabakigarria hartu ondoren, lankidetza deszentralizatuaren hazkunde kuantitatiboa nabarmena izan da. Hazkunderik deigarriena 1995ean izan zuen, Estatu osoan barna 0,7ren aldeko mobilizazioak izan eta, erkidego eta udal anitzek konpromisoa hartzea erabaki zutelarik. Orduan igaro zen 32 milioitik 88 milioi Eurora, 1997an ia 120 izateraino, hau da, orduko Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizialaren %10,3. XXI. mendean sartuz geroztik, administrazio berri gutxiago atxiki izan dira, eta hazkundea, beraz, egonkortu egin da, egun GLO osoaren %14 inguru delarik.

Datu berriagoak ekarririk, "lankidetza deszentralizatuaren gastua 2003rako aldebiko GLOren %22,7 da, Autonomia Erkidegoei %62 dagokielarik

*(46) ARAUTEGI (EB) 1659/98 zk, lankidetza deszentralizatuari buruzko 1998ko uztailaren 17ko KONTSEILUKOA 1. Art.*

*(47) Arautegia (EB) 625/2004 zk Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko martxoaren 31koa, aurreko Arautegi (EB) 1659/98 zk, lankidetza deszentralizatuari buruzkoa, 3 Art. luzatu eta eraldatzen duena.*

eta gainerakoa Udalei. Hortaz, %7,96ko hazkundea antzematen da lankidetza deszentralizatutik GLOrako emandako partidetan, 2002an"[48]. emandako kopuruen aldean. Datu hauek argi adierazten dute CODaren garrantzia, bitartean, Garapenerako Laguntza Ofizialak 94az geroztik gorabeherak bizi izan dituelarik.

Hala eta guztiz ere, GNLren lege-esparrua ez zen estatu espainolean finkatu lehen aipatutako Nazioarteko Lankidetzarako Legea 23/98 aldarrikatu bitartean. Aldi berean, Autonomia Erkidegoek aurrera egin dute beren lankidetza politikak instituzionalizatzeko eta normalizatzeko bidean, harik eta, haietako anitzetan eratzeraino lankidetzarako lege espezifikoak, lankidetza kontuan aholku emateko kontseiluak, eta departamentu administratiboak (alor publiko desberdinetakoak), horiek guztiek landu dituztelarik euren talde tekniko espezializatuak, gehiago-gutxiago, eta beren jarduera bideratu dutelarik plan zuzentzaileen bitartez.

Estatu espainola 1978az geroztik eratu zuen egitura autonomikoaren ondorioz, lankidetza deszentralizatua Espainian garapen gaian egiten diren ekimenen ehuneko handia da. Gure inguruko beste herri batzuen aldean, Espainiak berezitasuna agertzen du, bai lankidetza deszentralizatuaren garrantzi erlatiboari dagokionez, bai eta garapenerako lankidetza politika propioa egituratzen ahal duten eragile instituzionalen kopuruari dagokionez ere.

**Lehentasun geografikorako irizpideak**: Lankidetza Espainolaren 2005-2008 Plan Zuzentzaileak bere lehentasun geografikoak honako irizpide hauen arabera ezartzen ditu:

• Herrialde pobreenetara bideratzea: horretarako erabili beharreko adierazleak, per capita errenta, kanpo zorraren zerbitzua edo merkatuen finantzaketarako sarbideaez ezik,bestelakoak ere, Garapen Humanoaren adierazlea, esaterako, edo pobreziaren osaera alde anitzekoa neurtzeko egokiak diren adierazleak, edo herri edo eskualde batean lurraldeak edo esparruak bereizteko aukera emanen duten adierazleak ere, erabili behar ditu.

• Garapen-helburuekiko konpromiso handiagoa herri hartzaileen aldetik, era berezian politika egokiak abiaraztea, Milurtekoko Adierazpenaren edo herri hartzaileak sinatutako antzeko nazioarteko itunen helburuak lortzeko egokiak, alegia.

• Eskualdeak ahalik eta abantaila handiena izatea besteen aldean, laguntzak eraginkortasun handiagoa izan dezan bermatzeko. Hau da, area edo herrialde baten gaineko ezagupena eta eskarmentua ahalik eta handienak izatea, hartzailearen beharren eta emailearen eskaintza-aukeren arteko uztarketa egokiena izan dadin.

**Milurtekoko Adierazpena**: Nazio Batuen Erakundeak 2000ko irailean onartutako Adierazpenhonek[49] zenbait printzipio aipatzen ditu, besteak beste gizateriaren ardura kolektiboa dela gizakien duintasuna, berdintasuna eta ekitatearekiko begirunea mundu osoan. Historian lehenengo aldiz aldarrikatu dute munduko herri gehienen arduradun politiko gorenek guztien artekoa dela erantzukizuna pobreziaren erauzpenari eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari dagozkien auzietan.Adierazpen horretan bertan, Nazio Batuen Itunaren printzipioak eta asmoak berretsi egiten dira, eta denboraz kanpokoak eta unibertsalak direla esaten da. Aldi berean, garapen eskaseneko herriek ere une honetan bizi den globalizazio prozesuaren onurak har ditzaten guztien arteko eginahala egin behar dela aitortzen da.

Printzipio eta balore hauek ekintza zehatzetan gauzatzeko asmoz, Adierazpenak zenbait helburu giltzarri ezartzen ditu (ikus Milurtekoko Garapen-Helburuak), haien artean nabarmen munduko pobrezia erauzteari eta garapenari laguntzea, arreta berezia jarriz planeta osoan aurrerapen eskasena duten herrien beharrei, eta garapenerako laguntzan konpromiso handiagoak aldarrikatuz.

Era berean, Milurtekoko Adierazpenak bestelako helburu orokorrago batzuk lortzearen alde egiten du. Izan ere, Estatu eta Gobernu buruek, helburu espezifiko hauek nazioarteko lankidetzarako politika bizkorrago baten bidez ezartzeko asmoz, aintzat hartzen dituzte, estrategia gisa, sexuen arteko berdintasuna sustatzea; gazteria lan mundura sartzea; alor publiko eta pribatuen arteko elkarlana pobrezia erauzteari begira, teknologia berrien hedapena; giza eskubideekiko errespetua eta sistema demokratikoen unibertsalizazioa; herritar-talde ahulenak era berezian babestea, umeak, etorkinak eta errefuxiatuak, besteak beste; Afrikari laguntza espezifikoa ematea; Ingurumena-

*(48) "Garapen-berdintasunaz: begiratu bat migraziotik" Topaketa binazionalerako Letizia Giménezek Toledo Lizentziadunaren txostena.*

*(49) 2000ko irailaren 8an Nazio Batuen Batzar Nagusian onartutako Ebazpena, "Milurtekoko Adierazpena". Nazio Batuen A/5512 Dokumentua.*

ren iraunkortasuna, eta Nazio Batuen Erakundearen beraren bizkortze instituzionala.

2002an, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak agindu zuen Nazio Batuen Milurtekoaren Proiektua eratzeko, Milurtekoko Garapen-Helburuak lortzeko ekintza plan zehatza antola zezan. 2005eko urtarrilaren 17an lehenengo txostena aurkeztu zen eta, besteak beste, hainbat gomendio ematen ditu herri "emaile" direnen jokabide egokiei buruz. Horietako batzuk aipatzen ditugu hemen, Plan Zuzentzaile honetarako garrantzitsuak direlakoan:

• Garapenerako erakundeak, aldebikoak nahiz alde anitzekoak, argi adierazi behar dute Helburu hauetan oinarritzen diren eta pobrezia erauztekoak diren estrategien aldekoak direla.

• Emaileen laguntza mota zehaztu behar da, herri bakoitzaren behar eta ezaugarrien arabera (gatazkan diren herriak, diru sarrera gutxiko herriak, errenta ertaineko herriak...)

• 10 urteko esparruak ezarri behar dira, 3 edo 5 urtera begirako estrategiak finkatu ahal izateko.

• Zorraarintzeko lana sakondu eta zabaldu behar da, eta subentzioak eman maileguen ordez.

• Ardatz izan behar dute bazter utzitako lehentasunek (amen osasuna, genero berdintasuna edo ugaltze-osasuna) eta ahaztutako ondasun publiko zenbaitek (epe luzeko gaitasun zientifikoa, ingurumenaren kudeaketa, eskualdeen integrazioa eta mugaz gaineko azpiegiturak).

• Bermatu behar da arauen koherentzia Milurtekoko Garapen-Helburuekin

**Giza Eskubideak eta GNL**: Une honetan ezinezkoa da garapenerako lankidetzarako politika bat irudikatzea, berau giza eskubideen adiera oso baten barnean kokatu gabe. Ideia hau, zilegitasunez babestutako interesak diren aldetik, eta edozein komunitate politikoren aurretikoak diren aldetik, teoria politiko liberalen finkapenaren ondorioz garatu zen, eta batez ere Iparramerikako eta Frantziako iraultzen ondoren (XVIII. mendea). XIX. mendean barna, berriz, eskubide zibil eta politiko deitzen diren horien finkapenak egin zuen aurrera. Izan ere, eduki ekonomiko, sozial eta kulturala zuten eskubide eta nahi berriak agertzen ari baitziren, legedian XX. Mendera arte jasoko ez baziren ere.

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta, 1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuen Batzarrak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen, testu osoan jasotzen delarik Nazioarteko Eskubidearen bilakaera eta Nazio Batuen nahiz bestelako nazioarteko erakundeen baitan aurrera eramandako lana. Honek guztiak berebiziko garrantzia izan du giza eskubideen gaineko arautegi zabal baten garapenean. Giza eskubide horien artean dira, hain zuzen ere, elkartasun eskubideak deitzen direnak edo "hirugarren belaunaldiko eskubideak", eta horien artean garapenerako eskubidea, hala aitortzen baitu Nazio Batuen Batzar Nagusiak garapenerako eskubideari buruzko adierazpenean (41/128 ebazpena, 1986ko abenduaren 4koa)[(50)].

Nazio Batuen Erakundeko kide diren Estatuek, beronen Sorrera Itunean[(51)] aldarrikatzen den nahia betez, parte hartu izan dute Giza Eskubideen alorreko hainbat lanabes juridikoren erredakzioan. Tresna horien berrespenak behartu egiten ditu herri horiek beste Estatuei laguntza ekonomikoa eta teknikoa ematera, lurralde horietan berehala ezar daitezen Eskubide Zibil eta Politikoak eta mailaka ezar daitezen Eskubide Ekonomiko, Sozialak eta Kulturalak. Haiek guztiak jasorik daude Hitzarmen orokorretan, besteak beste Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean[(52)] , edota Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean[(53)], edo bestelako Hitzarmen espezifikoetan, esaterako Emakumea baztertzeko era guztien erauzketari buruzko Nazioarteko Hitzarmena[(54)],Umearen Eskubideen gaineko Hitzarmena[(55)], etab.

Giza eskubideak osotasun batean[(56)] ulertu beharrak dira, legez babestutako ahalmen eta interes multzo baten gisan, ezinezkoa delarik eduki zibil, politiko, ekonomiko, sozial edota kulturala duten eskubideen artean lehentasunik ezarri, edota eskubide indibidual eta kolektiboen artean.

*(50) Garapenerako eskubideari buruzko adierazpenean (1986ko abenduaren 4ko 41/128 Ebazpena) 8 abstentzio izan ziren (Erresuma Batua, Alemaniako Errepublika Federala, Suedia, Danimarka, Finlandia, Japonia,besteak beste) eta AEBren aurkako botoa. Garapenerako eskubidea jasotzen duen nazioarteko itun bakarra Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna da (1981).*

*(51) Nazio Batuen gutuna, San Franciscon 1945eko ekainaren 26an sinatua; urte bereko urriaren 24an hartu zuen indarra, 110. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*(52) Espainiak 1977ko apirilaren 27an berretsia.*

*(53) Espainiak 1977ko apirilaren 27an berretsia.*

*(54)( Espainiak 1984ko urtarrilaren 5ean berretsia.*

*(55) Espainiak 1990eko abenduaren 6an berretsia.*

*(56) Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen zatiezintasun printzipioa aitortzen du.*

Hain zuzen ere, azken hamarkadetan, zenbait giza eskubideren planteamendu kolektiboaren indartzea ikusi dugu, orain artean aitortze edota kontzeptuaren konkrezio aldian izan baitira horietako batzuk, adibidez bakerako eskubidea, ingurumen osasungarria izateko eskubidea, edota garapenerako eskubidea bera.

Alde honetatik, giza eskubideak, herrialde demokratikoen barne antolamendu politikoa edota bertako herritarren babeserako lanabes ez ezik, gogoeta nagusi eta goiburu izan behar dute herri horietako botere publikoen kanpo proiekzioetarako politiketan. Beraz, kanpo politikak, komertzialak, defentsarakoak eta bestelako politiken multzoa egokitu beharra da planeta osoko beste gizarte batzuetan giza eskubideak zabaltzeko, bizkortzeko eta babesteko asmoaren arabera. Are arrazoi handiagoaz, irizpide honek nagusi behar du garapenerako lankidetzarako ekimenetan, hauek zuzen lotzen zaizkiolako herri pobretuetan giza eskubideen erabateko begirunea pertsona guztientzat lortzeko lanari, lankidetzaren helburuetan adierazten den moduan. Gainera, egun badu nolabaiteko aitormena garapenerako lankidetzak giza eskubideen aldetik duen ikuspegiak, alegia, giza eskubideen gozamenean, berdin zibilak edo politikoak nola ekonomiko, sozial eta kulturalak direla, lankidetzak duen eragina gero eta argiago ageri dela jendearen gogoan.

**Giza eskubideen erabateko gozamenera bideratutako garapenerako lankidetzan**, nortasun eta aniztasun kulturalen begirunea, sustapena eta babesa nahitaezko erreferentzia dira. Azken hamarkadetan, teoria asimilazionistak gainditurik, finkatzen ari da nazioarteko alorrean hizkuntza, erlijio, nortasun eta kultura aniztasuna babesteko eta sustatzeko beharra, gure gizateriaren panoraman dugun osagai oparoenetakoa den aldetik. Izan ere, gure gizarte demokratikoki aurreratuak gero eta kulturanitzagoak dira-eta, ikuspegi horretatik ulertu behar ditugu, baina berdin garapenbidean dauden herrietan aurrera eramaten diren lankidetza ekimenetan ere. Ez du alferrik aitortzen PNUDek, 2004an egindako txostenean, duintasun kulturalaren aitormena eta sustapena nahitaezko baldintzak direla giza eskubideen erabateko gozamenerako.

Garapenerako lankidetzaren alorrean, kultura aniztasuna giza eskubideen defentsaren estrategia-ildoan kokatzeak berekin dakar, ondorioz, kulturaren aldagaiak txertatzea, lankidetza ekimen zehatzek lortu nahi dituzten helburuetan beretan ez ezik, ekimen horien plangintza, segimendua eta ebaluazioa bideratuko dituen lanabes gisa ere. Bestela, erdietsitako emaitza materialek ezkutuko kaltea eragin diezaiekete-eta, azken finean giza eskubide guztien gozamen erabatekoan funtsezko osagaiak diren parametro kultural eta identitarioei. Beraz, garapenerako lankidetzak helburu behar du, pertsona onuradunekfuntsezko giza eskubideak izateko eta gozatzeko gaitasuna izateaz gain, gozamen hori euren identitate kulturalaren bitartez egin ahal izatea, eta ez nortasun kultural hori izan arren. *González, Lara (2006)*

**Garapena**: Azken bi hamarkadetan aldaketa nabarmena izan da garapen prozesua ulertzeko erari dagokionean. Berrogeita hamarrekoen hamarkadaren amaieran eta hirurogeikoaren hasieran, laguntzarako nazioarteko politika eratu zen garaian, alegia, garapenaren inguruan nagusi zen irudipena, batez ere, ekonomizista zen: uste orokorra zen azpigarapenaren funtsezko arrazoia hauxe zela, alegia, herri batzuek kapitala biltzeko prozesu bat, ondoren hazkunde ekonomiko iraunkorra ekarriko zuena, abiarazteko zuten gaitasun falta. Azpigarapenaren ezaugarriak aztertzerakoan, bestelako gizarte alderdiak bazirela onartu arren –gizarte desberdintasuna, instituzioen ahulezia, nekazaritza nagusi izatea, jaiotza eta heriotza tasa altuak izatea, bizi-esperantza baxua edo eskolaratze tasa baxua, besteak beste- hauek gehiago ikusten ziren sintoma gisa, fenomenoa azaltzeko baliagarriak ziren faktore gisa baino. Azpigarapenaren arazoari konponbidea emateko giltzarria, batez ere, ekonomikoa zen. Ikuspegi ekonomizista honek ondorio larriak izan zituen garapen prozesuak ulertzeko eraren gainean, izan ere, zilegi egiten baitzuen hazkunde ekonomikoko tasarik ahalik eta altuena lortzeari lehentasuna ematea, bestelako asmoak –gizarte berdintasunarekin lotutakoak, esaterako- bazter utzirik. Beraz, garapenaren ikuspegi ez-historikoa gailendu zen, herri kaltetuen baldintza sozial, kultural eta instituzional berezien aurrean sentiberatasun eskasekoa, eta terapia uniforme bat formulatu zen, herri aberatsek bizitutako esperientzia bere horretan hara eramatea oinarri zuena, alegia, gizartearen aldaketa prozesua alderdi ekonomikoa eraldatzeko gaitasun gainbaloratu baten baitan uzten zuena. Era horretan, hazkundea, beharrezkoa ez ezik, beharbada berez aski izanen zen garapen prozesu egoki bat abiarazteko. Garapen prozesu horrek berak gizartean bestelako aldaketak behar zituen arren, aldaketa horiek, neurri handi batean, aldaketa ekonomikoak ekarriko zituela uste zen, huraxe baitzen gizarte aldaketaren egiazko bultzatzailea. Zehatzago esanda, uste zenaren arabera, azpigaratutako ekonomien aurrezteko gaitasun eskasa zen atzerapen ekonomikoaren arrazoia. Hargatik, hain zuzen ere, zen hain garrantzitsua kapitala eskuratzeko aukera ahalik eta zabalenak

sortzea, horren bitartez hazkunde iraunkorra bultzatzeko nahikoa indar izanen zuen inbertsio prozesu bat elikatzeko. Nazioarteko laguntzak bere ekarpena eginen zuen, garapen-bidean ziren ekonomia haiek beharrezkoak zituzten finantza-baliabide horiek emanez, baldintza onetan, -azken finean kanpo-aurrezkia-. Ikuspegi honetatik eginak dira nazioarteko laguntzari buruzko lehenbiziko teorizazioak.

Baina denbora pasa eta, garapenari buruzko azterketak diziplina anitzetatik eginak izaten hasi ziren, eta gehienbat ekonomizista zen ikuspegi hura alde batera geratzen hasi zen, azterketa-gaia ikusteko era konplexuago eta alderdi anitzekoago batek hartu ziolarik lekua. Azken batean, gizartea errealitate konplexua dela onartzetik abiatzen da azterketa berria,eta azpigarapena gizarte-kategoria bat dela, eta ez ekonomiko hutsa. Ondorioz, garapen prozesuak, egokia izateko, bere baitan hartu behar du, eraldatzeko asmoz, herrialde baten gizarte egitura osatzen duten alderdi guztien multzoa. Hain zuzen ere, beharrezkotzat jotzen da alderdi ekonomikoari gehitzea gizarte alderdiak eta ingurumen alderdiak, garapen prozesu guztien halabeharrezko alor gisa. Norabide honetan emandako urrats erabakigarri bat giza garapena kontzeptua izan zen, PNUDek emandakoa.

Kontzepzio berri hau zela medio, alde batera utzi nahi izan zen garapenaren alderdi materialaren nagusitasuna–ekoizpen gaitasunen hazkundea-gizakia bera bihurtzeko, bere ahalmen eta alderdi anitzez –giza gaitasunen hazkundea- garapen prozesuaren eragile nagusi eta azken hartzailea.

Ondorioz, giza garapena zehazterakoan, halako gizarte bateko gizakien aukeratzeko gaitasunak eta abaguneak zabaltzea helburu duen prozesua zela esaten hasi zen. Pertsonen behar materialak asetzeko adinako baliabide ekonomikoetarako sarbidea –alderdi ekonomikoa-, eskura dauden aukerak mugatzen dituzten faktoreetako bat dela jotzen da; baina, horren ondoan, kontuan hartzekoak dira beste alderdi batzuk ere –gizarte aldetikoak-,haiek ere aukeratzeko ahalmenak baldintzatzen dituztelako, loturak dituztelarik sortutako diru sarreren banaketa erarekin, herritarren oinarrizko beharren asetze-mailarekin, eta gizakiek, beren gaitasunak garaturik, etorkizuneko aukeren jokalekua zabal dezaten gizarteak eskaintzen dituen aukerekin.

Garapenaren alderdi aniztasun hau jaso nahi izan da, antzemateko moduan bada ere, Giza Garapenaren Indizea (GGI) delako kontzeptuan, hor bildurik aukera-esparru honen hiru alderdi oinarrizkoak: bizimodu luze eta osasungarria gozatzeko aukera, ezagutzak hartzeko aukera, eta bizimodu duina gozatu ahal izateko adinako baliabideetarako sarbidea izateko aukera.

GGI zehazten deneko alderdiak hauek badira ere, PNUDek berak ohartarazten du garapen prozesuaren zehaztapenean berebiziko garrantzia duela dimentsio politikoak, giza eskubideekin, askatasun demokratikoekin eta erabakimen kolektiborako mekanismoetan gizarteak duen parte-hartzearekin lotua. Alderdi honen garrantzia argi erakusten du PNUDek berak azken dimentsio hau halabeharrezko laugarren alderditzat jotzea pobreziaren definizioan, bitarteko materialen eskuragarritasuna, osasun baldintzak eta hezkuntzarako sarbidearekin batera.

Nekez uler daiteke giza garapenaren prozesu bat, pertsonen aukeren eta abaguneen zabalkundean oinarritu behar dena, pertsonei galarazten bazaie erabaki kolektiboen prozesuetan parte-hartzea, instituzioetanbaztertuak edo haietatik kanpo badira, edo herritar diren aldetik dituzten eskubideak mugatzen bazaizkie. Are gehiago, garapenak berarekin dakar gizakiak, banan-banan eta talde gisa, beren etorkizunaren jabe izatea, beren historiaren subjektuak izatea. Hortaz, giza eskubideen errespetua, oinarrizko askatasunen defentsa eta gizartearen parte-hartzea sustatzea, nahitaezkoak dira garapen prozesu egoki batean.

Garapen prozesu guztien halabeharrezko dimentsioa ingurumenari dagokiona da. Azken bi hamarkadetan barna, instituzio eta ikerketa zentroen azterketa anitzek agerian jarri zuten ingurumenak garapen prozesuen iraunkortasunean ezinbesteko baldintza-eragilea dela. Izan ere,ingurugiroa munduko sistema ekonomikoaren baitan jar zitekeela uste izateak inguru fisikoaren gaineko eragintza kaltegarri batera eramaten du, nekez iraunaraz daitekeelarik hori planeta osoko bizitzarako atzeraezinezko kosterik gabe. Ingurumeneko arriskuak, klima aldaketa, ozono geruza agortzea, baso-hondatze, higatze eta desertizazio prozesuak, ozeano, itsaso eta itsasertzen kontserbazioak bizi duen mehatxua, hondakin arriskugarrien erabilera, guztiak ere arazo latzak dira, euren erroak sartzen dituztenak, batetik, herri industrializatuen hazkunde ereduetan, eta bestetik, natura baliabideen gehiegizko ustiakuntzan, hau beharrezkoa baitu garapenean den munduaren zati baten biziraupenak. Rioko Goi-bilerako lanek eta Garapen Iraunkorrerako Batzordearen jarduerak ingurumen esparru honi eman diote berebiziko lekua garapen prozesuen diseinuan eta eraketan.

Azkenik, UNESCOk, orain berriro egin zuen Gure Aniztasun Sortzailea izeneko txostenean, azpimarratu egiten zuen giza bizitzaren kultura alderdiek garapen prozesuetan duten eginkizun

garrantzitsua. Aipatutako dokumentuak adierazten duenez, elkarrekin bizitzeko modu desberdinek –hala definitzen baita kultura txostenean- gizakiari zabaltzen zaizkion ahalmen eta aukeren zabalkundean duten eragina ezagutzea guztiz onuragarria da. Etnia eta kulturen konplexutasuna edota hizkuntza eta erlijioen arteko aldeak gutxiesteak kalte ikaragarria egin izan dio garapenari, eta alderdi humanotik koste handiak eragin dituzten gatazkak bizkortu ditu. Hori dela eta, garapenaren ikuskeran oso gogoan izan behar dira kultura aniztasuna, sormen askatasunaren sustapena eta herri bakoitzaren erroen aitormena. Kultura aniztasuna gizateriaren ondare oparoa da, eta haien arteko begirunea eta elkarrizketaren gainean ezarri behar da elkar elikatzeko dinamika. Elkarrizketa hori giza eskubideen gainean eraiki behar da, gizarte harreman ororen oinarri gisa, muga, arraza eta erlijio guztiez haratago. Azken batean, kulturen arteko elkarrizketa printzipioa azpimarratu behar da, kulturaniztasunaren aitormenean oinarritua –hala nazioartean nola estatu barnean ere-, giza garapenaren alderdi ezinbestekotzatezagutu behar baita. Asmo honek aurre egiten die, bai herrialde baten barneko kulturen homogeneizatzeko saio bortxatuei, bai edozein giza taldek berezkoak dituen bizitzeko moduen bazterketari ere.

Hemen agertutako planteamenduez osatutako ikuskera batek agerian uzten du egun garapen prozesua nolako konplexutasunaz begiratzen den. Gutxienik bost dimentsio edo alderdi handi ageri dira garapenaren formulazioan, haiek ere eginkizun bana dakartzatelarik garapen prozesua eraikitzeko bidean:

• Hazkunde ekonomikoa gizarte aldetik orekatua.

• Gizarte berdintasuna eta justizia, pobrezia erauzita.

• Ingurumenaren iraunkortasuna.

• Giza eskubideen eta gizartearen parte-hartzearen defentsa.

• Kulturaniztasunarekiko begirunea.

Dimentsio hauek guztiak beharrezkoak ditu, era berean, garapen prozesu batek. Eta, bestalde, dimentsio hauetako edozein gutxiesteak prozesu maketsak, gizarte dinamika zapuztuak –gizarte bazterketa barne duen hazkunde mota, ekologiaren hondamena barne duen hazkundea, edo zapalkuntza politikoa barne duen hazkundea-, inolaz ere saihestu beharrak direnak.

*Alonso (Koord), (1999) ESPAINIAKO LANKIDETZARAKO ESTRATEGIA. Madril: MAE. 64 orr. Eta hurr.*

**Giza Garapena**: Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP/PNUD) arabera, Giza garapena pertsonen aukerak eta ahalmenak zabaltzeko prozesua da, gizarte zehatz batean, giza gaitasunak eta eginkizunak areagotuz. Era honetan, giza garapenak islatzen ditu, gainera, gaitasun eta eginkizun hauen emaitzak, gizakiekin erlazionaturik dauden aldetik. Prozesua da, eta aldi berean helburua. Prozesuak, funtsean, honako alor hauetako osagaiak ziurtatu behar ditu, alegia, osasuna, hezkuntza, gizartea, ekonomia, ingurumena, kultura, identitatea eta instituzio alorretako osagaiak, beharrezkoak izanen direnak herritar guztien giza eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak bete daitezen erabat, osorik eta berme guztiez. Garapen eredu honek berekin behar du ondorengo belaunaldiek ere gozatzeko eta eusteko modukoa izatea, batez ere ingurumenarekiko begirunearen bitartez eta kultura demokratikoa gizartean nahiz instituzioetan finkatzearen bitartez. Honek emanen du bide giza garapena iraunkorra dela esateko. González, Lara (2006).

**Garapen Iraunkorra**:Ikus “ingurumenaren iraunkortasuna”

**Ekonomia solidarioa**: Sozio-ekonomia, kultura eta ingurumen alorretako sistema, norbanakoen nahiz taldeen eskutik garatzen dena, jarduera solidario, parte-hartzaile, humanista eta irabazi asmorik gabekoen bitartez, gizakiaren garapen osoa jarririk ekonomiaren helburu. (Nafarroako Parlamentuko 2006ko martxoaren 30eko Xedapeneko Arrazoien azalpena).

Ekonomia solidarioaren lehenbiziko definizioetakoak dira, alde batetik, Ekonomia Sozialaren Gutuna, CNLAMCA izeneko plataforma nazional frantsesarena, eta bestetik Belgikako Valonia Eskualdeko Ekonomia Sozialaren Kontseiluarena. Azken honek bere itzala izan zuen Europako alor zientifikoan, eta haren arabera, ekonomia soziala erakunde pribatuek osatzen zuten, kooperatibek, mutualitateek eta elkarteek bereziki,honako printzipio hauen araberako etikari atxikirik:

• Erabakitzeko prozesu demokratikoak, batzuen ustez ardatza den printzipio kooperatiboaren oinordeko, erabakimena demokratizatzen baitu, alor pribatu kapitalistan ez bezala, han nagusi baita <<akzio bat=boto bat>> printzipio kapitalista.

• Pertsonak eta lana kapitalaren gainetik egotea errenten banaketan, honek etekinen banaketarako logika bat definitzen baitu, loturik ez dagoena, edo kontrakoa ere badena, kapital sozialean partehartzearekin, hau agerian uzten dutelarik hainbat irizpidek, esaterako itzuleraren printzipio kooperatiboa, jabego kolektiboen hornidura, kapitalari lotu-

tako ordaina, eta baita ere etekinak ez banatzeko araua,

• Helburua izatea kideei edo kolektiboari zerbitzua ematea, irabaziak izatea baino, argi utzirik entitate hauen jarduera ekonomikoa pertsonei zerbitzua emateko asmoz egiten dela, eta ez etekina bilatzekoa; azken hau agertu, ager daiteke, baina, izatez ere, tarteko helburu gisa izanen da, beti ere azken helburuari begirakoa, alegia, zerbitzu emateari begirakoa, eta

• Kudeaketan autonomia, honek bereziki aldea ezartzen duelarik alor publikoko entitateekiko.

Egun, Europako ekonomia solidarioko sareek, eta era berezian Espainiako Autonomia Erkidegoetakoek, une honetan ekonomia honek bizi duen errealitateari egokituagoa den eredu baten inguruan adostu dira, honako irizpide hauei loturik:

• Berdintasuna eta ekitatea: enpresa edota erakundearen jardueran interesa duten eragile guztien (langileak, enpresaburuak, bazkideak, bezeroak, hornitzaileak) gogoa era orekatuan betetzea.

• Enplegua-Lana: Helburua enplegu egonkorrak sortzea da, eta sarbidea erraztea pertsona gutxietsiei edota kualifikazio eskasekoei. Langile guztiei ziurtatzea lan baldintza eta lansaria duinak, eta euren garapen pertsonala eta erantzukizuna bizkortzea.

• Ingurumena: epe laburrean nahiz luzean ingurumenari kalterik ekarriko ez dioten ekintza, produktu eta ekoizpen moduen alde aritzea.

• Lankidetza: lankidetza lehenestea lehiaren gainetik nola erakunde barnean hala kanpoan.

• Diru-irabazi asmorik gabe: ekimen solidarioek ez dute etekina eskuratzeko helbururik, gizakia eta gizartearen sustapena baizik, honek ez dakarrelarik kontraesanik diru sarrera eta irteeren arteko aldea orekatua izatearekin, eta, ahal izanez gero, etekina eskuratzearekin ere ez. Hori bai, etekina izanez gero, ez da norberaren onurako izanen, aitzitik ere, gizarteari emanen zaio atzera ere, proiektu sozialei, elkartasun ekimen berriei edota garapenerako lankidetza programei lagunduta, besteak beste.

• Inguruarekiko konpromisoa: ekimen solidarioak ongi erroturik egonen dira aurrera eramaten diren gunean, nahitaezkoa delarik sareetan lankidetzan aritzea, hauxe baita bide bakarra ekimen solidario zehatzek eredu sozio-ekonomiko alternatiboa eragin dezaten.

*("Mundu solidario baten alde ekin" Gutuna)*

**Garapenerako Hezkuntza (GH)** (Atal hau Erro et al 2003tik aterea da) Marlen Eizagirrek GH definitzerakoan "ikuspegi honen arabera heziketa prozesu dinamikoa, elkarreragilea eta parte-hartzailea da, helburu dituena: pertsonen prestakuntza osoa, garapenaren eta Ipar-Hego desberdintasunen arazoen arrazoi globalak eta tokian tokikoak ulertzea eta haien gaineankontzientzia hartzea, eta pertsonen konpromisoa ekintza parte-hartzaile eta eraldatzailerako". Egile honek GHren bi interpretazio nagusi aipatzen ditu: ikuspegi murritz eta zehatz bat, bere edukiak Ipar-Hego harremanen arazoetara mugatzen dituena eta beste heziketa mota batetik desberdintzen dena; eta beste ikuspegi zabal eta osoago bat, GHn bestelako heziketa mota batzuk atxikitzen dituena, esaterako baloreetan oinarritutako heziketa, elkartasunerako heziketa, kulturartekotasunerako heziketa, tolerantziarako heziketa, osasunerakoa, kontsumorakoa, giza eskubideetarakoa...etab.

Espainian, Nazioarteko Lankidetzarako Legeak (NLL/LCID), 1998koak, 13. artikuluan, "garapenerako eta gizarte sentsibilizaziorako heziketa" izeneko atalean, eragin beharreko alorraz ari delarik honela definitzen du berau "Administrazio Publikoek, eurek edota garapenerako gobernuz kanpoko erakundeekiko elkarlanean,aurrera eramaten dituzten ekimen multzoa, helburu dutelarik garapen-bidean dauden herrien arazoekiko pertzepzio hobea gizartearen aldetik, eta honen baitan eragitea elkartasuna eta lankidetza aktiboa, hedapen kanpainak, informazio zerbitzuak, prestakuntza programak, eta garapen-bidean dauden herrietako produktuen bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren aldeko ekimenen laguntza direla medio". Gainera, 39. Artikuluan, NLL/LCID delakoak garapenerako hezkuntza gizartearen parte-hartzearekin lotzen du, eta Administrazio publikoek ildo honetan dituzten zenbait betebehar aipatzen ditu. Bestalde, Garapenerako Lankidetzarako Foru Legeak (GLFL/LFCID), 7garren artikuluan (1 atala), hitzez hitz hartzen du LCID espainolak darabilen definizioa. Jarrera berari eutsiz, 2 atalean dio "Nafarroako Administrazio Publikoek, garapenerako lankidetzarako atontzen dituzten programetan, eurek edota garapenerako gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean, gizartearen sentsibilizaziorako eta garapenerako hezkuntzari begirako ekimenak hartuko dituzte".

Manuela Mesak, bere aldetik, alor hau zedarritu duten une historikoak irudikatzeko eta ulertzeko bost belaunaldiz osatutako eskema proposatzen du, baina oso argi utzirik hauek guztiak elkarrekin bizi direla, elkar ukituz egungo errealitate konplexuan. Egile honek, GHz ari delarik, oro har honela definitzen du "etengabeko heziketa prozesua da,

Ipar-Hegoa harreman ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak ulertzea errazten duena; elkartasuna eta justizia sozialari lotutako baloreak eta jarrerak eragiten dituena, eta garapen humanoa eta iraunkorra erdiesteko ekinbideak bilatzen dituena."Haren aburuz "heziketa soziopolitikoa da berau, ardatza justizia sozialean duena, eta planteamendu konstruktibista eta sozio-historiko batean oinarritzen dena.(Mesa, 2001). Nabarmendu egiten du heziketa alor formaletan eta ez formaletan kokatzen dela, epe ertain-luzean egin beharreko prozesua dela, eta "bertan ezagutzaren alorra eta jarrera eta baloreena ez daitezkeela bereiz". Azkenik, prozesuari zehaztasun hau eransten dio "errealitatea dimentsio globaletik aztertzen du, irizpide analitikoak eskaintzen ditu, parte-hartzea onartzen du eta konpromisora eta ekintzara bideraturik dago" (Mesa, 2001). Formulazio honetan benetan hezigarria izan nahi duen prozesuaren ezaugarri funtsezkoetako batzuk antzematen ditugu, adibidez:

• Etengabea da, eta epe ertain eta luzeko erritmoak ditu. Ez dezakegu egiazko heziketaz hitz egin une bateko jarduerak, jarraikortasunik ez dutenak eta testuinguru zabalagoetatik at direnak, aipatzen ditugularik. Heziketa prozesuak metagarriak dira, erritmo apalak behar izaten dituzte, eta beren konplexutasunaren arabera egokituak dira.

• ""Erradikala" da eta historikoa. Izan ere, heziketa prozesu "iraunkorra", alegia, "etengabea" azaltzen baitu, UNESCOk adierazten duenarekin bat eginik (garapenerako hezkuntza ez da epe laburrera begira pentsatu ez eta neurtu behar ere), eta sakoneko arrazoiak aztertzea bilatzen duen prozesua, "Ipar-Hego harremana ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak ulertzea errazteko", hau da, arazo politiko eta soziokultural baten aurrean, eta ez gupida edo artatze kontu baten aurrean, gaudela onartzen duena. Haren aburuz "heziketa soziopolitikoa da, ardatza justizia soziala duena eta oinarria planteamendu konstruktibista eta sozio-historikoa".

• Integrala eta globala da. Bi zentzutan: elkartasuna eta justizia sozialari lotutako baloreak eta jarrerak bultzatzen ditu, eta garapen humanoa eta iraunkorra erdiesteko bideak bilatzen ditu, ezagutzaren alorra eta jarrera eta baloreen alorra ez daitezkeelarik bereiz. Ingurua osorik hartzen du, heziketaren alor formalak eta ez formalak harturik, epe ertain-luzean egin beharreko prozesua da, eta azkenik, "errealitatea ikuspegi global batetik aztertzen du, irizpide analitikoak eskaintzen ditu, parte-hartzea onartzen du eta konpromisoa eta ekintza ditu helburu", haren hitzetan.

• Aktiboa da. Parte-hartzea onartzen du eta konpromisoa eta ekintza (eraldatzailea) ditu helburu.

Mesak (2001) bost belaunaldi bereizten ditu GHren kontzeptualizazioan:

a) Lehenbiziko belaunaldia: Karitate-artatze ikuspegia. Izatez, garapenerako hezkuntzaren aurrekari garrantzitsua litzateke, ez baitaiteke halakotzat jo, helburu zehatzak falta dituelako. Sentsibilizazio kanpainek jendearen gupida eta karitatea piztea bilatzen zuten. "ikuspegia orain arte mantendu da diru-laguntzengatik lehian aritzen diren eta praktika oso zalantzazkoak, umeen babesletza kasu, aurrera eramaten dituzten GKE ugari agertzeagatik".

b) Bigarren belaunaldia: ikuspegi desarrollista. Hirurogeiko hamarkadan sortu zen. Garapenerako hezkuntzaren inguruko diskurtsoak asistentzialismotik aldendu eta lankidetzan jartzen du ardatza. Hala ere, ikuspegi honek kritika zorrotzak jaso zituen, bere edukien eta mezuen izaera etnozentrikoa zela-eta, hain zuzen ere, egitura aldetiko arazoak eta Iparrak azpigarapenean duen erantzukizuna aintzakotzat ez zituelako hartzen, eta garapenaren ideia mendebaldearen esperientzia historikora mugatu izanagatik.

c) Hirugarren belaunaldia: mendetasunaren ikuspegia. Hirurogeikoaren amaieran hirugarren belaunaldia sortu zen, "mendetasuna" paradigmatik abiatuta. Azpigarapena ez du jotzen atzerapen kontutzat, sistema kapitalistaren beste aurpegia, egitura kontutzat baizik. Arrazoiak kolonialismoa eta neokolonialismoa dira. "Garapenerako hezkuntzaren eredu hau oso kritikoa da, Iparraren erantzukizun historikoen kontzientzia hartzen du, eta berrikuntza pedagogikoaren mugimenduen proposamenak bereganatzen ditu". Garai honetan zehaztu ziren garapenerako hezkuntzaren helburuak eta edukiak: interdependentziaren ikasketa, nazioarteko lankidetzaren eta nazioarteko harremanen eraldaketaren aldeko jarrera; mendebaldeko garapen ereduaren kritika; jarrera, baloreak eta koherentzia bitarteko eta helburuen artean, Mesaren arabera.

d) Laugarren belaunaldia: garapen humano eta iraunkorraren ikuspegia. Laurogeiko hamarkadan agertu zen eta osagai berriak ekarri zituen, esaterako garapenaren krisia, gatazka armatuak, giza eskubideak, demokrazia, ingurumena, garapen iraunkorra, genero ikuspegia, etab: "Garapen arazoen dimentsio integrala planteatzen da, Iparra eta Hegoaren arteko egiturazko lokarriak eta interdependentzia globala hobeki ulertze aldera". Garai honetan, beste heziketa batzuen ekarpenak bereganatu zituen garapenerako hezkuntzak, helburu

zuela “mundu konplexu eta elkarren mendeko baten analisi kritikoa eta ekintzarako gogoa piztea lortzeko lanabes baliagarri izateko asmoz”.

e) Bosgarren belaunaldia: hiritartasun globalaren ikuspegia. Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera sortu zen, garapenaren krisiaren izaera globala antzeman zelarik. Globalizazioaren izaera eta ondorioak ulertzeko bide emanen duen garapenerako hezkuntza mota bat behar da. Bere helburuetatik nabarmengarriak dira hiritartasun globalaren kontzientzia bultzatzea eta hiritarren parte-hartzerako eta ekintzarako irizpideak zehaztea.

**Zehar-ardatzak (“Mainstreaming”)**: Kontuan hartu beharreko faktoreak dira, ekiten diogun jarduera edozein dela ere, diagnostiko eta identifikaziotik hasita, jardueraren ebaluazioraino. Esku-hartzeko estrategia hauek nazioarteko erakundeek, NBEak esaterako, aintzat hartuak dira, edota haien alde egin izan da Milurtekoko Helburuen Adierazpenean eta, beraz, berebiziko lekua hartu dute, bultzatu nahi den garapenaren kontzepzioa islatzen dutelako. González, Lara (2006)

**Ahalduntzea (gaitasunak sendotzea) eta parte-hartzea**: Gaitasuna handitzea eta parte-hartzeafuntsezko bi estrategia dira, epe luzera eramanik esku-hartzeen eraginaren iraunkortasuna eta garapen endogenoa ahalbidetzen dituztenak. Ez dago bizkortzerik eta era autonomoan garatzerik horretarako gaitasunik sortu gabe eta komunitatearen beraren parte-hartzerik gabe. Horri gehituta komunitatearen eta gizarte zibil osoaren antolakuntzaren sendotzea, horra landu beharreko hiru ardatzklabe estrategikoan.

Elkarte bizkorrak sustatzea, ekinean aritzeko antolatuak eta prestatuak, zalantzarik gabe, garapen prozesu berez iraunkorrak eta autonomoak sustatzeko aukera ematen du. Parte-hartzea, hargatik, ikasbidea behar duen prozesua da, baina era berean arazo bati lotutako gizon-emakumeen erabakimena lortzeko prozesua da, eta ez daiteke iritzi-eskatze hutsean edota unean uneko lankidetzan geratu. González, Lara (2006)

**Estrategia 20/20**: Kopenhagenen 1995ean egindako Gizarte Garapenari buruzko Mundu osoko Goi-bilera lagungarria izan zen herri emaile eta hartzaileen arteko lankidetza bizian sakontzen duen Giza Garapena kontzeptua finkatzeko. Konferentzia hartan azpimarratu egin zen Garapenaren gizarte alderdia, eta ados jarri ziren laguntzaren %20 gizartearen behar oinarrizkoak asetzeko eman behar zela, eta aldi berean, lankidetzaren hartzaile diren herriek ere, beren aurrekontuaren %2 emanen dutela behar horiexetarako(57).

Estrategia hau hobeki ulertzeko, beharrezkoa da oinarrizko beharrizanen finantzaketari begira GLOk duen osaeraren analisia ekartzea. Alegia, Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD, 1991) dioenez,laguntzarako aurrekontuen analisia honako adierazle hauei begiratuta egin daiteke:

a) Laguntzarako gastuaren adierazlea: GLOrako ematen dena emailearen BPGren ehuneko zenbat denadierazten du.

b) Laguntzaren gizarte atalaren adierazlea. Gizarte atalean (elikadura, osasuna eta hezkuntza, gehienbat) emaile bakoitzak ematen duena adierazten du.

c) Laguntzan gizarte atalak duen lehentasunaren adierazlea. Gizarte atalari emandako laguntzatik ehuneko zenbat ematen zaien lehentasuna duten giza gaiei: osasunaren lehen arreta, oinarrizko eskolaratze eta alfabetatzea, ur edangarriaren hornidura, familia plangintza.

d). Laguntzak giza garapenerako proiektuetan duen gastuaren adierazlea. Aurreko hiru adierazleen produktua da eta, beraz, hauxe adierazten du, alegia, herri emaile batek BPGaren ehuneko zenbat ematen duen herri hartzaileetan alderdi humanotik lehentasuna diren alorretan.

Ildo honetatik, estrategiaren helburua gizartelehentasuna laguntzaren %20 izatea da, eta aldi berean, herri hartzaileak bere aurrekontuen egitura aldatzea, bere aurrekontuen %20 gutxienez emateko alor berean, alegia, alderdi humanotik lehentasuna diren alorretan.

**Garapenaren finantzaketa**: Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan abiatutako deskolonizatze prozesuarekin batera, herri berriak sartu ziren Nazio Batuen Erakundean eta, ondorioz, garapenerako laguntzen estrategia bat landu zuen erakundeak, oinarritzat harturik San Franciscoko gutunaren IX. atalean jasotako asmoak (“nazioartean ekonomia, gizarte eta osasun alorretan diren arazoak konpontzea”). Horrenbestez, 1960an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1515 (XV) Ebazpena onartu zuen, “Garapenaren aldeko ekimen kontzertatua” izenekoa, hain zuzen. 1961an, berriz, Batzar Nagusiak, 1710 (XVI) Ebazpenaren bitartez, ontzat eman zuen Garapenerako Nazio Batuen Lehen Hamarkada (1961-1970), bi helburu zituela:

*(57) Gizarte Garapenerako Mundu Goi-bilera, Kopenhagengo Adierazpena, Ekintza Plana 88 – C.*

a) Estatuek beren hazkunde ekonomikoari eta gizarte aurrerapenari eusteko gauza izan zitezen lortzea (alegia, “hazkunde erritmoa (nazioaren sarrera osoarena) areagotzea, herrialde bakoitzak bere helburua jarrita, baina asmoa nazioaren sarrera osoaren urteko hazkundea, hamarkadaren amaieran, gutxienez %5 izatea delarik”).

b) Aurreko urteko 1522 Ebazpeneko konpromisoa gogoraraztea eta berrestea, alegia, garapenerako kapitalen laguntza ildoa areagotzea, ekonomia aldetik aurreratuak diren herrien sarrera nazionalen %1 izatea lehenbailehen lortzeko.

Denbora igaro eta, Nazio Batuek Merkataritza eta Garapena gaiaren inguruan Delhin egin zuten Konferentzian (II UNCTAD, 1968), lehen aldiz eman zen aholkua herri aberatsek beren BPGren %7 eman zezaten GLO kontzeptuan.Hala ere, Gómez Galánek eta Sanahujak zehazten dutenez, garapena finantzatzeko estrategia honen erreferentzia nagusia Batzar Nagusiaren 2626 (XXV) Ebazpena da, 1970eko urriaren 24koa, honek onetsi baitzuen “Garapenerako Nazio Batuen Bigarren Hamarkadarako Garapenerako Nazioarteko Estrategia”. Ebazpen honen 42. artikuluaren arabera “ekonomian aurreratua den herrialde bakoitzak, 1972tik aitzina,eginahala eginen du garapen-bidean diren herriei finantza-baliabideak emateko bere barne produktu gordinaren %1en pareko gutxieneko zenbateko garbia adinako balioaz, merkatuko prezioetan eta egiazko ordainketan, kapitalaren inportatzaile garbiak diren herrien egoera berezia kontuan harturik. Helburu hau 1972rako lortu ezin duten herri garatuek beranduenez 1975erako lortzeko eginen dute eginahala”. Beste alde batetik, 43. artikuluak dio”Garapenerako laguntza ofizialak (GLO) berak bakarrik bete dezakeen betekizunaren garrantziaren adierazgarri gisa, garapen-bidean diren herrientzako finantzaketa baliabideen transferentzien zati handi bat garapenerako laguntza ofizial gisa eman beharko da. Ekonomian aurreratutako herri bakoitzak gero eta gehiago emanen die garapen-bidean diren herriei garapenerako laguntza ofizial gisa, eta eginahalak eginen ditu Hamarkadaren erdialdera bere barne produktu gordinaren 0,7aren pareko zenbateko osoa garbia izan dadin, merkatuko prezioetan”.

Aurrerago, 1972an Merkataritza eta Garapenaz Nazio Batuek egindako Konferentzian, 61 (III) Ebazpena onartu zuen, premiaz eskatuz ekonomian aurreratua den herrialde bakoitzari, garapenbidean diren herriei finantza-baliabideak emateko bere barne produktu gordinaren %1en pareko gutxieneko zenbateko garbian . Era berean, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) handitzeko eskatu zieten, beren BPGren %0,7raino merkatuko prezioetan.

Herri aberatsen eta pobreen arteko tartea azken 30 urteetan zabaldu dela ikusirik, eta proposatutako helburuetan aurrera egiteko gaitasun falta antzemanik, Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia bildu zen Monterreyn (Mexiko) 2002an, bertan Estatu eta Gobernu buruek aitortu zutelarik garapenaz arduratzeko konpromiso baten beharra, eta konpromiso horiek betetzeko baliabideak eta neurriak ezartzearen garrantzia. Honek adierazten du mundu mailako hitzarmen bat, garapen-bidean diren herrien erreforma politikoek eta ekonomikoek erantzuna izan dezaten herri aberatsen aldetik, sorospenean, merkataritzan, zorra arintzekoan eta inbertsio alorretan laguntza eskainiz(58).

**Generoa**: Kontzeptu hau hirurogeita hamarreko hamarkadan sortu zen, emakumeen aurkako bazterketa justifikatzeko historian barna erabilitako desberdintasunak ikuspegi batetik azaltzeko kritika feminista baten testuinguruan: genero kontua dela eta, bazterketa ez da biologikoa, soziala eta kulturala baizik, eta, beraz, alda daiteke. Generoa aipatuta, gizon izateari edo emakume izateari eransten zaizkion eginkizunak, ardurak eta aukerak azaltzen dira, eta ondorioz gizon-emakumeen artean, nahiz neska-mutikoen artean, izaten diren harreman soziokulturalak ere bai. Atributu, aukera eta harreman hauek gizartean eraikiak dira, eta gizarteratzeko prozesuaren bidez ikasten dira. Kultura bakoitzak bereak ditu, eta denbora igarota aldatzen dira, ekimen politikoaren ondorioz. MAE (2003)

Gizon-emakumeen artean gizarte gehienetan izaten diren desberdintasunak zirela eta, PNUDen 1997ko txostenean genero arteko parekotasunak giza garapenerako oinarrizko irizpide gisa duen garrantzia azpimarratzen zen. Horregatik, genero arteko berdintasunaren ikuspegiaren helburua da garapena sustatzea gizon-emakumeen parte-hartze parekotik ekonomia, politika, gizarte eta kultura alorretan.

MEPD (Emakumea Garapenean) izeneko estrategiek aurrera egin zuten 1970eko hamarkadan, eta GEPD bilakatu ziren (Generoa Garapenean), aukera emanez gizon-emakumeak gizarteen eraldaketaren erantzule gisa antzemateko, eta bi

*(58) Dokumentu hauek kontsultatzeko www.un.org/esa/ffd).*

funtsezko estrategia ekarriz: (1) genero berdintasun handiagoa bultzatzea “ahalduntzea” delakoaren bidez (gaitasunak bizkortzea), eta (2) ikuspegi hau garapen programa guztietan integratzea “mainstreaming” (zeharkakotasuna edota horizontaltasuna) delakoren bidez.

Beijingeko Plataforman 1995ean baietsi zenez, berdintasuna emakumeeieta gizonei dagokien kontua da. OCDEren Garapenerako Laguntza Batzordeak bere egiten du ikuspegi hau gizon-emakumeen arteko berdintasuna dela-eta ematen dituen zuzentarau eta kontzeptuen gidan (1998), sexu arteko berdintasuna garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako funtsezko gaitzat jotzen baitu. Ikuspegi honek, gainera, emakumeen ahalduntzea sustatzen du, haien gaitasunen bizkortzea dela medio, ekimenean gizonen parean ibiltzea delarik helburu.

Ildo honetatik, generoaren beharrizan estrategikoen sustapena nahitaezkoa da errotik aldarazteko zenbait errealitate, emakumeen oinarrizko hainbat beharrizan asetzea helburu dutenak, baina aldaketarik ekartzen ez dutenak gizonekiko botere harremanetan emakumeak duen lekua dela eta.

Era berean,garapenerako lankidetzaren diskurtsoan eragina izan dute garapen-bidean diren herrietako emakumeen ahotsek eta ekintzek, eta arreta eraman dute bizi izandako kultura eta gizarte prozesuen aniztasunera. Izan ere, mendebaldeko genero ikuspegia ezartzea injerentzia kulturala litzateke nazioarteko zenbait agentziaren aburuz, eta hauek aldendu egiten dira ikuspegi horretatik. Argudio hau guztiz bidezkoa izan arren, esku-hartze guztietan kultura osagaia gogoan izatea agintzen baitu, ukaezina da desberdintasun nabarmenak daudela bizi-kalitatean eta aukera-berdintasunean genero kontuak direla eta, eta honek premiaz eskatzen du egungo berdintasun falta ezartzen duten ereduak betikotzen dituzten kultura eta tradizioen alderdiak aztertzeko eta berritzeko. González, Lara (2006).

**Giza Garapenaren Adierazlea(GGA)**: Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako Programak(PNUD) urtero lantzen eta plazaratzen du txostena Giza Garapenaren inguruan*. Giza Garapenaren Indizea erakusgarri konposatua da,herrialde baten batez besteko aurrerapena giza garapenaren hiru alderdiri begiratuta neurtzen duena. Hona hiru alderdiok: bizitza luzea eta osasuntsua, jaiotzean umeak duen bizi-esperantzaren arabera neurtua; heziketa, helduen alfabetatze tasaren arabera eta lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako matrikulazio tasa gordina konbinatuaren arabera neurtua; eta bizimodu duinaren maila, BPG per capita (PPA US$ dirutan) kontzeptuaren arabera neurtua. Indizea osatzeko egun mundu osoan eskuragarri diren erakusleak erabiltzen dira, eta metodologia soila eta aldi berean gardena erabiltzen da. Giza garapena kontzeptua adierazle konposatu indibidual batek neurtzen ahal duena baino askoz ere zabalagoa bada ere, IDH/GGI adierazlea alternatiba serioa dagiza ongizatea adierazteko diru sarrera hutsa erabiltzearen aurrean, eta giza garapenaren alderdi anitzen gainean erakusleek islatzen duten informazio zabala eskuratzeko modu ona da. Datuen eskuragarritasunak zehazten ditu IDH/GGI kontzeptuan sartzen diren herriak.

**Milurtekoko Garapen-Helburuak (MGH)**: Nazio Batuek antolatutako Milurtekoaren Goi-bileran adostasunez onartutako helburu sorta. Honako hauek dira helburuak:

| | |
|---|---|
| | ***1. Pobrezia gorriaren eta gosearen murrizketa*** |
| | ▪ Pobrezia larriaren eragintza: diru sarrera eguneko dolar bat (PPA baloreak) baino eskasagoa duen populazioaren ehunekoa.<br>▪ Pobreziaren tartearen koefizientea: Pobreziaren eragintza bider pobreziaren larritasuna.<br>▪ Desberdintasuna: Populazioaren bosten pobreenari dagokion kontsumo nazionalaren partea. |
| . | ▪ Umeen nutrizio eskasia: pisu eskasaren nagusitasuna umeengan.<br>▪ Elikadura energiaren kontsumo maila gutxienekotik behera dagoen populazioaren ehunekoa. |
| | **2. Lehen hezkuntza lortzea** |
| | ▪ Lehen hezkuntzako matrikulazioaren tasa garbia.<br>▪ Lehen gradua hasten duten eta bosgarrenera iristen diren ikasleen ehunekoa.<br>▪ 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen alfabetatze tasa |
| | **3. Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea** |
| | ▪ Lehen, bigarren eta goi mailako hezkuntzan diren nesken eta mutilen kopuruen arteko aldea.<br>▪ 15 eta 24 urte bitarteko emakumeen eta gizonen alfabetatze tasen arteko aldea.<br>▪ Nekazaritzako ez den esparruko enplegatu ordainduen artean diren emakumeen ehunekoa.<br>▪ Estatuko parlamentuan emakumeek betetzen dituzten eserlekuen ehunekoa. |
| | **4. Umeen heriotza kopuruak murriztea.** |
| | ▪ Haur heriotza-tasa.<br>▪ Bost urte baino gutxiagokoen heriotza-tasa.<br>▪ Elgorriaren aurkako txertoa hartu duten urte bateko umeen ehunekoa. |
| | **5. Amen osasuna hobetzea.** |
| | ▪ Amen heriotza tasa<br>▪ Osasun langile espezializatuen laguntzaz egindako erditzeen ehunekoa. |
| | **6. GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasunei aurre egitea.** |
| | ▪ Antisorgailuen erabilera tasa.<br>▪ 15 eta 24 urte bitarteko emakume haurdunengan VIH/GIBak eragindako gaixotasunen tasa.<br>▪ VIH/GIBak eragindako umezurtzen kopurua. |
| | ▪ Paludismoak eragindako gaixotzeen eta heriotzen adierazlea.<br>▪ Paludismo arriskua duten eskualdeetan prebentzio eta tratamendu neurri eraginkorrak hartzen dituen populazioaren proportzioa.<br>▪ Tuberkulosiari lotutako gaixotze eta heriotza tasak.<br>▪ Antzeman eta bertatik bertarako behaketapean egindako tratamendu laburraz sendatutako tuberkulosi kasuen proportzioa. |
| | **7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea** |
| | ▪ Oihanek hartzen duten lurren proportzioa.<br>▪ Biologia aniztasunari eusteko babestutako lurren tamaina.<br>▪ Barne Produktu Gordina (PIB/BPG) energiaren erabilerarako unitate bakoitzeko (energiaren erabilera efizientea adierazten du)<br>▪ Karbono dioxidoaren isurtzeak (per capita) (gehi kutsadura atmosferiko globalaren bi adierazle: ozono geruzaren agortzea eta negutegi eragina sortzen duten gasen metaketa. |
| | ▪ Ur hornidurarako iturrietarako sarbide iraunkorra duen populazioaren proportzioa. |
| | ▪ Saneamendu zerbitzu hobeetarako sarbidea duen populazioaren proportzioa.<br>▪ Lurraren jabe izateko eskubide segurua duen populazioaren proportzioa.<br>▪ Adierazle hauetako batzuk landa eta hiri esparruetako populazioaren arabera bereiztea egokia izan daiteke hurbiletik jarraitzeko etxoletako auzoetako biztanleen bizimodu hobetzea. |

| | **8. Garapenerako mundu mailako elkarte baten sorrera bultzatzea.** |
|---|---|
| . | Aurrerapen eskaseneko herrien kasuan, Afrikako herriak, itsasertzik ez dutenak eta garapen-bidean diren uharteetako estatu txikiak, ondoren aipatuko diren adierazle hauetako batzuen jarraipena bereiz eginen da.<br>**Garapenerako Laguntza Ofiziala**<br>▪ GLO garbia, Garapenerako Laguntzarako Batzordeko (GLB) herri emaileen Sarrera Nazional Gordinaren (SNG) ehuneko gisa (helburua da sarrera nazional gordinaren %0,7 ematea GLOrako eta %0,15 herri baztertuenetarako.<br>▪ GLOren proportzioa oinarrizko gizarte zerbitzuetarako (oinarrizko hezkuntza, osasunaren lehen arreta, elikadura, ur edangarriaren hornidura eta saneamendu zerbitzuak).<br>▪ GLOtik baldintzatua ez den proportzioa.<br>▪ Garapenean diren uharteetako Estatu txikietako ingurumenera bideratutako GLOren proportzioa.<br>▪ Itsasorik gabeko herrien garraioetara bideratutako GLOren proportzioa.<br>**Merkatuetarako sarbidea**<br>▪ Eskubide eta kupoetatik libre onartutako esportazioen proportzioa (beren balioagatik eta armak alde batera utzirik).<br>▪ Nekazaritzako produktuei, ehungintzari eta jantziei ezartzen zaizkien muga-zergak eta kupoak.<br>▪ OCDEko herrietan nekazaritza produktuen ekoizpenari eta esportazioari ematen zaizkien diru-laguntzak.<br>▪ Merkataritza gaitasuna sortzen laguntzeko ematen den GLOren proportzioa.<br>**Zorraren eramangarritasuna.**<br>▪ Herri behartsu oso zorpetuen aldebiko zor ofizial kitatuaren proportzioa.<br>▪ Ondasun eta zerbitzuen esportazioetan zorraren zerbitzuak duen ehunekoa.<br>▪ Zorra arintzeko eskainitako GLOren proportzioa.<br>▪ Herri oso zorpetuen zorra murrizteko ekimenean erabakimena eta burutzea dauden guneetara iristen diren herrialdeen kopurua. |
| | ▪ 15 eta 24 urte bitartean langabezian dauden pertsonen kopurua. |
| | ▪ Funtsezko sendagaiak salneurri egokietan eskuratzeko aukera duen populazioaren proportzioa. |
| | ▪ Telefono harien kopurua 1.000 biztanleko.<br>▪ Ordenagailu pertsonalen kopurua biztanleko.<br><br>Gainera, beste adierazle batzuk ere zehaztuko dira. |

Helburuok, elkarrekin erlazionatuak izaki, garapenak dituen arazo gakoetako batzuk jasotzen dituzte, munduko goi-bileretan erdietsitako akordioak biltzen dituzte, eta giza eskubideen testuinguruan kokatzen dira. Milurtekoko Adierazpenaren oinarriak askatasuna, tolerantzia, berdintasuna, erantzukizun konpartitua, elkartasuna eta naturarekiko begirunea dira. Izan ere, Milurtekoko Adierazpenean jasotako helburuak alternatiba erreala eta bideragarria ekartzen dute pobreziari, goseari, gaixotasunei, analfabetismoari, ingurumenaren hondatzeari eta emakumearen aurkako bazterketari aurre egiteko. Helburuok nazioarteko komunitatearen konpromisoa lotu dute 2015ean ezarriak izan daitezen.

Zalantzarik gabe, Milurtekoko Adierazpenaren Helburuek garapenerako lanaren inguruan adostasun zabala biltzen duen esparrua zehazten dute: gobernuetatik eta nazioarteko instituzioetatik hasita, gizarte erakunde eta GGKEetaraino. Horrenbestez, neurri handi batean eurek mugatzen dute zer sartzen den eta zer geratzen den kanpo garapenerako laguntzaren kontuan. Hala eta guztiz ere, ez dezakegu ahaztu tresna direla, eta azken helburua pobrezia eta bazterketa erabat erauztea dela. Honek beste gauza bat ere ekarri behar digu gogora, alegia, mugak ere badituztela, besteak beste honako hauek:

• Desberdintasunari lotutako helburuen falta. Analisi aldetik "pobrezia" eta "desberdintasuna" kategoria desberdinak izan arren, neurri handi batean areagotzen den desberdintasuna da zenbait gizarte talderi pobreziatik ateratzea galarazten diena. Baliabideak munduan hobeki banatzearen aldeko lanik ez bada, MAHak ezinbestez bete gabe geratzeko arriskua dago.

• Dimentsio politikoen eta eskubide demokratikoen aipamenen falta. Ez dago inongo helbururik eskubideei eta demokraziari lotutakorik. MAHak lortzea ekarriko duten prozesuen dimentsio partehartzailea ez da helburu bakar batean ere islatzen.

• 8 helburuaren garapena ("garapenerako mundu elkartea"), gobernuak lotzen dituena, hain zuzen ere,borondate oneko ekintzen bilduma besterik ez da, ez bete beharreko datarik ez eta neur daitekeen konpromisorik ez duena.

Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Orokor Kofi Annanek, "Askatasunaren kontzeptu zabalagoa: Garapena, Segurtasuna eta Giza Eskubideak guztientzat"izeneko bere txostenean, asmo handiko tresnak proposatzen ditu ezarritako helburuak lortzeko, bertan munduko segurtasunaren eta pobreziaren arteko harreman zuzena planteatzen duela. Delako dokumentu horretan miseriatik libre bizitzeko askatasuna eta beldurrik gabe bizitzeko askatasuna aldarrikatzen ditu(59).

Milurtekoko Adierazpena ez daiteke uler, arestian esan den gisan, nazioarteko komunitatean eman den prozesuaren aipamenik egin gabe, era berezian Nazio Batuen Adierazpenei eta eurek bultzatutako Mundu Goi-bilerei erreparatu gabe. 1961ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, bere Ebazpen 1710 (XVI) delakoaren bitartez aldarrikatu egin zuen Garapenerako Nazio Batuen Lehen Hamarkada (1961-1970); ondoren, 1970ean eta Batzar Nagusiaren 2626 (XXV) Ebazpenean, "Garapenerako Nazio Batuen Bigarren Hamarkadarako Garapenerako Nazioarteko Estrategia" onetsi zuen. Handik aurrera Nazio batuek hiru hamarkada gehiago aldarrikatu izan dituzte, aurrekoetan ezarritako helburuak betetzen ez zirela ikusita. Gainera, izan dira bestelako ekimenak herri pobreen garapena bultzatzeko asmoz egindakoak, esate baterako Nazioarteko Orden Ekonomiko Berria Ezartzeko Estrategia (1974), Garapenerako eskubidearen gaineko adierazpena (1986), eta, azkenik, Milurtekoko Adierazpena (2000).

Azken urteetan garapenerako lankidetzarako alor desberdinetan berebiziko eragina izan duten Goi-bileretatik honako hauek dira aipagarriak:

• Garapen Iraunkorrerako Johannesburgeko (Hegoafrika) Goi-bilera, 2002ko irailekoa; bilkura hartan Rioko Goi-bileran ingurumena eta pobreziaren arteko loturak zirela-eta planteatutako gauzak ekarri ziren atzera ere, eta Adierazpen bat eta Ekintza Plan bat erdietsi ziren.

• Beijing+10, 2005eko martxokoa, Nazio Batuen Emakumearen Kondizio Juridikoa eta Sozialaren Batzordeak deitutakoa; bertan aztertu eta ebaluatu ziren Beijing-eko Ekintza Plataformaren 10 urteak, bereziki emakumea gero eta gehiago kaltetzen duen pobreziaren eragina, bai eta hezkuntzarako eta gaikuntzarako sarbidean izaten diren desberdintasunak eta eskasiak ere, emakumeen garapenerako agendan lehentasunezkoak diren beste gai batzuekin batera.

• Arrazakeriaren, Arraza Bazterketaren, Xenofobiaren eta haiei Lotutako Intolerantzia Formen kontrako Mundu Konferentzian, Durbanen 2001ean, asmoa zen arauak, egiturak eta baliabideak ematea, eta kultura bat molde bat, pertsona guztien duintasuna eta berdintasuna eta euren

*(59) Idazkari Nagusiaren Adierazpena NNBBen Batzar Nagusiaren aurrean, N.Y . 2005eko martxoaren 25a.*

giza eskubideekiko erabateko begirunea bermatuko dituena. Batez ere iraganeko kolonialismoari lotutako injustizia historikoaren aitortza gisa.

Eta azkenik, aipa daitekeen beste ekimen bat, PACI aurreikuspenak 2006 delakoan jasoa dagoenaren arabera, ART ekimena da, alegia, giza garapenerako Lurralde eta Gaien araberako Sareei Laguntzea; nazioarteko ekimen honek Nazio Batuen erakunde desberdinen jarduera eta programa anitz biltzen ditu, eta aldeaniztasun berria bultzatzen du; honen arabera Nazio Batuek, tokiko komunitateekin eta gizarte eragileekin batera lankidetzan ariko dira, giza garapenaren nazioarteko kultura zabaltzeko, azken 15 urteetako Nazio Batuen Goi bileren eta Milurtekoaren Batzarraren ildotik, tokiko komunitateen artean sareetan uztartzea eta praktika eta metodologiaberritzaileak zabaltzea ahalbidetuz.

Mugarri hauek, gehiago-gutxiago, markatu egin dute herri garatuek kudeatzen duten nazioarteko lankidetzarako politika, eta neurri horretan eurek ekarritako konpromisoak eta iradokizunak lankidetzazko ekintzarako zehar-estrategiak bilakatu izan dira.

**Gutxien Aurreratutako Herrialdeak**: Gutxien Aurreratutako herrialdeak aipatuta, herri talde bat izendatzen da, ezaugarritzat dituena, bertako herritarren pobrezia sakona ez ezik, beren baliabide ekonomiko, instituzionalak eta humanoak oso ahulak izatea, maiz, gainera, haien garapena eragozten duten ezaugarri geofisikoekin batera nahasirik.

Gutxien Aurreratutako Gerrialdeen gaineko lehen ebazpena UNCTADen bigarren batzar aldian onartu zen, 1968an (24 (II) Ebazpena). Garapenerako Nazio Batuen Garapenerako Bigarren Hamarkadako Nazioarteko Estrategian Herri ez hain garatuen aldeko Estrategiak barneratu ziren. Hala ere, Garapenerako Nazio Batuen Bigarren Hamarkadan egindako berrikuspenean antzeman zen Aurrerapen Eskaseneko Herrien garapen adierazleak behera etorriak zirela, eta kasu batzuetan atzeraka etorriak zirela, Garapenerako Nazio Batuen Lehen Hamarkadaren aldean.

Emaitzak ikusirik, eta Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiak horri buruz egindako txostenaren arabera, Berehalako Ekintza Programa (1979-1981) sortu zen, eta Ekintzarako Programa Mamitsu Berria 1980ko hamarkadarako aurrerapen eskaseneko herrien alde. Ebazpen honetan nabarmendu zen aurrerapen eskaseneko herrien zor kitatze urriari iraulia eman beharra, batez ere atzerriko laguntzak nabarmen handituz. Lehen aldiz aipatu zen, gainera, herri horiekiko laguntza bi bider handiagoa eman beharra, lehenbailehen. “Garapen eskaseneko herrientzako Programa Berriaren ondorioz, Parisen bildu zen, 1981ean, Aurrerapen Eskaseneko Herriei buruzko Nazio Batuen Lehen Konferentzia, bertan aho batez onartu zirelarik hamarkada horretan aurrerapen eskaseneko herrien alde hartuko ziren neurriak, bai herrialde barnekoak, bai nazioartekoak ere.

Akordio hori hor egonda ere, erakusleek okerragora jotzen zuten beti ere, barne politikaren eta nazioarteko merkataritzaren eskaskeriagatik, eta batez ere kanpo zorrarengatik. Hortaz, 1990ean Nazio Batuen Bigarren Konferentzia Aurrerapen Eskaseneko Herriei buruz antolatu zen, 80ko hamarkadan proposatutako neurrien emaitzak aztertzeko asmoz. Parisko Adierazpenean proposatutako programak zenbait berrikuntza eskaintzen zituen, giza eskubideen begirunearen bitartez gizakia ardatz izanen lukeen garapena sustatzeko. Atzerriko finantzaketa laguntza dela eta, herri garatuek hartu zuten konpromisoa modu kolektiboan laguntza hori nabarmen eta era mamitsuan areagotzeko. Aurrerago, 2001ean, Gutxien Aurreratutako Herrialdeei buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentzia egin zen Bruselan, eta han ezarri ziren “Aurrerapen Eskaseneko Herrien aldeko Ekintza Programa 2001-2010 Hamarkadarako.”

GLBren arabera, egun GLO hartzen duten Garapen Apaleko Herrialdeak honako hauek dira:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Afganistan | Kongoko ED | Salomon uharteak | Mozambike | Sao Tome eta Principe |
| Angola | Txad | Kiribati | Myanmar | Sudán |
| Bangladesh | Djibuti | Laos | Nepal | Tanzania |
| Benin | Eritrea | Lesoto | Niger | Ekialdeko Timor |
| Burkina Faso | Etiopia | Liberia | Afrika Erdiko Errepublika | Togo |
| Burundi | Gambia | Madagaskar | Ruanda | Tuvalu |
| Butan | Ginea | Malawi | Samoa | Uganda |
| Cabo Verde | Ekuatore- Ginea | Maldivak | Senegal | Vanuatu |
| Kanputxea | Ginea – Bissau | Mali | Sierra Leona | Yemen |
| Komoreak | Haiti | Mauritania | Somalia | Zambia |

**Pobrezia**: Historiatik begiratuta, garapenerako lankidetzazko esku-hartzeak, lehen une batean, garapenaren ikuspegi lineal eta hertsi batetik bideratu ziren, eta haien irizpide murrizgarri eta sinplistek bide ematen zutenegiturak sustatzen zituzten politikak eta ekintza handinahi eta bertikalak egin zitezen. Hasierako une hura ez zen hain iraupen laburrekoa izan, eta garaiko ideiaren arabera, garapenerako bidea bakarra zen eta, beraz, garapena lortua ez zuten herriek herri garatuen bideari lotu behar zitzaizkion, ezinbestean geratzen zirelarik "atzerapen" egoeran, besteen aldean.

Eskarmentuak garapenaren ideia konplexuagoak onestea ekarri du ezinbestez, ekonomia hutsetik haratago, nahitaez jaso behar direlarik prozesu eta dimentsio kulturalak eta sozialak. Beraz, pobrezia kontzeptua berrikuspen aldi batean dago, onarturik baitago osagai sorta zabalagoa, gaitasun faltari eta aukera ukatzeari dagokienez. *González, Lara (2006).* Ildo honetatik, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenak pobrezia honela definitzen du, alegia, bizimodu egokiaz gozatzeko beharrezkoak diren baliabide, segurtasun eta ahalmenak etengabe edo era kronikoan ukatuak izatea, eta halaber bestelako eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak.

**Espainiako Garapenaren aldeko politika**: 1981 arte Espainia nazioarteko laguntzaren herri hartzailetzat jotzen zuen Munduko Bankuak, eta 1985era arte OCDEren Garapenerako Laguntza Batzordeak ere bai. Ordura arte, Espainiako Gobernuaren finantzaketa ofizial bakarrak kolonia izandakoekiko harremanetara eta FAD maileguak (Garapenerako Laguntza Fondoak) abiaraztera bideratutakoak ziren. Fondo hauek markatu egin zuten lankidetza espainolaren historia.

Laurogeiko hamarkadan barna garapenerako lankidetzarako politikaren instituzionalizazio prozesua hasi zen. Estatuan orduz geroztik izan den bilakaerak, hortaz, garapenerako lankidetzaren instituzionalizatze eta arautzeprogresiboa ekarri ditu. Izan ere, gero eta ekintza eta bitarteko gehiago bideratzen baitira horretara, eta kudeaketa ere gero eta konplexuagoa baita, bereziki agertu denetik Lankidetza Deszentralizatua delakoa. Lankidetza Deszentralizatua estatuaren beraren egitura deszentralizatuaren ondorioz sortzen da, halako egitura eman baitzion 1978ko konstituzioak. Gainera, 1984ko "Lege Autonomiaren Europako Gutuna" izenekoak adierazten du lankidetza ez dela estatuaren eskumena bakarrik; eta Maastricht-eko Itunak ere propio jasotzen du aukera hori.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdialdeak mugarri garrantzitsua jarri zuen Estatu Espainolean garapenerako lankidetzak izan duen bilakaeran. 80koetan barna instituzio eta aurrekontuetan izandakozehaztapenei, 1992an erantsi zitzaien Diputatuen Kongresuak onetsitako txosten bat, garapenerako laguntzarako eta lankidetzarako politika espainolaren helburu eta ildo nagusiak lantzen zituena. Aurrerago, 1994an, Laku Handietako krisialdiak, batetik, eta bestetik, lankidetzarako aurrekontu publikoen %0,7 ematearen aldeko gizarte mobilizazioak zirela-eta, gaiaren bilakaeran une bereziki nabarmengarria izan zen. Gizarte mobilizaziorako kanpainaren ondorioz eragile politiko nagusiak "Elkartasunaren Ituna" sinatu zuten, %0,7a hurrengo legealdirako lortzea aurreikusten zuena. Beste alde batetik, une hartan hasi zen nabarmen areagotzenlankidetza deszentralizatua, era berezian Autonomia Erkidego anitzek egindakoa. Lege mailako lehen arautegi autonomikoa, garapenerako lankidetzako zenbait alderdi arautzen zituena Errioxako Autonomia Erkidegoan agertu zen, nazioarteko lankidetzari buruzko Lege estatala onartu baino bi urte lehenago.

Gauzak horrela, estatu mailan aurrera egin zuten lankidetzaren kudeaketa hobetzeko instituzioen ekimenek eta arautegiek. 1995ean, maiatzaren 19ko 795/1995 Errege Dekretuak agindurik, Garapenerako Lankidetzarako Kontseilua sortu zen, gaian parte-hartzeko eta aholkularitza emateko organo goren gisa.

Gainera, Espainiak, Nazio Batuen Erakundeko kide den aldetik, eta beronen Konstituzio Itunean[60] adierazten duenaren arabera, giza eskubideen gaineko zenbait tresna juridikoren erredakzioan parte hartu du eta, horiek berresteak halabeharrez lotzen du beste Estatu batzuei laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaintzeko,

(60) *Nazio Batuen gutuna, San Franciscon 1945eko ekainaren 26an sinatua; urte bereko urriaren 24an hartu zuen indarra, 110. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

lurralde horietan Eskubide Zibil eta Politikoen berehalako gauzatzea eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen gauzatze progresiboa izateko bermeak ezarriak izan daitezen. Eskubide hauek hitzarmen orokorretan jasoak dira, besteak beste Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna[61] edota Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna[62], edota bestelakoetan ere, Emakumearen aurkako Bazterketa Modu guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Ituna[63], Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa[64], etab

Bilakaera honen funtsezko mugarria, inongo zalantzarik gabe, 1998an uztaileren 7ko 23/1998 Legea onartzea izan zen, Nazioarteko Lankidetzarakoa, horrexek izan behar baitzuen lankidetzan estatuan izanen ziren ekimenak ordenatzeko oinarrizko araua, Espainian lankidetza deszentralizatuan egiten diren politika desberdinen koordinaziorako tresna gisa. Legeak helburu eta printzipio sorta bat ezartzen du[65], Lege horren beraren 4. artikuluak jasotzen duen koherentzia printzipioaren arabera, hartara informatzeko administrazio publiko espainol desberdinek, beren eskumenen arabera, garapen-bidean diren herriekiko ezartzen dituzten politikak.

Aipatu Legeak garapenerako lankidetzan egiten diren jardueren lege esparrua ezartzen du, eta aldi berean Espainian, eta bereziki Autonomia Erkidegoetan, edo tokian tokiko entitateetan, lankidetza deszentralizatuan diren politika desberdinak koordinatzeko arautegi baliagarria eskaintzen du. Legeak helburu eta printzipio sorta bat ezartzen du, Lege horren beraren 4 artikuluak jasotzen duen koherentzia printzipioaren arabera, hartara informatzeko, administrazio publiko espainol desberdinek, beren eskumenen arabera, garapenbidean diren herriekiko ezartzen dituzten politikak

Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legearen arabera, nazioarteko garapenerako espainiar legeak -Konstituzioan oinarritua- Espainiako herriaren elkartasuna adierazten du garapen-bidean dauden herrialdeekiko eta, bereziki, beste nazio batzuetako herri pobreenekiko, eta nazio-mailako adostasun politiko eta sozial zabalean oinarritua dago (2. artikulua).

Garapenaren aldeko lankidetzarako aurreikusita dauden helburuei dagokienez, Lege beraren 3. artikuluan jasota daude. Zeharka esaten da hauxe dela helburu nagusia: giza, gizarte eta ekonomia garapena sustatzea munduan pobrezia desagerrazten laguntzeko. Helburu nagusi hori berariazko helburu hauen bidez zehaztua dago:

a) Giza baliabideekin eta baliabide materialekin herrialde pobretuenen garapena sustatzea hazkunde ekonomikoa lor dezaten, garapenaren emaitzak zuzenago banatuta, eta garapen autosostengatuaren lorpenerako baldintzak sustatuta onuradunen gaitasunetatik beretatik abiatuta. Halaber, oro har, herri onuradunen bizi-maila hobetzen laguntzea eta, bereziki, jende behartsuenarena. Era berean, egonkortasunerako eta partehartze demokratikorako berme handiagoak sustatzea, gizon-emakumeen giza eskubideekin eta funtsezko askatasunekin bat.

b) Oreka handiagoa lortzen saiatzea politika, estrategia, ekonomia eta merkataritza mailako harremanetan eta, horrela, nazioarteko bakea bermatuko duten egonkortasuna eta segurtasuna sustatzea.

c) Larrialdiei aurrea hartu eta harrera egitea, giza laguntzako ekintzen bitartez.

d) Erregimen demokratikoak ezartzen eta finkatzen laguntzea, bai eta giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetua ere.

e) Politika, ekonomia eta kultura mailako harremanak bultzatzea garapen-bidean dauden herrialdeekin, lankidetzaren printzipioekin eta gainerako helburuekin bat.

Bestalde, garapenaren aldeko estatuko politikaren printzipioak aipatu legearen 2. artikuluan jasota daude funtsean, baina denak ez. Hala ere, 3. artikuluak batasun edo koordinazioaren printzipioa aipatzen du. Izan ere, horren arabera, garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza politika estatuaren kanpo ekintzaren barnean dago, eta Estatuak kanpoalderako behar duen ekintza-batasunaren printzipioan oinarritua dago, indarra duen araudiarekin bat eta Administrazio publikoen eskumenen barnean. Hona hemen 2. artikuluan jasotako printzipioak:

a) Gizakiaren norbanako eta talde izaera aitortzea, garapenaren aldeko lankidetza politikaren ardatz eta jasotzaile nagusia baita.

*(61) Espainiak 1977ko apirilaren 27an berretsia.*
*(62) Espainiak 1977ko apirilaren 27an berretsia.*
*(63) Espainiak 1984ko urtarrilaren 5ean berretsia.*
*(64) Espainiak 1990eko abenduaren 6an berretsia.*
*(65) Nazioarteko lankidetzari buruzko 23/98 Legea, 2. Art. 3. Art.*

b) Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babestu eta sustatzea, bai eta bakea, demokrazia eta herritarren parte-hartzea ere, betiere gizon eta emakumeentzako berdintasunean oinarriturik eta, oro har, ez-bazterkeria sustatzea sexua, arraza, kultura edo erlijioa edozein izanik ere, eta aniztasuna ere errespetatzea.

c) Nazio guztietan giza garapen osoa, elkarren mendekoa, partehartzailea, iraunkorra eta genero berdintasunean oinarritua sustatu beharra. Ahalegindu behar da ardurakidetzaren printzipioa Estatuen artean aplikatzen, garapenaren aldeko politiken koherentzia eta eragingarritasuna ziurtatu eta indartzeko, munduan pobrezia desagerrarazteko helburuari dagokionez.

d) Herrialdeen hazkunde ekonomiko iraunkorra sustatzea, aberastasuna zuzentasunez banatzea sustatzeko neurriekin batera, bizi-baldintzen hobekuntza sustatzeko, bai eta osasun, hezkuntza eta kultur zerbitzuetan sartzea hobetzeko ere, hala nola beren herritarren ongizatea.

e) Nazioarteko Erakundeetan hartutako konpromisoak errespetatzea.

Aldi berean, 4. artikuluak koherentziaren printzipioa ezartzen du. Horren arabera, Legearen 2. eta 3. artikuluetan adierazitako printzipio eta helburuek gidatu behar dituzte Administrazio Publiko guztien politikak, bakoitzaren eskumenen barnean, garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten badiete.

Estatu osorako egituratuak dauden printzipio eta helburuekin batera, garapenaren aldeko lankidetza arautzen duen Estatuko araudiak koordinazio organoak eta plangintzarako lanabesak aurreikusten ditu. Lehenbizikoen artean nabarmendu behar da Garapenerako Lankidetzaren Lurralde arteko Batzordea, zeinean beste erakunde batzuen artean Autonomia Erkidegoak ordezkatuak baitaude. Planifikaziorako osagaien artean, Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak egin, eztabaidatu eta onestea dago launa urteko denboraldirako. Plan Zuzentzaileok garapenaren aldeko Espainiako lankidetza politikaren helburuak eta lehentasunak adierazi behar ditu, bai eta huraxe betetzeko bidera litezkeen aurrekontu-baliabideak ere.

Azken urteotan aurrerapena izan da aurreko sare instituzionalaren berregituraketan. Esan behar da konplexu eta sakabanatu xamarra izan dela, eta tentsioak gertatu dira Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Kanpo Arazoetarako Ministerioaren artean. Lehenbizikoan, Merkataritzarako Estatu-Idazkaria zen Garapenerako Laguntza Funtsaren kredituak erregulatzeko arduraduna. Hura aldebiko laguntza zen, itzulgarria, eta talde askok egina zion laguntza molde horri kritika gogorra, esaterako, OCDE erakundeko Garapenerako Laguntza Batzordeak. Beste alde batetik, Kanpo Arazoetarako Ministerioan, SECIPI (1985ean sortua, Nazioarteko Lankidetzarako Estatu-Idazkaritza) izan zen garapenerako lankidetzaren organo politiko gorena, eta horren kudeaketa arduraduna ere bai. Organo horren mendean zegoen AECI delakoa (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia), 1988an sortua aldebiko laguntza ez-itzulgarria gauzatzeko. Hogei bat bulego tekniko zituen Espainiako Lankidetza lehentasunez jasotzen zuten herri zenbaitetan.

Aurrekontuei dagokienez, Espainiako GLOk gora egin duela laurogeiko hamarkadaren hasieran abiatu zenetik aurrera, baina tarteka egonean egon da, eta sekulan ez da BPGren % 0,7ra iritsi. Esaterako, 2000n % 0,030era ailegatu zen. Nazioarteko Lankidetzarako Urteko Planean (2006), aurreikusia dago 3.234.963.624 euroko GLO garbia, hau da, BPGren% 0,35.

Jarraian, Espainiako GLOren bilakaera ageri da. Azpimarratu behar da Administrazio deszentralizatuen datuak dagokion lanabesari erantsi zaizkiola salbu eta 2004. urteko aurreikuspenetan izan ezik).

| Espainiako GLO garbiaren bilakaera, lanabesen arabera | 2006 aurreikuspenak | % | 2005 aurreikuspenak | % | 2004 aurreikuspenak | % | 2004 jarraipena | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| a) Ekarpenak EBra | 647.840.000 | %20,03 | 612.160.000 | %23,54 | 495.250.000 | %21,62 | 505.110.000 | %25,63 |
| b) Ekarpenak Nazioarteko Finantza Erakundeetara | 267.280.842 | %8,26 | 255.629.323 | %9,83 | 271.949.501 | %11,87 | 307.560.911 | %15,61 |
| c) Ekarpenak Nazioarteko Erakunde Ez-Finantzarioetara | 58.572.147 | %1,81 | 83.815.200 | %3,22 | 75.170.556 | %3,28 | 55.143.562 | %2,80 |
| d) Alde anitzeko beste ekarpen batzuk | 273.650.000 | %8,46 | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 |
| ***I.Alde anitzeko GLO, guztira (a+b+c+d)*** | **1.247.342.989** | **%38,56** | **951.604.523** | **%36,59** | **842.370.057** | **%36,78** | **867.814.473** | **%44,04** |
| a) Garapenerako Laguntza Funtsaren kredituak | 180.000.000 | %5,56 | 202.355.337 | %7,78 | 163.614.360 | %7,14 | 154.129.294 | %7,82 |
| b) Alde anitzeko Garapenerako Laguntzaren Funtsa | 56.350.000 | %1,74 | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 |
| c) Mikrokredituak | 76.763.318 | %2,37 | 91.500.000 | %3,52 | 60.101.210 | %2,62 | 33.228.249 | %1,69 |
| *A.Aldebiko lankidetza itzulgarri garbia, azpi-guztira (a+b+c+d)* | 313.113.318 | %9,68 | 293.855.337 | %11,30 | 223.715.570 | %9,77 | 187.357.543 | %9,51 |
| a) Zor-eragiketak | 456.000.000 | %14,10 | 364.000.000 | %14,00 | 372.000.000 | %16,24 | 161.164.144 | %8,18 |
| b) Garapenerako Laguntza Funtsa ez-itzulgarria | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 | 0 | %0,00 | 25.660.839 | %1,30 |
| c) Programak eta proiektuak | 497.598.655 | %15,38 | 432.382.934 | %16,63 | 394.084.697 | %17,21 | 278.659.572 | %14,14 |
| d) GGKEentzako laguntzak eta dirulaguntzak | 552.124.988 | %17,07 | 447.166.195 | %17,20 | 79.532.019 | %3,47 | 340.209.128 | %17,27 |
| *B. Azpi-guztira, aldebiko lankidetza itzulgarria (a+b+c+d)* | 1.505.723.643 | %46,55 | 1.243.549.129 | %47,82 | 845.616.716 | %36,92 | 805.693.683 | %40,89 |
| *C. Azpi-guztira, garapenerako aldebiko lankidetza (A+B)* | 1.818.836.961 | %56,22 | 1.537.404.466 | %59,12 | 1.069.332.286 | %46,69 | 993.051.226 | %50,40 |
| *D. Aldebiko giza ekintza* | 140.798.216 | %4,35 | 89.279.437 | %3,43 | 43.006.506 | %1,88 | 91.893.123 | %4,66 |
| *E. Garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza* | 27.985.457 | %0,87 | 22.181.257 | %0,85 | 1.222.850 | %0,05 | 17.715.786 | %0,90 |
| *F. Administrazio autonomikoa* | | | | | 233.131.808 | %10,18 | | %0,00 |
| *G. Toki administrazioa* | | | | | 101.391.497 | %4,43 | | %0,00 |
| ***II. Guztira, aldebiko GLO garbia (C+D+E+F+G)*** | **1.987.620.634** | **%61,44** | **1.648.865.160** | **%63,41** | **1.448.084.947** | **%63,22** | **1.102.660.135** | **%55,96** |
| **GUZTIRA GLO GARBIA (I+II)** | **3.234.963.623** | **%100,00** | **2.600.469.683** | **%100,00** | **2.290.455.004** | **%100,00** | **1.970.474.608** | **%100,00** |

Iturria: guk prestatua Nazioarteko Lankidetzarako Urteko Planen datuak kontuan harturik, 2004tik 2006rako aurreikuspenak eta 2004ko.

**Europar Batasunaren garapenaren aldeko politika**: EBk hirugarren herriekiko duen garapenerako lankidetzaren sorreraren hasiera bilatu nahi izanez gero Europako Ekonomia Komunitatearen fundazio Hitzarmenera, alegia, 1957ko Erromako Hitzarmenera, jo behar dugu. Hitzarmen honek hirugarren herriekiko garapenerako lankidetza propio aurreikustez ez zuen arren, kide ziren zenbait estatutako kontinenteaz kanpoko zenbait lurralderi begirako hainbat ekimen berezi iragartzen zituen. Denbora igarota, lankidetzarako Europako politika eratzen hasi zen, laguntza ekimenak zabaldu baitziren kide diren estatuetako esparru ez europarretatik mundu osokoeskualde edota herrialdeetara. Ekimen hauek beren oinarrizko arautegia komunitatearen goi mailan izatea erdietsi zuten Maastrichteko Itunaren onarpenarekin, 1992ko otsailaren 7an sinatu baitzen, politika eta ekimen komunitario berrien esparruan kokaturik, eta honako hauek errazteko helburua ematen zitzaiolarik: (a) garapen-bidean diren herrietako garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra, bereziki baztertuenak direnetan; (b) aipatu herri horien sarrera armoniatsua eta progresiboa munduko ekonomian; eta (c) pobreziaren aurkako borroka. Hori guzti hori, helburu nagusia dela garapena laguntzea eta Zuzenbide Estatuaren finkapena, bai eta giza-eskubideen eta oinarrizko askatasunen begirunea ere. (Europako Komunitatearen sorrerako Itunaren XVII Titulua; 130.

Batzordearen ustez, atzerriko inbertsioa eta politika ekonomikoen arteko koordinazioa direla medio hazkunde orekatua sustatzea helburu duen estrategia baten osagarria da eskualdearteko integrazioa. Ildo honetatik, Europar Batasunak eskualdearteko integraziorako ekimen errealak laguntzen ditu, garapen-bidean diren herrietako berrikuntza ekonomikorako programa nazionalekin bat eginez.

1997an, Amsterdamgo Ituna sinatzearekin batera, aldaketa garrantzitsuak izan ziren garapenerako lankidetzari begirako politika komunitarioari zegokionean, eta egun gai honen gaineko itunen ardatz diren printzipioen erredakzioa eratzen da. Izan ere, Amsterdamgo Itunaren XX Tituluak (177-181 artikuluak) oinarrizko printzipio sorta osoa diseinatzen baitu, Europar Batasunaren garapenerako lankidetzaren orientabide direnak.

Gogoan hartzen ez badira arautegi kontuak, zera ikusiko dugu, historian barna hainbat alditan eratu dela prozesu hau (aldi euroafrikanista, Ipar-Hego elkarrizketa eta garapenerako politika komunitarioaren mundializazio aldia, kritika eta autokritika aldia). Mende honetan sartzearekin batera, berriz, Europar Batasunaren garapen-politikan berrikuntza sortu zen Europako Batzordearen Eraberritzearen testuinguruan. 2000ko azaroaren 10ean, eta kontsulta aldi luze baten ondoren, onespena eman zitzaion Europar Batasunaren Garapenerako Politikari buruzko Batzordea eta Kontseiluaren Adierazpena biltzen duen dokumentuari.Bertan esaten denez, politika honen helburu nagusia pobrezia murriztea da, aurreragobehin betiko amaiera emateko.Pobrezia, eta berak dakarren ahulezia, hamaika faktoreren ondorio da. Horregatik, Komunitatearen asmoa da pobreziari amaiera emateko dimentsio horiek gogoan izanen dituzten estrategiak laguntzea, garapen-bidean den herri bakoitzaren aukera era baldintzen azterketen gainean oinarriturik. Estrategia horiek demokrazia sendotzea, bakea finkatzea eta gatazkak prebenitzea bideratu behar dituzte, eta halaber integrazio progresiboa munduko ekonomian, arreta handiagoa alderdi sozialekikoeta ingurumenarekiko garapen iraunkorrari begira, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta protagonista publiko nahiz pribatuen gaitasunak bizkortzea. Herri elkartuek formula hauek bere egin ditzaten lortu behar da, eta Estatua eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketan sar daitezen.

Komunitatearen ardatz izanen dira sei esparru, ekimen komunitarioaren baliagarritasunaren arabera eta pobrezia murrizteko duten eraginkortasunaren arabera definituak

Merkataritza eta garapenaren arteko lotura: Merkataritza kontuan eta garapenerako laguntzan lehen mailako eragilea den aldetik, Komunitateak bere eginkizuna du bi alor horien arteko uztarketa gerta dadin. Begirale lana egin behar du garapen-politikak eta merkataritza eta inbertsio politikak elkarren osagarri eta elkarren indargarri gerta daitezen. Garapen-bidean diren herriek beren merkataritza politikak berritzeari ekin behar diote euren helburuen eta garapen estrategien arabera. Nazioarteko laguntza handiagoa eta koherenteagoa jaso behar dute. Garapen-bidean diren herrien inbertsioen eta elkartrukeen liberalizazioa herri haien ekonomien ahultasunari begiratuko dion erritmo batean egin beharrak dira, eta eginahala egin behar da haien epe luzeko ondorio dinamikoak gizartean indartzeko eta ahalik eta gehiena murrizteko doikuntzaren kosteak.Herri garatuetako merkatuetarako sarbide lehentasunezkoa izatea ere lagungarri da garapen-bidean diren herrien ekonomia garatzeko eta munduko ekonomian integra daitezen, batez ere Aurrerapen Eskaseneko Herrien kasuan. Herri hauek merkaturako duten sarbidea hobetzeko konpromisoa hartu du Komunitateak. Hala ere, haien hobekuntza ez da aski.

Beste hainbat faktore ere gogoan izatekoak dira: eskaintzak eta lehiakortasunak ezarritako

mugak, garapen-bidean diren herriek merkatuaren irekitzearen onurak hartzeko duten gaitasuna, merkataritzei lotutako esparruetako lankidetza handiagoa, teknologien transferentzia, informaziorako eta mundu mailako sareetarako sarbidea, inbertsioa sustatzeko eta alor pribatua garatzeko estrategiak. Dimentsio hauek guztiak integratzeko laguntza egokiak dira beharrezkoak. Bistan da, laguntza finantzarioa inbertsioen eta merkataritza transakzioen segurtasunarekin batera joan beharko du. Hitza batean esanda, gure kideei lagundu behar diegu mundializazioaren onurak har ditzaten, prozesu horren eragina ongo kudeatzen eta eragin kaltegarrien ondorioak ahalik eta gehien murrizten.

Eskualde arteko integrazioa eta lankidetza: Eskualdearteko integrazioa eta lankidetza lagungarri dira garapen-bidean diren herriak munduko ekonomian sar daitezen, eta era erabakigarrian laguntzen dute bakearen sendotzean eta gatazken prebentzioan. Estrategia hauek bakarrik ematen diete aukera bere egiten dituzten herriei, mugaz gaineko erronkei heltzeko, batez ere ingurumena eta natur baliabideen ustiapena eta kudeaketa direla eta. Komunitateak, berriz, dituen eskarmentua eta baliabideak izanda, badu bide horretan diren herrien eginahalei bere laguntza ematea.

Politika makroekonomikoen laguntza eta gizarte zerbitzuetarako sarbide berdintzailea sustatzea: Batasunak duen pisu politiko eta finantzarioak aukera ematen diote parte hatzeko, Bretton Woods-eko instituzioekin batera, elkartutako herrien testuinguru makroekonomikoa hobetzekoan. Gai honetan jarraituko den politika, izan ere, erabakigarria baita bermatu ahal izateko, finantza publikoen kudeaketa zorrotz eta eraginkor baten testuinguruan, hazkundearen fruituen banaketa orekatua eta hezkuntza eta osasungintza bezalako oinarrizko gizarte zerbitzuetarako sarbidea, bai eta inbertsioetarako erakargarria den ingurua eratzen laguntzeko ere. Hala ere,eraberritze ekonomikoek eragin iraunkorra izan dezakete, bakarrik, garapen sozial eta humanorako helburuak erabat integratuak badituzte. Gainera, ardatz hau herri pobre oso zorpetuen (PPME/HIPC)zorraren gaineko ekimenean uztartzen da, bertan Komunitateak, kide diren Estatuekin batera, ekarpen handia egin duelarik hartzekodun den aldetik, baina, batez ere, emaile gisa.Gizarte alorrak azpimarratzea, berriz, pobreziaren kontrako borrokarako estrategiaren dokumentuetan (DELP/PRSP) landutako ikuspegiari zor zaio, haiek ere ekimen honen osagai direlako. Testuinguru ekonomikoarekiko koherentzian, Komunitateak jarraitu behar du gizarte alorrekiko (hezkuntza, osasuna) laguntzan, gizarte zerbitzuetarako sarbide ekitatiboa bermatze aldera. Laguntza hauek alorkako programen era hartuko dute, eta solaskide guztiekiko elkarrizketan oinarrituko dira.

Garraioak: Komunitateak eskarmentu paregabea dauka garraiorako egituren eraikuntza eta mantentzeari dagokionean, eta berauek eskatzen dituzten inbertsio mardulen mobilizaziorako behar diren egitura finantzarioak ere baditu. Garapen ekonomiko eta soziala eta oinarrizko zerbitzu sozialetarako sarbidea lortzeko garraio sistema eraginkorrak behar dira. Elkartutako herrien parte-hartzea baldintza nahitaezkoa da eginahal hauen iraunkortasunari begira.

Elikagaien segurtasuna eta landa garapen iraunkorra: Landa garapen iraunkorra eta elikagaien segurtasuna osagai garrantzitsuak dira Komunitateak pobreziaren aurka darabiltzan estrategietan. Elikadurari buruzko Munduko Goi-bileraren konpromisoak bere egin zituen Komunitateak, eta Elikagai Laguntzari buruzko Londongo Hitzarmeneko kide garrantzitsua izaten segitzen du. Ekimen komunitarioak aurrerantzean izanen duen bilakabidea, berriz, une honetan eztabaidagai den honek argituko du, alegia, zer-nolako harremana dagoen elikagaien segurtasuna, pobrezia murrizteko helburu lagungarri den aldetik, eta elikadura alorreko laguntzaren artean, azken hau laguntza humanitarioaren osagai den aldetik. Era berean, larritasuna eta garapenaren arteko loturen testuinguruan, elikagaien segurtasuna eta laguntza humanitarioa hobeki artikulatzen saiatu beharko da Landa garapenari dagokionez, eraginkortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko modu bakarra, epe luzeko estrategiak garatzea izanen da, era parte-hartzailean formulatu eta ezartzen direnak eta landa-munduaren lehentasunak politika orokor eta sektorialetan islatzeko aukera ematen dutenak. Komunitateak eskarmentu zabala du esparru hauetan.

Instituzioen ahalmenak sendotzea: Ongi funtzionatzen duten erakunde demokratikoak dira garapen iraunkorrerako baldintzetako bat. Pobrezia gutxitzeko estrategietan behar-beharrezkoak dira gobernu ona (ustelkeriaren aurkako borroka barne) eta zuzenbideko Estatua. Ildo horretan, Europako Erkidegoa egokia izan daiteke elkartutako herrialdeen instituzioen ahalmena sendotzen laguntzeko.Haren esku-hartzea estatu kideena baino neutroagotzat jotzen da; izan ere, estatu kideek beren historia dute, eta berariazko sistema juridiko bati loturik daude. Europako Erkidegoaren elkartasunaren garrantzia eta lankidetzari buruz duen ikuspegi integratua bere aldeko faktoreak dira, argi dago. Laguntza eman dezan bitarteko egokiak jarri beharko dira, behar den eremu guztietan, bereziki merkataritzan, politika ekonomikoetan, gizarte sektoreetan eta eskualde-integrazioan.

Alderdi horizontalak: Gorago aipatu diren jarduerak antolatzeko fase guztietan, Europako Erkidegoak hainbat alderdi horizontal integratuko direla («mainstream») bermatu behar du: pertsonen eskubideen sustapena, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta ingurumenaren gaia. Europako Erkidegoaren politika guztietan zehaztu eta gauzatu behar da ingurumenaren zainketa, garapen iraunkorra sustatzeko batez ere. Helburu hori aintzat hartuz, komenigarria da ingurumenarekin lotutako gaiak sistemaz txertatzea Europako Erkidegoaren garapenerako bitartekoetan. Gai horizontal horiek berez ere helburuak dira, eta, horretaz gain, ezinbesteko osagai lankidetzaren eragin eta iraunkortasuna finkatzeko. Horren inguruan, Europako Erkidegoak hainbat erreferentziako testu ditu, Nazio Batuetan zein Europako Erkidegoaren foroetan onartuak. Nahitaezkoa da gatazken prebentzioari eta krisiak kudeatzeari etengabeko arreta eskaintzea, garapen-bidean diren herrialdeetan ondorio larriak eragiten baitituzte.

Beste alderdi batzuk: Gaixotasun kutsakorrei dagokienez, mundu mailako garrantzia dutenez eta pobrezian ondorio larriak dituztenez, derrigorrezkotzat jo behar da Erkidegoak eta Estatu kideek eremu horretan azkar jokatzea, arazoaren alderdi guztiei helduta. Informazioaren teknologien eta komunikazioen bilakaerak aukera asko eskaintzen dizkie garapen-bidean diren herrialdeei, sektore pribatuari dagokionez batez ere, baina teknologia horiek ez dira bazterketarako faktore berri bihurtu behar. Europako Erkidegoak eta Estatu kideek beren ekarpena egin behar dute, eta horretarako, atzerapenik gabe aztertu behar dute zein planteamendu egin behar duten gai honetan. Azkenik, Europako Erkidegoak garapen-bidean diren herrialdeetan ikerketa sustatzen jarraitu behar du.

**Ingurumenaren iraunkortasuna**: Gaur egun, garapenaren arloan kontzeptu honen hainbat definizio aurkitzen dira, eta horren ondorioz eragile sozialek proposatu beharreko helburuak biderkatu eta barreiatu egiten dira. Zenbait ikuspegi teorikotan adierazten da hauek direla garapen iraunkorraren ezaugarriak: baliabide naturalei eustea(66), kontsumo mailei eustea(67) nedo baliabide guztiei (giza kapitala, kapital fisikoa eta ingurumen-baliabideak ) eustea(68).

“Garapen iraunkorra” kontzeptuak (Brundtland txostenean -1987- eta Ingurumena eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian, Lurrari buruzko Gailurrean –Rio de Janeiro, 1992– garatu zen kontzeptua, eta Agenda 21 izenekoan zehaztu) adierazten du (eta nolabaiteko adostasuna lortu da horretan) egungo eredu ekonomikoa ezin dela estatu guztietara hedatu, eta mugagabeki ere ezin dela mantendu. Nazioarteko erabaki ez lotesleek azaltzen dute gaur egun planeta jasaten ari den ingurumen-hondatzea (klima aldaketak, basamortutzea, eta abar) alarma zantzua dela, eta nazioartearen berehalako erantzuna behar duela. *González, Lara (2006)*

Gutxien garatutako herrialdeek moldatzeko gaitasun txikiagoa dute, eta ahulagoak dira klima aldaketaren ondorioen aurrean. Herrialde aberats eta pobreen arteko bereizketa handitu eginen dela aurreikusten da, zeren, heriotzak gertatzeaz gain, eragin makurra gertatuko da produkziorako inbertsioetan eta ekonomian (Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Aditu Taldearen –IPCC– hirugarren ebaluazio txostenaren ondorio nagusiak –IPCCeren hirugarren ebaluazio txostena: Klima Aldaketa, Zientzia, Eraginak, Moldaketa eta Arintzea–).

Baiezta dezakegu gaur egun planetak duen ingurumen-arazo nagusia klima aldaketa dela, eta batez ere egungo sistema energetikoak eragiten duela, erregai fosilen erreketan oinarritzearen ondorioz.

Beraz, garapenerako lankidetza proiektuetan kudeaketa energetiko iraunkorrak txertatzeak berekin dakar ingurumenari dagokionez iraunkorra izanen den garapenaren alde egitea (CO2 isurketak murriztea). Gainera, hori bideragarria da ekonomikoki (erregai fosilen inguruko baldintzatze eta garestitzeak desagertu egiten dira) eta sozialki (energia berriztagarri iturriek gizarte-enplegua sustatzen dute).

Egun, 2.000 milioi lagunek ez dute elektrizitaterik, eta, horrela, garapenerako dituzten aukerak oso baldintzatuta daude. *CRAN –Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa (2006)*

OCDE (Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea) erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordeak proposatzen du ingurumena zehar-gai gisa txertatzea garapenerako lankidetzan. Horretarako, haren esanetan, garapen iraunkorra helburu orokortzat hartu behar da, eta haren barnean sartu behar dira pobreziaren aurkako borroka, gatazken prebentzioa eta segurtasuna.

*(66) Carpenter, S. (1991): "Inventing Sustainable Technologies", honako argitalpen honetan: J. Pitt eta E. Lugo, eds., The Technology of Discovery and the Discovery of Technology: Proceedings of the Sixth International Conference of the Society for Philosophy and Technology, Blacksburg (VA), Society for Philosophy and Technology, 481-482 or.*

*(67) Redclift, M. (1987): Sustainable Development: Exploring the Contradictions, Londres, Methuen.*

*(68) Bojo, J., Maler, K. eta Unemo, L., eds. (1990) Environment and Development: An Economic Approach, Dordrecht, Kluwer.*

Milurtekoko Garapen-Helburuetan ere azaltzen da garapenerako beharrezkoa dela ingurumenaren hondatzea murriztea. Bestalde, ingurumenaren iraunkortasunak duen garrantzia ikusirik, Nazio Batuek, 2002ko abenduaren 20an ezarri zuten Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Hamarkada. Haren bidez sustatu zituen arlo horretarako hezkuntza, gaitzea eta kontzientzia hartzea. Gainera, hezkuntza funtsezko tresnatzat hartu zen, giza garapena eta ingurumena hobetzeko politikak lotze aldera. *González, Lara (2006)*

Ingurumena, Garapena eta Pobrezia.

Hirurogeiko hamarkadan ohartu ziren lurra, airea eta ura kutsatzeak eta natur baliabideen erabilerarekin lotutako arazoek planeta guztiari eragiten zietela. Horiei helduta, nazioarteko hainbat biltzar egin ziren, eta, hala, eztabaida hasi zen ingurumen-politika globalei buruz eta horiek garapen globalarekin zuten erlazioari buruz.

Bi nabarmendu ziren: UNESCOren Biosferaren Kontserbazioari buruzko Nazioarteko Biltzarra eta Nazio Batuen Giza Ingurumenari buruzko Konferentzia (Stockholm, 1972). Nazio Batuen Konferentzian ingurumena eta garapenaren arteko lotura ezarri zen, baina ez zen adostasun orokorrik lortu, eta, ikuspegi ekonomizista nagusi izanik, garapenaren helburu garrantzitsuena hazkunde ekonomikoak izaten jarraitu zuen.

1972. urtean zientzialari, ekonomista, enpresaburu eta funtzionario talde batek, Erromako Klubak, ikerketa bat agindu zien 17 ikertzaileri, Dennis Meadows buru zutela. “Hazkundearen mugak” izeneko txosten bat izan zen haren emaitza. Hartan lotura zehatza ezarri zen hazkunde ekonomikoa eta ingurumeneko ondorioen artean.

1980an, Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak “Mundu mailako Kontserbaziorako Estrategia” izeneko txostena egin zuen, eta, hartan, kontserbazioa eta garapena lotzeko beharra adierazi zuen. Agiri estrategiko hark ezarri zuen “garapen iraunkorra” kontzeptua.

1984. urtean Nazio Batuek “Ingurumen eta Garapenerako Mundu-Batzorde” berezia sortu zuen. Hark, 1987an, “Gure etorkizun komuna” izeneko txostena egin zuen, “Brundlant txostena” izenez ere ezagutua. Hartan esaten zen etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izanen duten ahalmena arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituena dela garapen iraunkorra. Handik aurrera, nazioarteko komunitatearen helburuen artean kokatzen da garapen iraunkorra. Gainera, txostenaren arabera, pobrezia ingurumen-arazo globalen zergati nagusi eta ondorioa da aldi berean.

Horrekin denarekin zehazten den garapenaren kontzeptua elkartasunaren hiru printzipiotan oinarritzen da: belaunaldi-artekotasuna (egungo eta etorkizunekoen artekoa), eskualde-artekotasuna (munduko eskualde batzuen eta besteen artekoa) eta belaunaldi-barnekotasuna (aberatsen aldetik pobreenganakoa).

Bukatzeko, ingurumenari buruzko azterketa eta hausnarketa kritikoan beste aurrerapauso bat Munduko Bankuak eman zuen, 1992an egindako munduko garapenari buruzko txosten baten bidez. Garapena eta ingurumenaren arteko erlazioari buruzko azterketa monografikoa zen. Rio de Janeiron egitekoa zen Lurrari buruzko Munduko Gailurra zela-eta gauzatu zen, eta banan-banan heltzen die ingurumen-arazoei eta nazioarteko harremanetan dituzten eraginei.

Prozesu guztian zehar analista eta ikertzaileen artean bi doktrina-joera nagusi sendotu ziren, honelako arazoei heltzeko bi modu islatzen dituztenak:

• Lehena ingurumen-ekonomia dugu, eta ikergaitzat ditu Ingurumen arrastoarekin lotutako kanpo-alderdiak eta agortzen ahal diren baliabideak belaunaldien artean banatzea. Joera honek merkatua erabili nahi du ingurumena hondatzen duten jarduerak zigortzeko. Horretarako, ingurumen-narriadurak eragindako kostuak ekonomikoki balioetsi nahi ditu, eta eragile ekonomikoen erabakietan txertatu.

• Bigarrena ekonomia ekologikoa dugu, eta honek modu integralean aztertu nahi du ingurune fisikoa eta oinarri produktibo eta sozialaren arteko harreman dinamikoa. Horretarako nagusi den paradigma ekonomikoa bera eta haren kontabilitatea aldatzea proposatzen du, ingurumen-alderdien faktoreen neurketa integratuta. Ingurumen-alderdiak kontrolatzeko merkatuaz besteko arautze mekanismoak baliatu nahi ditu.

Bistan da, bi jarreren artean, ezadostasun analitikoez gain, desberdintasun ideologiko sakonak aurki daitezke. Baina, ikuspegia edozein izanik ere, biek ere planetaren natur-oinarria iraunarazi eta hobetzeko beharra atzematen dute. Ingurunearen narriadura, zentzu zabalean ulerturik, soilik ondasunak eta ongizatea galtzea ekar dezake bai oraingo bai etorkizuneko belaunaldietarako. Eta atalase-maila kritiko batzuk iraganda, narriadura itzulezina izan daiteke, ingurunearen birsorkuntzarako ahalmenak gaindituta eta planetako biziaren iraunkortasunari eraginda.

Prozesu honen guztiaren ondorio gisa, nabarmentzekoa da, testuinguru honetan, garapen iraunkorra sustatzeko ekintzen baitan heldu behar zaiola pobreziaren aurkako borrokari, eta herrialde pobreen “garapenerako eskubidea” aintzat hartu behar

dela. Halaber, argi gelditu da ingurumen-iraunkortasuna gakoa dela edonolako garapenerako. Gainera, garapen iraunkorrak hainbat alderdi biltzen ditu, esaterako instituzionalak, ekonomikoak, sozialak, politikoak eta ingurumenekoak. Azkenik, Garapenerako Laguntzan kontuan hartu behar da osagai horiek guztiak maila guztietan izan behar direla gogoan, dela garapenerako politiketan dela gauzatzen ari diren proiektu zehatzen inplementazioan.

Bukatzeko, eztabaida honetan gogoan izan beharreko beste osagai bat Pobrezia eta Ingurumenaren arteko harreman estua da: badira hainbat aurreiritzi, eta horien eragina nabaritu egin da harreman honi buruzko eztabaidan, “gurpil zoro” edo “beheranzko espiral” baten moduan. Hala ere, hainbat esperientziak erakusten digu ez pobreziak ez populazioaren hazkundeak ez dakarrela derrigorrez ingurumenaren narriadura. Garapenerako eginahalek fruitua eman dezaten, nahitaezkoa da ingurumena eta pobreen arteko harremanaren inguruko topikoak arretaz aztertzea eta, ahal izanez gero, horiei amaiera ematea. Pobreziaren bukaera eta natur baliabideen oinarria zaintzea erabat bateragarriak dira. Horren haritik, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (PNUD) eta Europar Batasunaren pobreziari buruzko ekimena aipatu behar da. Haren baitan honako dokumentu hau argitaratu da: “Gure bizitza hobetzea... naturari esker: pobreziari aurre egin eta aldi berean ingurumena hobetzea, baldintza hoberenak”. Ekimenak irismen handiko helburua du: pobrezia eta ingurumenarekin lotutako teorian eta praktikan funtsezko aldaketak bultzatzea, halako moduz non ekarpen esanguratsu eta etengabea eginen baita, baldin eta nazioarteko komunitateak ahalegina egiten badu Nazio Batuen biltzarretan planteatutako erronkei nola aurre egin zehazteko.

Hainbat esperientzia berritan baliabideak pobreen parte-hartzearekin antolatu dira, eta horietan kolokan jarri dira pobreen eta ingurumenaren arteko harremanei buruz oso erroturik zeuden hipotesi batzuk:

1. Pobreziak ez du nahitaez ingurumenaren hondatzea ekartzen. Pobrezia eta ingurumenaren arteko loturak konplexuak dira, eta horiek ulertzeko tokian tokiko berariazko azterketak egin behar dira; ez dago kausa-lotura sinplerik. Hainbat eskualdetan, egoera ekonomiko oneko jendeak, merkataritza konpainiek eta estatuaren organismoek eragiten dituzte egiaz ingurumeneko kalte nagusiak, sasitza kentzeagatik, nekazaritzarako produktu kimikoak erabiltzeagatik, uraz jabetzeagatik eta kutsaduragatik. Batzuetan, pribilegiodun taldeek pobreak bazterreko lurretara bidaltzen dituzte, eta han, kontserbazio eta birsorkuntzarako kostuak ezin jasan dituztenez, pobreek jadanik narriatuta dagoen ingurumena are gehiago kaltetzen dute, lurrak erabiltzeko duten moduagatik. Baina, beste adibide askotan, jende oso pobreak ingurumena zaintzen du, eta hura hobetzeko inbertsioak egiten ditu. Ondorio gisa, pobreziak batzuetan ingurumena hondatzea dakar berarekin, baina ez dago derrigorrezko kausa harreman zuzenik.

2. Populazioaren hazkundeak ez du nahitaez ingurumenaren narriadura eragiten. Hasieran, gerta daiteke populazioa handitzen den neurrian ingurumenaren narriadura eragitea; baina ondorengo etapetan gertatzen dena kasu bakoitzari dagokio. Jendea berehalako inbertsioak egiteko pobreegia denean, edo inbertsioak fruitua noiz emanen itxaroteko behartsuegia denean, narriadura larritu egin daiteke. Beste batzuetan, lurraren eta eskulanaren kostuen arteko proportzioa handitzen den neurrian, nekazariek landareak eta animaliak erabiltzeko moduak alda ditzakete, edo lurrean inberti dezakete, produktibitatearen hasierako beheranzko joerari aurre egiteko (erabilera intentsiboago bat dela-eta). Hiriguneetan, hainbat proba enpirikok erakutsi dute gobernu egokiari esker ingurumena zain daitekeela, baita hiriak handitzen direnean ere. Beraz, populazioaren hazkundea geldiarazteak edo jendea gune oso populatuetatik kanporatzeak beharbada ez du baliabideen produktibitatea ez kalitatea hobetuko.

Bi hipotesi horietaz gain, badira hainbat mito, egiaren zati bat badutenak, eta, horregatik, iraun egiten dutenak. Hala ere, askotan mito horiek duten egia selektiboki aipatzen da, herrialde indartsuenen statu quoa edo helburuak zuritzeko. Hona hemen mito nabarmenenak:

1. Pobreziak ingurumenaren narriadura dakar nahitaez.

2. Herrialdeek pobrezia ezabatu behar dute ingurumena hobetzen saiatu aurretik.

3. Pobreak pobreegi dira ingurumenean inbertitzeko.

4. Populazioaren hazkundeak ingurumenaren narriadura dakar nahitaez.

5. Pobreek ez dute baliabideak kudeatzeko behar diren ezagutza teknikorik.

6. Estatuak kontrola ditzake hobekien baliabideak.

7. Merkatuek beti baliabideen banaketa eraginkorra ekartzen dute.

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra). Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua